

ttipi-ttapa



HERRIETAKO BESTAK / 27

BORONDATEZKO KEINU TTIKIEN GARRANTZIA

Bi hamarkada bete ditu batez ere Beran eta Lesakan errotua den Elkarrizan laguntza emaile taldeak.

47 boluntario dira gaur egun, eta hainbat jarduera egiten dituzte, bereziki zahar etxeetako egoiliarrekin.

Taldeko atekak zabalik daudela oroitarazi dute. / 7



BERAKO SAN JOSE ZAHAR ETXEA

Energia komunitatea Amaiurren

Urkilo Komunitate Energetikoa sortu dute Amaiurren. Elkarte sortuta, hainbat proiektu martxan paratu nahi dituzte. / 60

SINADURAK



EKIÑE ZAPIAIN ARLEGI / 3

AITOR AROTZENA ARBIZU / 3

MAITANE MARITORENA AZKARATE / 4


EÑAUT IPARRAGIRRE ZINKUNEGI / 4



ZOZKETA / 80



Sexilioari buruzko lanarekin Berria Saria irabazi du Martxel Larrazak / 10



Aimar Otxoteko Lesakako mendi lasterkariarekin solasean / 15



Oihana Lujanbio goizuetarraren ikerketa proiektua saritu dute / 59

BERAKO BESTAK 2024

30€-ko menua

**PATEA
URDAIAZPIKOA
FRIJITUAK
GANBOIAK**

**LUPIA
SEPIA
AHATE-PAPARRA
UNTXIA
ENTREKOTA**

**Postrea eta edaria barne*

40€-ko menua

**PATEA
URDAIAZPIKOA
FRIJITUAK
GANBOIAK**

**TXULETA
(2 LAGUN)
ITSASKI-
PARRILADA
(2 LAGUN)**

**Postrea eta edaria barne*

**ENKARGUZ
(2 EGUN LEHENAGO)**

**BILDOTSA
TXERRIKUMEA
ERREBOILOA
SARDINAK
ZAPOA**



Gora San Estebanak!

**URALDEA KARRIKA. 4
31780 BERA. NAFARROA**

telf.: 948 11 09 13
@ ikuilu_puy



Drone zerbitzuak



Dronearekin sortutako edukiak

Kalitatezko irudiak behar duzunerako



Publizitatea
Argazkiak
Film laburrak
Turismoa
Eraikuntza lanak...



Dronearekin egindako irudien edizioa eta muntaia aukeran





NIRE TXANDA

EKHIÑE ZAPIAIN ARLEGI

'Txis pum'

Txis pum. Horixe da suziri batek egiten duena. *Txis pum.* Hasten dira bestak: kuadrillak, musika, irriak, negarrak eta alkohola. Gertatzen dira erasoak (eta salatzen dira batzuk). Eskapatzen dira zakurrak negarrez, edo ospatzen dugu eta erakusten diegu bertze guztiei zein pozik gauden. Hori eta aunitzez gehiago kabitzen da *txis pum* batean. Uztailean zehar jabetu naiz zenbat erran dezakeen suziri batek. *Txis pum* batek. Izan ere, zer hausnartua izan nuen karrikan ume batek bertze bati errandakoa zeharka aditu nuenean. «Gaur jokatzeko dugu» zioen, eta Espainiako selekzioa Alemania-koaren aurka aritzekoa zen. Ziur ume hura aski kontent jarri izanen zela uztailearen 14an Espainiak Eurokopa irabazi eta Lesakan bertan ospakizun suziriak aditu zituenean. Niri, aldiz, kontrako eztairik joan zitzaidan listua. Egun berean suziriak bota zituzten Baionan, ospatzeko egun hartan erregetza irauli zutela, errepublikarekin dena moldatu zutelakoan... Beti heldu da ongi birpentsatzea zer den ospatzen duguna eta zergatik egiten dugun. Bertzela, akaso suziria gure kontra lehertuko da egunen batean. *Txis pum.*

«SUZIRI BATEK ZENBAT ERRAN DEZAKEEN OHARTU NAIZ UZTAILEAN»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Zer egiten ari gara gaizki?

Sanferminen aitzinetik eraso bat eta bestetan bertze eraso bat eta jazarpena: bi astetan hiru gizonezko atxilotu Lesakatik mugitu gabe. Baionako eta Iruñeko bestetan intentsitate handiko edo txikiko (?) hainbat sexu eraso... uztaileko lehen erdian, espainiar estatuan borts emakume erahilak. Urrunagoko daturik ez dut. Zer egiten ari gara gaizki?

NABARMENTZEKOAK



JORGE AGIRRE DE CESPEDES
LESAKAKO FUTBOLARIA



MAIKA ARIZTEGI MARIEZKURRENA
ITURENGO KIROLARIA

Donostiako Real Sociedad eta azken denboraldian Osasuna Promesas taldean aritu ondotik, Portugalgo lehen mailako Gil Vicente taldearekin hiru urterako fitxa egin du aurrelariak.

Ohi denez, Iruñeko sanferminetatik herri kiroletako Nafarroako txapel aunitz lortu dituzte eskualdeko kirolariak. Hamalagarrena lortu du Ariztegi ingude altzatzen.

GIBELERA BEGIRA



2014-07-24 · TTIPI-TTAPA · 619 zk.

Uholdeen ondorioak moldatzeko garaia

2014ko uztailearen 14an Baztanen izandako uholdeak izan ziren protagonista aldizkariko 619. alean. Hogei minutu aski izan ziren dena hankaz goiti jarri, eta ura pentsa ez zitekeen tokietara ailegatzeko. Kalteak izugarriak izan ziren: dendak eta negozioak ur azpian, aziendak hilik, belagiak erreka bihurtuta, mendi pistak kaltetuak... Hala ere, pozik egoteko arrazoiak ere bazirela nabarmendu zuen Garbiñe Elizegi Baztango alkateak, inork ez baitzuen minik hartu. Gertaerak, ordea, izan zuen argitik ere: auzolanaren ondorioz, momentuko hondamenari erantzuna eman baitzioten: «Herriarren erantzuna eredugarria izan da eta horri esker astelehenean nolabaiteko normaltasuna zen nagusi karrketan», kontatu zuen Elizegik.

ttipi-ttapa

erran.
eus

TOKIKOM

PRES

Argitaratzailea

Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larrebea
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Berriemakileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Aitzuri,
Arantxa Etxeberria, Iraia Jaurena,
Irene Elizagoien, Maider Petrirena,

Ainhoa Ansa, Fermin Etxekolonea,
Aintzane Leiza, Ana Iturbide,
Itziar Mixelena, Juan Mari Barriola,
Maitane Maritorea, Arantxa
Iturralde, Arantxa Gamio, Jaiene
Ariztegi, Jaiene Zabalo, Nerea
Mortalena, Jean Louis Bessonart,
Ganex Etxeberrigarai, Maialen
Iantzi, Olatz Mutuberria, Oier
Zulaika.

Fundazioaren Presidentea

Paskual Rekalde
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko
udalak, Malerrekako Zerbitzuen
Mankomunitatea.

2024ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	47€
Leitza	40€
Hego Euskal Herria	50€
Ipar Euskal Herria, Europa	110€
Amerika eta Australia	155€

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

mecna

BAZTANGO EUSKARA

BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA

Malerrekako Mankomunitatea



KOLABORAZIOAK

MAITANE MARITORENA AZKARATE

**Ez noa bakazioetarat,
Ez noa 'nire' herrirat**

Uztaila, sanferminak pasatu berri, abuztua ate joka... batzuk bakazioetan, eta bertze batzuk bakazioetarat joanak edo etorriak. Ez baita gauza bera bakazioetan egotea edo bakazioetarat joatea. Gaur egun irudi du ez dela aski bakazioetan egotea, bakazioetan egoteaz gain, bakazioetarat joan egin behar baita. Data hauetan turista gisa «nahitaz» bisitatu beharreko tokietarat joaten ez den jende anitz, *bere* herrirat joanen da uda pasa. Izenik gabeko herrirat, gurasoen sorterria izaten ahal dena, amatxi-aitatxiena, edo bertzerik gabe, bakazioak pasatzeko dituzten *nire herrira*. Hirietan jende aunitzek bai baitu bere herria.

Ez dakit zuri, irakurle. baina niri, harrigarria egiten zait hirietan bizi diren zenbaitek, bigarren bizitza duten herriari deitzeko manera, deitzeko manera baino gehiago, herriaz jabetzeko manera. Asteburu ailegatu eta *nire herrira* noa, edo *nire herrian* hau eta bertze egiten da. Bitxia egiten zait herria izendatzeko manera hori. Alde batetik, herriek pertsonak bezala izena badutelakoz, eta bertzetik, herria herritarrek egiten dutenez, gurea delakoz, ez jabetza pribatukoa.

**«UDA ETA NEGU
BIZI GAREN ETA
BIZIA DUEN HERRIA
DA GUREA»**

urte guztian ez ziren hor bizi. Bizi ziren herriaz galdetuta, «arras ttipia da eta ez duzu ezagutuko» erranez, herriaren izena erran beharrean, inguruko herri kozkorrago batena erraten zuten, edo «ospetsua» zen inguruko erreferentziaren batena... ezezaguna izateak nor izatea kenduko balie bezala.

Gure herriaz oroitzen naiz horrelakoetan. Nongoa naizen galdetzen didatelarik, Anizkoa naizela erantzuten dut, naizen herrikoa, alegia (nongoa bertzela?). Aniz erranta jakin badakit jende anitzek ez duela ezagutuko, Baztan erratea aski nukeela pentsatuko du bakarren batek, Baztan erranta denek kokatuko baitute nongoa naizen, Aniz erranta ez bezala. Afera ez da bertzeek Aniz non kokatu jakitea, ezpada gure herriak ere badirela erakustea. Izena eta izana ere badutela gure herriek, uda eta negu bizi garen eta bizia duen herria dela gurea.

Uztaila, sanferminak pasatu berri, abuztua ate joka... gure herriak *nire herri* bihurtuko dira hiritar anitzendako egun hauetan. Bakazioetarat etorriko dira gure herriak *nire* bihurtuz, gure herrietako lasaitasunaz, paisaiatz, edertasunaz... gozatu bidenabar, ea hemen urte guztian nola bizi(tzen ahal) garen galdetuz.

Gogoan dut ikasketak egiterat Gasteizerat joan eta hirietan bizi zirenak nola joaten ziren asteburuetan eta udan *nire herrira*. Izenik gabeko herriak zituzten gehienek, jabetuak, norberarenak eginak, nahiz



EÑAUT IPARRAGIRRE ZINKUNEGI

Promesak

Hainbat promesaren gainean eraiki da orain arte ezagutu dugun Europa. Bizi maila on bat lortzeko promespean; norberak etxebizitza lortzeko promespean; kotxe on bat (edo bi) izateko promespean; urtean pare bat aldiz oporretara joan ahal izatearen promespean; furgoneta bat erosteko promespean. Baina... Promes horiek bere horretan segitzen dute edo lehengo kontuak dira?

Azken urteetan pobrezia gero eta handiagoa ikusten da. Ikusi bertzerik ez dago edozeren prezioa. Lege gero eta gogorragoak. Ongizate estatuaren suntsitze progresiboa. Ideia eta talde faxisten zabalpena. Gerra European bertan. Genozidioa, telebistan zuzenean eskainia. Garai batean promes eta ilusio zirenak, pixkanaka-pixkanaka desegiten. Eta,aldi berean, ideia eta praktika faxisten eta erreakzionarioen orokortzea, eta ez bakarrik talde faxisten aldetik.

Orain arte nolabaiteko bake sozial bat mantendu ahal izan da European, bertako oligarkiak bizi maila on orokortu bat sortu ahal izan duelako bertako langileongan. Bertze langile batzuen kontura izan da hori, jakina: Hirugarren munduan Europako oligarkiak lortu ahal izan duen irabazi guztiarekin posiblea izan zaio bere lurretan langileria erostea. Baina hori bukatzen ari da, bertzeak bertze, Europatik kanpo herrialde

**«FAXISMOAREN
GOITITZEA
EZ DA
KASUALITATEA...»**

Zein da egoera horretan ematen ari den erantzuna? Ba, lehenik eta behin gerra. Gerraren azken helburua diru gehiago lortzea izaten da, eta aspaldiko partez Europako lurretan ikusten ari gara. Ekialde Hurbilean ere, denak segitzen ari gara palestinarren kontrako genozidioa. Honetaz gain, langileon bizi mailak jaiste, bai prezioen igoeraren eraginez, bai ongizate estatuaren desegitearen bidez. Eta, azkenik, egoera honetarako erabilgarri egiten zaien kultura gero eta erreakzionarioa eta autoritarioagoa sustatzea.

Berak sorturiko miseriaren ardura hartu beharrean, arazoaren fokua beregandik urrundu eta gizarteko kaparik zapalduenak egiten ditu miseria horren errudun, langileon arteko etsaitasuna sortuz. Horregatik diogu faxismoaren goititza ez dela kasualitate, kapitalari, ahultzen ari den momentuan, erabat funtzional egiten baitzaio langileon arteko etsaitasuna bultzatzen duen kultura hau.

Beraz, promesa faltsuetan eraikitako gaur eguneko Europa honek ez du langileontzako etorkizun oparorako aukerarik emanen. Eta bizi baldintzen okertze honen kontra, zapalduen arteko seinalatzeak sustatu ordez, beharrezkoa da honen erantzuleak seinalatu eta gure artean antolatatu eta egoera honi kontra egiten dion kultura sortzen hastea. Langileon batasunak eta antolakuntzak soilik egiten baitio kontra heldu zaigun basakeriari.

11 GALDERA LABUR

AITZIBER ABASOLO LARRAZABAL BERAKO ARGAZKILARIA

«Nire errealitatea islatzen dut argazkietan»

Beran bizi den bizkaitarra da Aitziber Abasolo Larrazabal, eta, bertzeen artean, zaletasun duen argazkilaritzaz mintzatu da.

Nola definituko zenuke zeure burua?

Bere bizitza ordenan jartzen saiatzen ari den jakin-min handiko pertsona.

Zein dira zure zaletasunak?

Argazkilaritza, mendia eta herri politetako kaleetan galtzea, kamera batekin baldin bada, hobe.

Noiz etorri zinen Bizkaitik Bortzietara bizitzera?

Ba orain konturatu naiz, due-la justu 20 urte.

Aldaketa handia izan zen?

Ez zait iruditzen hemen bizitzeak aldaketa handia suposatuzidunik, azkenean, ez

nago Bizkaitik hain urruti eta hemen dena dago hurbil: mendia, hiria, itsasoa... gustura nago Beran.

Nondik heldu zaizu argazkilaritzarako zaletasuna?

Betidanik izan dut gustuko. Txikitan gurasoen kamera hartzen nuen eta nire lehenbiziko soldatarekin orduko kamera analogiko bat erosi nuen.

Zer da argazkilaritza zuretzat?

Buruan dudan nahaste borrarastea askatzeko era bat da argazkilaritza. Ikusten dudan errealitatea islatzen dut, niri atentzioa ematen didana, horren bitartez emozioak transmititzeko intentzioarekin.

Zein argazki estilo gustuko duzu gehien?



Kaleko argazkia eta erretratu ditut gustukoan, azken hori gehienbat; erretratu naturalak eta baita fantasiakoak ere. Adibidez, asko nahasten ditut natura eta pertsonak.

Zer ez da inoiz falta zure argazki ekipoan?

Bigarren bateria eta memoria txartela. Beste guztia egunaren edo egiteko asmoaren arabera.

Betetzea gustatuko litzazukeen ametsik?

Galdera zaila, ideia asko pasatzen zaizkit burutik... baina betetzeko bezala, adibidez, argazkilaritza nire garapen pertsonalerako erabiltzen jarraitzea.

Zein dira zure asmoak epe motzera?

Argazki proiektu bat garatzea eta lanak egiten jarraitzea.

Eta zein dira zure asmoak epe luzera?

Ikusiz joan... eta agertzen dena gustuko baldin badut, hartu.



1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak

Mantelak

Kuxinak

Edredoi nordikoak

Ohe estalkiak

Maindireak

Toallak

Edredoi-azal nordikoak



HEMEROTEKA



«Nekazaritza ez da estereotipoetatik libratzen. 'Nekazari' hitza erran, eta gehienei gizon-zekoaren irudia etorriko zaie gogora. Emakumeak ere nekazariak izan dira, eta dira, eta espero dut izanen direla (...). Beren lana ikusezina izan da, bertze arlo aunitzetan bezala. Ematen du gizonaren laguntzaile direla, beharrezkoa da gure izatea markatzea, eta 'emakume nekazaria' erratea: ni ez naiz inoren laguntzailea, ni emakume mahastizaina naiz, autonomo erregimenean ari naiz lanean, lehenbiziko sektorean. Zoritxarrez, oraindik hori azpimarratu beharra dago».

ANA IRIARTE BAÑEZ | ARIZKUNGO MAHASTIZAINA | ARGIA | 2024.07.03



«Aldaketa handia izan da [egunkari batetik irratira lanera pasatzea], erritmo aldetik arras desberdinak baitira biak ala biak. Irratia arras bizia da, unean unekoa, eta anitz gustatzen zait. Dena den, kolaboratzaile aritu izan naiz lehenago Euskalerrria Irratian, sekzio ttiki batean. Egia erran, etxean bezala aritzea da; harrera ezin hobea egin didate (...) Irratiak duen emozioa eta bat-batekotasuna ezin dira ordeztu... bihotza erdibiturik daukat, baina irratian erosoago».

MIREN MINDEGIA | IRRATIKO ESATARIA BAZTAN | BERRIA | 2024.07.10



«Musika zubi bat da niretzat, jendartearen komunikatzeko eta pertsonengana ailegatzeko modu bat, beti bueltan datorrena publikoarekin. Pila bat maite dut ikuskizunak eta antzezlanak egitea, denentzat onuragarria den zerbait egiteak zentzua ematen baitio musikari eta nire lanari (...) [Jardueren artean] antzerkia aukeratuko nuke, lanketa pertsonala izan baita niretzat. Batez ere, beldur eszenikoari aurre egiten lagundu dit. Ikasi dut gu zubia bakarrik garelara, eta mezua dela garrantzitsuena».

ARAITZ BIZKAI | BERAKO MUSIKARIA BERRIA | 2024.07.13



«60 urterekin aurretiko jubilazioa hartu nuenean hasi nintzen egurra taillatzen, eta gaur egun horretara dedikatzen naiz, horixe da gustatzen zaidana (...) Taillatzeko, nahitaezkoa da tresna ongi zorroztuta izatea (...) Egurrezko kaiku ttiki bat guttienez 100 eurotan saldu behar duzu, egiten ordu aunitz pasatzen baitituzu... Eta ez dizu inork erosten. Bueno, badira erosten dutenak, baina hagitz gutti. Eta horregatik egiten dugu orain 3Dn».

JOSE LUIS OLAIZOLA | DONEZTEBEKO ARTISAUUA | D. NOTICIAS | 2024.07.15

BOTA BERTSOA



IZADI LASAGA AGIRRE (BERA)
BAZTAN-BIDASOKO BERTSOPAPER
LEHIAKETAN A MAILAN 1. SARIA

Poza

Doinua: Gizona da zoroa

*Emozioen artean
badago bat poza
txinparta bat bezala
dela hagitz motza
pozik sentitzen banaiz
ona dut bihotza
baino beste batzutan
sentitzen dut lotsa.*



OLHAIN PLAZA MAIA (LESAKA)
BAZTAN-BIDASOKO BERTSOPAPER
LEHIAKETAN A MAILAN 2. SARIA

Gernikako puzzlea

Doinua: Guretzat berdin dira

*Lehenago egunean
egin nun puzzlea
mila pieza zituen
sobera luzea
Puzzlea bukatzeko
banun bai gogua
pieza bat paratu ta
egin nun oihua.*



Berako zahar etxeko egoiliarrek boluntarioekin paseatzera ateratzen dira. Lesakan gauza bera egiten dute. BERAKO ZAHAR ETXEA

Urtetik urtera indartzen ari da Elkarrizan

20 urteko ibilbidean, Beran eta Lesakan ederki errotu da Elkarrizan laguntza emaile taldea. Urteotan boluntarioen talde zabala bildu da eta denetariko jarduerak egiten dituzte. Batez ere zahar etxeetako egoiliarrekin egoten dira, baina bertzelako ekintzak ere egiten dituzte eta euren borondatez

G. PIKABEA BORTZIRIAK

Batzuek ospitaleetara eta osasun zentroetara laguntzen diete; bertzeek etxeetan eta zahar etxeetan konpainia egitera joaten dira, kantatzera, erosketak egiten laguntzera edota egoiliarrekin paseoak, otorduak eta bertzelako ateraldiak egitera; jubiloteketara joateko garraioaz arduratzen dira bertze batzuk; badira alfabetatzeko eskolak ematen aritzen direnak ere edo bideo deiak egiten dituztenak... Borondatezko keinu ttikien zerrenda luzea dago Elkarrizan laguntza emaile taldeko kide bakoitzaren gibelean. Musu truk egiten dituzten keinu ttiki handiak dira.

Bi hamarkada bete ditu batez ere Beran eta Lesakan errotua den Elkarrizan taldeak. Berako Udalak ireki zuen bidea,

herri mailan sumatuak zituen gizarteko beharrei erantzuteko asmoz. Hala hasi ziren Berako zahar etxeko egoiliarrei konpainia eginez.

Hasiera hartan, ordea, ez zuen esperotako segidarikizan, eta 2010-2011 aldera, parte hartzea ttikia zela ikusita, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen atea jo zuen Berako Udalak. «Boluntariotzari harroaldi bat emateko laguntza eskatu ziguten, eta boluntarioak biltzeko sentsibilizazio kanpainak egin genituen», kontatu du Jokin Apezetxea gizarte zerbitzuetako teknikariak. Bere fruitua eman zuen. Jendea animatu zen eta 2012an lesakarrak ere bildu ziren taldera.

Geroztik, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearekin elkarlanean ari

dira, baina taldeak badu bere zuzendaritza: Mayte Sanz lehendakaria da, Marisol Taberna idazkaria, Alfonso Obeso koordinatzailea, Miren Josune Azurza diruzaina, eta Ramontxo Errandonea eta Iñaki Goienetxe bokalak. Hilabeteko bigarren astelehenean biltzen dira gizarte zerbitzuetako teknikariarekin.

luz 2.910 ordu

Euren denbora librea bertzeei lagunduz dedikatzen duten 47 boluntariok osatzen dute Elkarrizan, eta bide onetik doa-

GAUR EGUN 47 BOLUNTARIO DITU ELKARRIZAN TALDEAK

ladio Apezetxeak: «Boluntarioak gero eta gehiago dira eta borondatezko ordu kopurua ere urtetik urtera gehitzen ari da». Konparazio batera, joan den urtean 2.910 ordu egin zituzten borondatezko lan horietan –2022an 2.831 ordu–: 1.657 ordu Berako eta Lesakako zahar etxeetako egoiliarrek paseatuz; 481 ordu zahar etxeetan kantari; 213 ordu taldeko bileretan; 200 ordu ateraldietan eta otorduetan; 107 ordu etxeetara lagunduz; 89 ordu ospitaleetara lagunduz; 88 ordu alfabetatzeko eskolak emanez...

Boluntarioen profilari dagokionez, «batez ere jubilatutako jendea» da Apezetxearen arabera. Eta haiengan paratu du arreta: «Adin tarte horretan harrobi kozkorra dugu eta profil horretako jendea bildu nahi dugu Elkarrizanean». Argitu duenez, «boluntarioei aseguruia egiten zaie, kilometrajeak ordaintzen zaizkie, formazioa ematen zaie eta gizarte zerbitzuekin segimendua egiten zaie».

Ateak zabalik

Hasierako helburuei tiraka segitzen dute eta «zahar etxeetan ongi finkatu» ondotik, «etxeetan sartzea» dute orain erronka nagusia, «bakarrik daudenei konpainia egiteko». Batean ez bada bertzean aritzeko, Elkarrizaneko atek zabalik daudela gaineratu du Apezetxeak eta nahi duenak Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatera jotzen ahal du.

Hortik haratago «halako keinu solidarioek eta altruistek sortzen duten ongizatea» nabarmendu du eta ongizate hori aldebikoa da bere hitzetan: «Zerbitzua hartzen dutenendako ona da, alaitasun handia delako euren eguneroko martxan. Baina borondatezko lan hori egiten duenarendako ere arras onuragarria da. Nahikoa da astean ordu bat edo bi hartzea eta norbaiti kuku egitea. Ea Bortzirietan kontzientzia sozial hori xerztatzea lortzen dugun». →

«Bertzeei mesede egiteaz gain, norberari ere on egiten dio»

MARISOL TABERNA IRATZOKI IDAZKARIA ETA BOLUNTARIOA (BERA)

Elkarrizanen sorreran parte hartu zuen Marisol Taberna Iratzoki beratarrak, Berako Udaleko zinegotzi zenean. Kontatu duenez, «herri mailan gizarte gaiekin zerbait egin nahi izan genuen» eta mugitzen hasi ziren: «Herri mailan deialdi zabala egin genuen, eta jende dezentet hurbildu zen, gehienbat emakumeak. Boluntarioen taldea sortu eta zahar etxera bisitak egitera joaten hasi ziren». Hala ere, gogoan du «ordurako bazirela, modu pertsonalean,

zahar etxera konpainia egitera joaten zirenak» 20 urte beranduago, berriz bueltatu da elkartera, ilbeltzetik boluntarioa baita: «Berako zahar etxera kantatzera joaten naiz».

Elkartearen muina bertze manera batera ezagutzen ere ari da beratarra, otsailaz geroztik idazkaria baita. Elkarrizan «egoera onean» ikusten duela dio: «Azken urteotan dezente sendotu da eta boluntarioak gogotsu eta gauzak egiteko ilusioz sumatzen dira. Gainera,



Marisol Taberna Iratzoki.

hasiera hartan zahar etxera joateko izena eman zutenak emakumeak izan ziren, baina gaur egun gizon eta emakume biltzen gara». Bera ere kontent

dabil: «Adinekoengana hurbiltzeko manera bat da eta ez dut sentitzen laguntzen ari naizenik. Ongi sentitzen naiz gizatasuna badela ikusita, eta aldi berean, hagitz eskertua. Gainera, taldean hagitz giro ona dugu».

Zahar etxeetara bisitak, ospitalean edo etxean konpainia, jubilotekako garraioa, eskolak, egoiliarrekin otorduak... «Indibidualismotik atera» eta borondatezko keinu horien beharra agerian utzi nahi izan du. Eta bidenabar, Elkarrizanera «hurbiltzeko» dei egin du: «konpromiso ttikia da, ez da aunitz kostatzen, eta holako ekintzek bertzeei mesede egiteaz gain, norberari ere on egiten diote».

«Bakarrik daudenentzat inportantea da norbaitek aditzen diela ikustea»

M^a JESUS MARIEZKURRENA ELIZALDE BOLUNTARIOA (LESAKA)

«Zahar etxe batean aritua naiz lanean, eta hango bakar-dadea ikusten nuen». Horregatik, eta «ni ere gustura sentitzen naizelako», hasi zen Maria Jesus Mariezkurrena Elizalde lesakarra Elkarrizanen bere aletxoan paratzen. Joan den urteko udan hasi zen, «jubilatatu nintzeanean», eta satisfazioa alde-bikoa dela dio: «egoiliarrei gustura sentitzen laguntzen diogu, eta ni ere gustura sentitzen naiz eurekin». Bere kasuan, alde batetik, «asteazkenean zahar etxera joan eta egoiliarrak paseatzera ateratzen ditugu, tarteka, herrian ikuskizunen bat baldin bada eta ateratzen ahal badira, harat ere eramaten ditugu». Eta bertzetik, «astean behin emakume bat erosketak egitera eramaten dut. Ibiltzeko ezintasunak ditu eta erosketak egitera eraman, erosketak kotxean sartzen lagundu, etxera eraman, elkarri kontuak kontatu...». Horren harira, «aunitz eskertzen duela» gaineratu du: «Bertzela, bertze norbaitek egin behar-kolikoe erosketak, eta ez luke erosketak berak nahi bezala egiteko askatasunik izanen». Bide batez, herritarrei begira jarri da eta «bertzeei denbora pixka bat eskaintzea hagitz ona» dela nabarmendu nahi izan du: «Denbora batean, bertzeei denbora dedikatzen genien, baina gaur egun ez dugu denborarik edo ez dugula erraten dugu, eta horrek bakardade handia sortzen du. Bakarrik daudenentzat hagitz inportantea da norbaitek aditzen diela ikustea».



M^a Jesus Mariezkurrena Elizalde.

«Egoiliarrak eskertzen dute musika jotzera eta kantatzera joatea»

JAIME ELGORRIAGA GAINZA BOLUNTARIOA (BERA)

Berako zahar etxera gitarrarekin kantatzera joateko gonbita egin ziotenean, baiezkoa eman zuen Jaime Elgorriaga Gainza beratarrak. Huraxe izan zen lehenbiziko pausoa, eta geroztik «zortzi-hamar urte» daramatza zahar etxeetako egoiliarrak bere doinuekin alaitzen. Beran hasi zen lehenbizi, «eta gaur egun, ortzegunero joaten gara. Gainera, hasieran ni bakarrik joaten nintzen, eta orain, hamar bat boluntario biltzen gara». Beranduxeago hasi zen Lesakako zahar etxean, dioenez, «pandemia baino pixka bat lehentxeago», eta «hamabortzean behin joaten gara. Lesakan ere beti norbait animatzen da». Aitortu duenez, «gustura» joaten da: «Haien garaiko kantak jotzen eta kantatzen ditugu eta ongi pasatzen dute». Egoiliarrek eskertzen dutela gaineratu du: «Txaloak jotzen dituzte eta kanpoan ikusten nautenean beti agurtzen naute». Pandemia aitzinetik «Beran, boluntarioak eta egoiliarrak denak nahasiak» izaten zirela eta «harreman politagoa eta hurbilagoa» izaten zela ere aipatu du, «orain distantziarekin urruti eta diferente da». Baina horren gainetik halako ekintza ttikien garrantzia nabarmendu du: «Batzuetan neke pixka bat sentitzen ahal duzu, baina boluntario joaten den jendea gustura joaten da eta beharrezkoa iruditzen zait. Nik 80 urte ditut eta egunen batean zahar etxera joatea tokatzen bazait, aski kontent egonen nintzateke norbait kantatzera joan balitz edo paseatzera aterako banindute».



Jaime Elgorriaga Gainza.

«Denok pixka bat eginen bagenu munduak hobeki funtzionatuko luke»

ALFONSO OBESO KOORDINATZAILEA ETA BOLUNTARIOA (LESAKA)

«Ezin duzu imajinatu zer ematen didan Elkarrizanek. Ikarrigarizko satisfazioa da bertzei laguntzea». Hitz horiek erabili ditu Alfonso Obeso Perez de Calleja lesakarrak. Bere aldetik eman zituen lehenbiziko pausoak, 2005ean, Lesakan Nagusilan sortuz. Bakarrik dauden adineko laguntzen dien boluntarioen taldea da Nagusilan, eta Obeso



Alfonso Obeso Perez de Calleja.

sok prentsan izan zuen horren berri: «Nagusilaneke ordezkari bati egindako elkarrizketa ikusi nuen, eta hurbiltzea pentsatu nuen. Segidan sartu nintzen, hasieran Iruñean eta gero nire aldetik Lesakan». Bakarrik hasi zen bidea ereiten, eta agudo hiru izatera pasatu ziren. 2012 aldera, berriz, Elkarrizanen jo zuen atea: «Beran boluntario gehiago ziren eta Nagusilaneke baja eman eta Elkarrizanen sartu nintzen. Gainera, batetik eta bertetik boluntarioak eskatzen ari ginen, eta ez zuen zentzurik. Eta nola diren kontuak. Gaur egun, Nagusilaneke bazkidetuak gara, eta Elkarrizan-Nagusilan gara».

Elkarrizaneke koordinatzailea da Obeso, baina horrez gain, Elkarrizanen bueltan «saltsa guzietako perrexila»: «Zahar etxeok paseatzera joaten naiz, kantatzera ere bai, ospitalera laguntzen diet... Posible dudan guzietan parte hartzen dut». Ongi sentitzen baita horrela: «Pertsona bati zenbat laguntzen ahal diozun ohartzen zarenean, bihotza irekitzen zaizu, ikaragarria da. Denok ditugu milaka saltsa, baina astean behin edo bi edo hiru egunetik behin bertzei tarte tiki bat dedikatzen ahal diegu. Ez da deus kostatzen».

Borondatezko «lan gehiena zahar etxeetan» egiten omen dute: «Ikusi egin behar da zer kontent jartzen diren, aunitz eskertzen dute». Baina etxeetan «laguntza behar duten aunitz» badirela gaineratu du, «jendeari kostatzen zaio etxeok atea irekitzea». Honela kontatu du: «Hiru urtez baserri batean adineko batekin egotera joaten nintzen, bere emazteak erosketak egiteko. Bizpahiru ordu pasatzen nituen. Pilotazalea zen eta egunkarian pilota kontuak irakurtzen nituen pilotaz solasatzeko. Baina batzuetan ez da solas aunitzik behar izaten».

Urte urte bertzei lagunduz egiten ari den bidean, momentu hunkigarriak gordeak ditu: Batetik, «bularreko ebakuntza egin zioten bati ospitalean egindako konpainia» aipatu du: «Hainbat boluntariok txandak egin genituen eta ospitaleetik atera arte, ez genuen bakarrik utzi. Gaur egun, ospitaleratuak daudenean ordu batzuk pasatzen ditugu, baina gauz etxera bueltatzen gara». Badu bertze momentu bat ere bihotzean iltzatua: «Ikaragarria da pertsona baten bakardadea noraino ailegatzen ahal den ikustea. Behin, pertsona baten ehorzketan, bederatz lagun bildu ginen, eta horietatik zortzi boluntarioak izan ginen». Hortaz, modu batera edo bertzerak, elkartasun keinuak egitera «animatu» du jendea: «Bertzei laguntzeko gehiago egiten ahal dugu; denok pixka bat gehiago eginen bagenu, munduak hobekiago funtzionatuko luke».

«Bakarrik dauden horiei goxotasun pixka bat ematea da kontua»

MAYTE SANZ GANBOA LEHENDAKARIA ETA BOLUNTARIOA (BERA)

Elkarrizan taldeko lehendakaria da Mayte Sanz Ganboa beratarra, eta ardurari erantzunez, paper tartean ibiltzea tokatzen zaio, bertzeak bertze, «boluntario bakoitzak zeregin bakoitzean pasatzen dituen orduak kontrolatzen eta taldeak antolatzen» aritzen baita. Baina horretaz aparte, borondatezko lan aunitz egiten duen horietako



Mayte Sanz Ganboa.

koa da: Berako zahar etxeok paseatzera ateratzen ditu, egoiliarrekin egiten dituzten ateraldietara eta otorduetara ere joaten da, etxeetara ere joan izan da laguntzera edo konpainia egitera... Eta egiten duena «gustura». Hori agerikoa da bere solasetan. «Duela zortzi urte» sartu zen Elkarrizanen eta taldeak «aunitz» ematen diola kontatu du: «Boluntarioen elkarteetan betiko esaldia izaten da ematen duzuna baino gehiago hartzen duzula bueltan. Baina horrela da, egia da». Jarduera horietan parte hartzea «laguntzeko modu polita» iruditzen zaio Sanzi: «Batzuekin solas eginen duzu, eta bertzeekin ez, zuri begira egonen dira edo ez, baina denaz enteratzen dira eta izugarri eskertzen dute. Haien irriek, haien begiradek... Mila hitzek baino gehiago balio dute. Halaxe eskertzen dute».

Etxeko laguntza

«Bakar-bakarrik, inor gabe, zegoen emakumearekin urte aunitzez pasatutako denbora» ere ez du atzenda, bihotzean darama: «Adinekoa zen eta ez zuen inor. Bere etxera joaten hasi nintzen, eta nahi zuenean, kanpora joaten ginen: inguruko herrietara, paseatzera... Hagitz ongi pasatu nuen berarekin, eta berak ere bai. Azkenera arte berarekin egon nintzen, eta hunkigarria izan zen». Emakume hark ez zuen etxeok atea zabaltzeko arazorik izan, baina «orokorrean, jendeak ez du etxeetara sartzea nahi», adierazi du Sanzek. «Etxeko atea zabaltzea falta zaio jendeari».

Urteotan guziotan Elkarrizanen ibilbideari egindako aitortzak ere oroitu nahi izan ditu Sanzek: «2018an Onda Cero irratiak elkartasun saria eman zion Elkarrizan taldeari, gizarte kohesioari eta inklusioari dagokion aipamen berezia. Horrez gain, Berako eta Lesakako bestetan txupinazoa botatzeko aukera eman izan digute». Eta bide horretan, «boluntario guzien lana» eskertu nahi izan du, «gure artean hagitz giro ona dugula eta bertze familia tiki bat garela» nabarmenduz. Jokin Apezetxea Bortziritako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko teknikariaren lana ere «txalotu» du, «lan handia egiten duelako». Eta elkarteetik kanpo dauden herritarrei begira jarri da, Elkarrizanen parte hartzera «animatzeko» adieraziz: «Jendeak zaila dela uste du, baina ez da hala. Bakarrik dauden horiei maitasun edo goxotasun pixka bat ematea da kontua, edo aditzea, ez da bertzerik».

«Herri ttikiak ere bizigarriak izan daitezke LGBTI kolektiboarentzat»

MARTXEL LARRAZA INDABURU GRADU BUKAERAKO LANAREKIN SARITUA

LGTBI+ komunitatearen sexilioari buruz egin duen *Xerka* lanarekin, Komunikazioko gradu bukaerako lanen Berria Saria irabazi du 24 urteko etxalartarrak

G. PIKABEA ETXALAR

LGTBI+ komunitatearen sexilioa hartu du hizpide Martxel Larraza Indaburuk (Etxalar, 2000) gradu amaierako bere lanean. Orientazio sexualagatik edo genero identitateagatik izandako zapalkuntzagatik herria uztera behartua izatea da sexilioa. Etxalarko gazteak halaxe osatu du *Xerka* fotokazetaritza lana edo argazki liburua, eta horrek eman dio Komunikazioko gradu amaierako lanen Berria Saria irabazteko bidea. Epaimahaia bere «lan aberatsa» nabarmendu du, baita lanaren «kalitate estetiko, elkarrizketatuekin erakutsitako sentsibilitatea, eta hizkuntza jasoa» ere. Larrazak saria ustekabean ailegatu zaiola onartu du, baina kontentsumatu dugu, eta «lana zabaltzeko gogoa piztu» zaiola onartu du. Ikus-entzunezkoen munduan dabil buru-belarri, eta telebistan lan egiten duela kontatu du, «kamera gibelego koordinazio lanetan». Ikus-entzunezkoen gain, «musika jotzea, bidaiatzea, lagunekin egotea edo mendira joatea» maite dituela aitortu du.

Ikus-entzunezko Komunikazioan eta Kazetaritzan graduatua zara. Zergatik aukeratu zenituen ikasketak horiek?

Betitik izan dut gustuko argazkiak ateratzea eta bideoak grabatzea, editatzea... Batxilergoan zalantza dezente izan nuen, baina azkenean Ikus-entzunezko Komunikazioa egitea

erabaki nuen, eta urtebete beranduago Kazetaritza ikasten hasi nintzen, aldi berean. **Gustuko ikasketak aukeratu zenituela erranen zenuke?**

Bai. Akaso unibertsitateko ikasketa planaren planteamenduari buelta bat emanen nioke, ikasgai batzuk aldatu, edo alde praktikoari garrantzia handiagoa eman... Baina bai, aunitz ikasi dut azken urteotan,

eta argi dut hau zela hartu behar nuen bidea.

Espero zenuen *Xerka* lana saritua izatea?

Ez, egia erran ez nuen espero, batez ere lanaren formatuarengatik. Argazki liburu bat izanik, ez nuen uste saria irabazteko hautagaien artean zenik.

Zergatik aukeratu duzu sexilioa gaia lan honetarako?



Martxel Larraza sari banaketa ekitaldian. UTZITAKO ARGAZKIA

«SEXILIOAREN ESPERIENTZIA UGARI IZAN DIRA GURE INGURUAN»

«DISKRIMINAZIOA HAGITZ PRESENTE DAGO ORAINDIK»

Itzaleko gai bat landu nahi nuen; hedabideetan hainbertze ikusten ez dugun auzi bat. Podcast batean aditu nuen lehenbiziko aldiz *sexilio* hitza, baina informazio bila hasi nintzenez ikusi nuen Euskal Herrian ez dela ia ikertu honen inguruan. Aldiz, inguruko jendearekin solastatuz, konturatu nintzen horrelako esperientzia ugari izan direla gure inguruan. Esperientzia horiek ikertu eta transmititu nahi izan nituen.

Euskal Herriko landa eremuko bortz lagunentzako argazkiak bildu dituzu. Lana azalduko zenuke?

Xerka testu eta argazki bilduma bat da, Euskal Herriko landa eremuko bortz lagunentzako argazkiak eta hausnarketak biltzen dituena, herri ttikiatara eta sexilio fenomenoaren inguruan. Fotokazetaritza liburu hau bortz kapitulutan banatua dago, eta horietako bakoitzean, testigantza bakoitzak hainbat gairen inguruan hausnartu eta bere bizipenak kontatzen ditu, lehenbiziko pertsonan: haurtzaroa, erreferenteak, armairua, diskriminazioa...

Eta izenburuarekin zer adierazi nahi izan duzu?

Xerkatzea bilatzea, arakatzea, esploratzea da. *Xerka* terminoarekin norbere buruaren aurkikuntza edo onarpen prozesuan agertzen diren sentsazio komunei erreferentzia egin nahi izan diet.

Nolakoa izan da lana osatzeko prozesua?

Lehenbizi, sexilioari buruzko dokumentazio lana egin nuen: liburuak irakurri nituen, hainbat elkarterekin harremanetan jarri nintzen: Naizen Adingabe Transexualen Familien Elkarte, Hiruki Larroxa Parekidetasun eta LGBT+ gaietan herri proiektu integralak garatzen dituen kooperatiba,, Loratuz Lotu Trans helduentzako elkartea... LGBTI+ aktibistei elkarrizketak egin nizkien... Ondotik, bortz testigantza

tza aukeratu nituen. Euren herrietara joan, elkar ezagutu, solasaldi luzeak egin eta argazkiak atera genituen. Azken lana testuak eta argazkiak editatzea, prestatzea eta liburua maketatzea izan zen. Baita memoria idaztea ere, lana osatzeko prozesu osoari buruz.

Irudiari ere garrantzia eman diozu. Nola landu duzu?

Lanaren erronkarik handienetako bat gaiari indar bisuala aurkitzea izan da, hau da, gaia nola irudikatu asmatzea. Erreferente aunitz aztertu ondoren, paisaia eta erretratua, argazkilaritzako bi genero klasiko, uztartzea erabaki nuen, testigantza bakoitzak bere ingurunearekin, hau da, herriarekin, duen harremana irudikatzen saiatzeko. Horretarako zenbait teknika erabili ditut: esposizio luzeak, fokuratzea eta desfokuratzea, kolore tonuak, testurak, islak... Emaiztasun harago, prozesua bera ere hagitz ederra izan da. Erranen nuke parte hartu duten testigantzak hagitz eroso sentitu direla proiektuarekin, eta hori ere bazen helburu nagusietako bat, dudarik gabe.

Zer kontatuko zeniguke protagonistei buruz?

Protagonistak Iker, Itziar, Markel, Dom eta Harriet dira, Nafarroako, Nafarroa Behereko, Gipuzkoako eta Arabako hainbat herritako LGTBI+ kolektiboko pertsonak. Hainbat belaunalditako jendea da, 19 eta 58 urte bitartekoa. Lurralde-tasunaz eta adinaz gain, ezinbertzekoa zen komunitateko identitate guzieren aniztasuna ere adieraztea: gayak, lesbiana, bisexualak, transak, ez-bitarrak... Lagin tikiak, baina askotarikoak da.

Testigantzen artean bada bereziki gogoan gelditu zaizun bakarre bat?

Testigantzetako batek kontatzen du 16 urterekin, lesbiana izatea zer zen ez zekienez, neska bat musukatu zuela. Euskal Herrian ezin izanen zela libre bizi pentsatuta, hainbat urtez kanpoan bizi izan



Ikus-entzunezko Komunikazioan eta Kazetaritzan graduatua da Larraza. Gaur egun, telebistan lan egiten du.

zen. Hamar urte beranduago, herrira bueltatzeko beharra sumatu zuenean, garai hartako neska berberarekin maitemindu zen eta herrian ezkondu ziren.

Landa eremuan sexilioa errealtatea dela erran izan da aunitzetan, ez direla gutti herria uzten duten LGTBI+ komunitateko ki-deak. Zer erranen zenuke horren inguruan?

Hala da, bai. Hirietan ez bezala, herri tikietan zaila da oraindik komunitate bat sortzea edo norbere identitatea arrunt libre bizitzea. Gero eta toleranteagoak garela uste dugu, edo hori erraten dugu bederen, baina fisikoki ez bada ere, diskriminazioa hagitz presente dago oraindik. He-

rrietan, biolentziarik ohikoa na sinbolikoa da: irainak, begiradak, zurrumurrak... Eta ez dugu urruti joan beharrik hori ikusteko; azken urtebetean hiru eraso LGTBIfo bo salatu dituzte Baztanen: Arraiozko bestetan, Erratzun eta azkena Arizkun Rocken. Egoera horien aurkako ihesbide bat, aunitzentzat, sexilietatea da: sexu orientazioarengatik edo genero identitatearengatik jasandako zapalkuntzarengatik hiriguneetara migratzea.

Zer mezu zabalduko zenuke?

Lana irakurtzeko jendearen interesak argi utzi dit oraindik ere hagitz beharrezkoa dela gisa honetako erreferenteak ikusaraztea. Lekukotza batzuk

gogorak dira, baina transmititu nahi izan dudana mezua positiboa da: Euskal Herriko herri tikiak ere bizigarriak izan daitezke LGTBI+ komunitatearentzat. Sexilioa bizitzeko modu aunitz daudela, norberak bere bidea egiten duela eta aukera guztiak direla onargarriak adierazi nahi izan dut.

Saria irabazteak halako lan gehi-ago egiteko gogo sortu dizu?

Sariaren harira, azken aldiaren jende aunitzek erran dit lana ikusteko gogo duela. Horrek lan honi hedapena emateko gogo handia piztu dit, baita proiektu berriak hasteko ere. Oraindik ez dakit zer formatutan: liburua inprimatu eta argitaratuta, erakusketa bat eginez, dokumentala grabatuz... Baina gustatuko litzaidake honi segida ematea.

Etorkizunera begira zein asmo dituzu?

Zinema, izan fikzioan edo izan dokumentalgintzan, probatzea izugarri gustatuko litzaidake.

**«PROIEKTUARI
SEGIDA EMATEA
GUSTATUKO
LITZAIDAKE»**

**«SEXILIOA
BIZITZEKO
MODU AUNITZ
DAUDE»**



Berako erraldoiak iazko bestetan dantzari. UTZITAKOA

Erraldoien topaketa egingen dute abuztuaren 31n

Goizean, konpartsa denek karrikabuelta eta emanaldia egingen dute, eta ondotik, bazkaria izanen dute

A. LARRETKEA

Bigarrenez erraldoien topagunea izanen da Bera abuztuaren 31n. Berako Erraldoien Konpartsak topaketa antolatu du eta bertako erraldoiez gain bertze hainbat herrikakoak ikusteko aukera ere izanen da.

Egitarauari dagokionez, goizean harrera egingen diete frontoian kanpoko erraldoien konpartsei eta gosaria izanen dute denek betara.

Ondotik, karrikabuelta egingen dute herrian barna. Eztegaran hasita, lehenik Iturlandetara joanen dira, eta berriz ere, Eztegarara bueltatuta, Altzate

aldean ibiliko dira. Altzateko plazan emanaldia egingen dute erraldoiek eta ondotik, kiroldegi aitzineko aldera joanen dira berriz ere musikariek lagunduta. Bertan, bertze emanaldi bat egingen dute eta eguna borobiltzeko otordua izanen dute.

Berako erraldoiez gain bertze herri hauetako taldeak ere izanen dira: Miranda de Ebro, Elizondo, Irurita, Oronoz-Mugairi, Doneztebe, Lesaka, Etxalar, Barañain, Amasa-Villabona eta Ibarra. Lerro hauek idazterakoan, Sarako konpartsa denek parte hartzea zalantzan zen.

Sarako Kontrabandisten Egunean parte hartze berezia izanen dute beratarrek

TTIPI-TTAPA

Abuztuaren 25ean egingen dute Saran Kontrabandisten Eguna. Hainbat aldaketa izanen dira aurtengo egitarauan, tartean, bi herri izanen dira gonbidatuak, horien artean Bera.

Gonbidatuak izaki, parte hartze berezia izanen dute

eguneko ekitaldietan. Goizean egingen duten ekoizleen merkatuan Berako ekoizleak izanen dira, eta baita herriko bertso-lariak ere. Horrez gain, arratsaldeko gaztetxoaren pilota partiduetan ere ariko dira herrietarrak, eta baita iluntzeko lasterketetan ere.

Bortzirietako Lasterketa Herrikoien Kopa antolatu du lehenengoz Manttalek

A. LARRETKEA

Eskualdean antolatzen diren lasterketetan parte hartzea sustatu nahi du Manttalek eta horretarako Bortzirietako Lasterketa Herrikoien Kopa antolatu dute lehenengoz. Alkaia Trail, Berako Gau Krosa, Agerrako Krosa eta Lizuniagako Igoera izanen dira kopako lasterketak. Uztailaren 20an egitekoa zuten Alkaia-gako probarekin hasi zen kopa.

Kopak banakako sailkapen orokorra izanen du eta proba bakoitzaren bukaeran eta parte hartzaile bakoitzari puntuak



Lizuniagako Igoera izanen da azkena.

gehituko zaizkio sailkapen horretan. Horrez gain, kuadrillen sailkapena ere egonen da. Kuadrilla horiek gizonen-koenak, emakumezkoenak eta mistoak izan daitezke.

Eskolako bigarren solairuko komunak berrituko dituzte udan

A. LARRETKEA

Berako Udalak aurturaren erdian konponketa lanak egingen ditu uda sasoiaren Ricardo Baroja Eskolan. Duela bi urte lehiak aldatu zituzten, iaz lehen solairuko komunak berritzeko lanak egin zituzten, eta aurtur, aldiz, bigarren solairuko komunak berrituko dituzte.

Lanak heldu den egunetan hasi eta asmoa, irailerako, ikasturte hasierarako, bukatuta egotea izanen da ikasleek erabilgarri izan ditzaten.

Lanen bidez komunak garai berrietara egokituak izanen

dira. Izan ere, eskola 70. hamarkadan eraiki zuten, eta komunak zein bertzelako instalazio batzuk zaharkituak gelditu dira. Lanak bukatzean komunak irisgarriak izanen dira pertsona guztientzako eta generoari dagokionez, generorik gabeko komunak izanen baitira, mistoak, alegia.

Lanak dagoeneko esleitu dituzte eta Arrixko Igeltseritza enpresak egingen ditu. BEZa kontuan hartu gabe, ia 81.000 euroko kostua izanen dute komunak eraberritzeko lanak.

WhatsApp icon
744 484 361
ttipi-ttapa

Arduo
arropa-denda
etxeko osagarriak | lenteria
Altzate, 30 BERA T. 948 630 136

3Hiru Home
Salgai dauden pisuak bilatzen ditugu
Pisuaren balorazioa doan eta konpromisorik gabe
943 930 025 | Prudencia Arbide, 2 • 20304 IRUN | www.3hiruhome.com



Hainbat txikizio egin dituzte frontoia konpontzeko lanetan ari zirela. UTZITAKOA

Eztegara frontoian egindako txikizioak salatu ditu udalak

Eztegarako kalteez gain, udalak salatu du zuhaitzak moztuak agertu direla eta lorategietan suntsiketak egin dituztela

TTIPI-TTAPA

Uztailaren 7an Eztegara frontoian egiten ari diren lanetan egindako kalteak salatu ditu udalak: «baloi markak, bizikleta gurpilen markak paretetan, margotu eta idortu gabeak ziren zolako marrakzanpatuak, pintoreen eta igeltseroen laneko materiala dagoen espazio itxian txikizioak, pintura, disolbatzaileak eta antzekoak nonahi zabalduak, tresnak eta erremintak kultur etxeko aparkalekuan barna, erremintaren bat ebatsia...». Azken txikizioak «egun seinatua» pasatu direla ere adierazi du, Berak Nafarroako Herriarteko Pilota Txapelketako finala Labriten jokatu zuen egun berean.

Azken asteotan «espazio publikoetan bertze txikizio batzuk» izan direla ere gaineratu du Berako Udalak: «zuhaitz moztaketak, haur parkeetako lorategietan suntsiketak...». Udalak «irmoki salatu» nahi izan ditu gertakariak: «Gutxi batzuen jarrera desegoki hauek gaitzesen segituko dugu». Horrekin batera laguntza eskatu du udalak: «egun eta ordu horietan pilotalekutik sartu-aterian




Markak pintatutako paretetan.

norbait ikusi baduzue pilota eskolako edo udaleko ardura-dunekin harremanetan jarri».

Eztegarako konponketak «ilusio handiz» egiten ari dela aitortu du udalak. Oharrean, pilota eskola egiten ari den lan «eredugarria» aipatu du, «gurasoak buru-belarri lanean, ia ehun haur pilotan, elkartasun eta herrigintza baloreak ikasiz bide batez». Frontoiko ostatua «auzolanean hornitu» izana ere txalotu du, eta gaineratu du «teilatua moldatzen» ari direla: «Horrek guztiak esfortzu ekonomiko bat suposatzen du, herritar guztiok ordaintzen ditugu lan hauek, eta zer eta bertze batzuek erakitakoa hautsi bertzerik ez dute buruan».

Nerea Sorondo hirugarrenez txapeldun

Nerea Sorondok hirugarrenez irabazi du Nafarroako Aizkora Txapelketa. Iruñeko sanferminetan jokatu zuten eta Sorondo aise nagusitu zen bigarren sailkatuari sei minutuko aldea aterata. Bi oineko eta 45 ontzako hiru enbor mozteko 12 minutu eta 11 segundo eman zituen Sorondok. Zorionak!



UTZITAKOA



UTZITAKOA

Mugarik Gabe jaialdia arrakastatsua

Bigarrenez zirkua izan da protagonista Beran. Mugarik Gabe jaialdiaren bigarren aldia egin zuten uztailaren 12an, eta jende aunitz bildu zen Herriko Etxeko plazara. Lehenik akrobazia eta clown ikastaroak egin zituzten, ondotik akrobazia erakustaldia eta *A tope!* ikuskizuna.

Lanen ondorioz Kanttonberri karrika auto guztientzako itxiko dute

A. LARRETXEA

Kanttonberriko ingurua eraberritzeko lanean ari da Berako Udala azken hilabeteetan. Lanak martxa onean doazela jakinarazi du udalak, eta hasi berri duten fasean, Kanttonberri karrika osorik itxiko dutela.

Hemendik aitzinera, eta lanek irauten duten bitartean, erosketak egiteko herritarrentzako erreserbatuak dauden plazak Toki Ona aparkalekuan egonen dira, Miljar ostatuaren parean. Erabiltzaileek ez dute ordu diskorik erabili beharko.

LESAKA

13 bisita gidatu eskainiko ditu udalak uda honetan

laz bezala, bi *free tour* mota egingen dituzte: 'Lesaka: gure kulturaren sorterrria' eta 'Lesaka: pelikulen eszenatokia'

AITOR AROTZENA

Turismoa dinamizatzen segitzeko helburuarekin, uda honetan ere bisita gidatuak eskainiko dizkie udalak herritarrei eta kanpotik datozen turistei: *Lesaka: gure kulturaren sorterrria* eta *Lesaka: pelikulen eszenatokia*. Hauek *free tour* moduan egingen dituzte, hau da, prezioa bisitariaren esku geldituko da. Euskaraz eta gaztelaniaz egiteko aukera emanen da, Harriondoa Kultur Etxean dagoen turismo bulegotik aterako dira eta plaza erreserbatzea gomendatzen da (662 64 81 81 whatsapp bitartez / teknikaria1@lesaka.eus). Datak eta ordutegia: Lesakako Udalaren webgunean edo erran.eus. Bisita hauek eta bertze bortsz ibilbide modu autonomoan ere egin daitezke TopRutas aplikazioarekin.



Rotetaren akuarela lan bat.

Paco Pozo eta Pello Rotetaren akuarelak ikusgai komentuan
Paco Pozo Díaz eta Pello Roteta Sagarrazu margolarien akuarela lanak ikusgai izanen dituzte uztailearen 23tik abuztuaren 29ra Harriondoa kultur etxeko komentuan. Asteartetik ortzirralera 10:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 18:30era eta larunbat eta igandetan 10:00etatik 14:00etara zabalik izanen dira komentuko atea. Astelehenetan itxita.



ALICIA DEL CASTILLO/AITOR AROTZENA

Giro ederra izan da sanferminetan

50 urte bete dituen Tantirumairu ikastolaren izenean Lupe Muxikak piztutako txupinazoarekin hasi (batzuk aitzineko egunetik ere), egun handiko *Zubigainekoa* eta peñen egunatik pasa eta Puro Relajoren emanaldira eta *Gaixoa Ni* kantatu bitarte, giro bikaina izan da herriko bestetan.



IRANTZU PASTOR

Jendetza eraso matxisten kontra

Besten aitzinetik eta sanferminetan izandako eraso matxisten kontra protestatzeko elkarretaratze jendetsua egin zen uztailearen 10ean Xulufriak eta Marrako talde feministek deituta eta, gau berean, hirugarren gizonezko bat ere atxilotu zuen foruzaingoak, bikotekide ohia jazartzeagatik.

XAGU
LIBURUDENDA
Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- PAKETEAK JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBUK EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGOKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

«Zegama-Aizkorri noizbait egitea gustatuko litzaidake»

AIMAR OTXOTeko LARRARTE LESAKAKO MENDI KORRIKALARIA

Berriki arte futbolearen aritua, joan den urtean erabaki zuen Otxotekok baloia utzi eta buru-belarri mendi lasterketetan hastea. Emaizak ikusita, ez dirudi erabaki txarra izan zenik

AITOR AROTZENA LESAKA

Mendi lasterketetan bere bidea egiten ari da Aimar Otxoteko Larrarte (Lesaka, 2000ko irailaren 12a). Bi aldiz hirugarren izan da Etxarriko Triku Trail lasterketan, eta Lesakako mendi lasterketa eta Oiartzungo Intxixu Trail irabazi ditu aurren.

Mendi lasterketetan hasi baino lehen, ttikitari pilotari eta gero futbolearen ere aritu zara...

Ttikitari pilotari eta futbolearen aritzen nintzen. Gero futbolearen bakarrik, Beti Gazten, eta junior mailako hiru urtetan Donostiako Antiguoko taldean aritu nintzen. Beti Gaztera bueltatu eta futbolearen gehien disfrutatu dudako urteak etorri ziren: hirugarren mailara igotzea lortu genuen herriko taldearekin, historian lehen aldiz, hirugarren mailan jokatu... hagitik polita izan zen eta betirako hori galdutako dena.

Baina 2022-23 denboraldia bukatutakoan mendi lasterketara pasatzea erabaki zenuen...

Futbolarekin batera ibiltzen nintzen mendi lasterketetan, tarteka, udan, asteburuetan ahal nuenean... Lanarekin ere gero eta guttiago entrenatzen ahal nuen futbolearen eta lasterketa egiteak gehiago tiratzen ninduen. Bi kirolak batera egitea zail da, lanean ere turnoka aritzen naiz, eta duela urtebete utzi nuen futbola.

Mendian lasterka ibiltzeko afizioa aspalditik heldu zaizu?

Aita eta osabak ere ibiltzen ziren eta haiei ikusita hasi



Aimar Otxoteko Lesakako mendi lasterketan. Probako errekorra egin zuen.

nintzen aitarekin mendira joaten, eta gustatu zitzaidan.

Mendi lasterketetan hasi berria, baina hasiera-hasieratik onenen artean, iaz hirugarren Triku Trailen eta lehena Goizutrailen ibilbide laburrean, aurren garaile Lesakako mendi lasterketan eta Intxixu Trailen... Espero zenuen maila horretan ibiltzea?

Egia erran, ez Lesakan ezta Oiartzunen irabaztea ere ez nuen inondik ere espero. Etxarri lehen aldiz hirugarren egin nuenean ere, 2022an, oraindik futbolearen ari nintzela, ez nuen espero. Ustekabe handiena hura izan zen, seguruenik.

8-10 kilometrokoetatik hasi eta 100 km edo gehiagoko ultratrailak bitarte, distantzia ugari

lasterketak daude... Zeinetan moldatzen zara hobekiago?

Orain arte gehien bat maratoi erdietan ibili naiz. Lesakakoa eta Oiartzungoa laburxeagoak dira eta horietan emaitza onak atera zaizkit. Pixko bat luze-xeagoak ere egin ditut, eta eginen ditut gerora, baina Ultratrail gisako horiek errespetu handia sortzen didate. Hagitik luzeak ikusten ditut, hainbat ordu aguantatzeko, bai buruak, bai hankek... hagitik

«2022KO TRIKU TRAILEN 3. EGITEA USTEKABE HANDIA IZAN ZEN»

gogorra iruditzen zait, entrenamendu aunitz behar da.

Lana eta kirola uztartzea ez da erraza izanen...

Saveran ari naiz turnoka, baina denbora badut entrenatzeko. Astean lau aldiz lasterka egitera ateratzen naiz eta bertze egun pare bat bizikletaz. Orain arte nire gisan ibili naiz, baina orain dela hilabete pare bat hasi naiz prestatzaile batekin, Javi Cardonarekin. Orain arte lasterka egitera ateratzen nintzen, bertzerik gabe, proba egin eta bale! Orain nola entrenatu eta zer egin gehiago badakit...

Elikadura bereziki zaindu behar izaten duzu?

Bai bai... Lehengo urte bukaeran lasterketa batzutan gaizki bukatzen nuen. Ongi hasten nintzen baina indarririk gabe bukatzen nuen, ez nekatua, baina ezin nuen korrika egin. Medikuekin egon eta beraien ustez janariaren kontua zela zioten. Orduan hasi nintzen nutrizionista batekin, berak gidatzen nau eta hagitik gustura.

Aurren baduzu bertze lasterketaren bat begibistan? Zein lasterketan ateratzea gustatuko litzazuke?

Etxarriko Triku Trailen ondok bi hilabeteko atseden hartu dut, uztaile eta abuztua. Azkainen irailaren 21ean eginen den Sky Run lasterketak azken urtea du aurren eta gustatuko litzaidake egitea. Horretarako guttieneko denbora egin nuen Etxarri, baina ea dortsala egokitzen zaidan zozketan. Joan den urtean egin nuen lasterketa hau, baina gaizki ibili nintzen, bajoi handiena eman zidan karrera izan zen. Zegama-Aizkorri egitea ere gustatuko litzaidake, ikustera joan izan naiz, eta parte hartzeko gogo handia sortzen zaizu. Giro izugarria izaten da eta beti egin nahiko zenukeen karrera da. Aurren zozketan parte hartu nuen, baina ez zitzaidan egokitu, ez zen suertetik izan.

Elkarrizketa osoa: erran.eus

Turismo bulegoak udako ordutegi zabala eskaintzen du

Bisita gidatuak ere eskaintzen dituzte eta, bertetik, gaueko kontrabando ibilaldiak ere eskaintzen ditu Xanti Elizagoienek

IRUNE ELIZAGOIEN

Turismo bulegoaren udako sasoa martxan da. Urte zehar kultur etxean Turismo Bulego zerbitzua eskaintzen den arren, udan ordutegia zabaltzen da eta udalak bertze pertsona bat kontratatzen du. Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra aste tartez 10:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 19:00etara dago zabalik (astelehen arratsaldetan itxita). Asteburuetan beriz 10:00etatik 13:00etara. Taldea osatuz gero, bisita gidatuak ere eskainiko dira. Honekin batera gogorarazi, Pello Ape-

zetxea Kulturgunea udako ordutegira pasatu dela (10:00etatik 13:30era).

Kontrabando ibilaldiak gauz Xanti Elizagoienek gaueko kontrabando ibilaldiak ere eskainiko ditu. Uztail eta abuztuko larunbatetan dago ibilaldia egiteko aukera. 21:00etan abiatuko dira plazatik eta 3 ordu inguru irauten du itzuliak (8 km). Gutenez 4 laguneko taldea osatu behar da eta 10 euroko prezioa du pertsonako. Linterna eta mendiko botak eraman behar dira.

Igeriketa ikastaroa uztailaren 29tik abuztuaren 9ra

Bertze urte batez igeriketa ikastaroa eskainiko dute udal igerilekuan. Uztailaren 29tik abuztuaren 9ra, 4-6 urte bitarteko haurrek (10:15-11:00etara) eta 7-11 urte bitartekoek (09:30-10:15era) izanen dute igerian ikasteko aukera. 30 euro balio du hamabostaldiak.

Landagain eskolako pista moldatzen hasiak dira

Etxalarko Udalak, Xabier Etxarte Mikelestorena alkateak uztailaren 12an sinatutako bando baten bidez jakinarazi duenez, uztailaren 15etik aitzinera ezin izanen da Landagain eskolako pista sartu, moldaketa lanak egiten ari beharrak direlako.

Pilota finala ikusi eta pilotariekin argazkiak atera

Uztailaren 14an Etxalarko pilotari eta beren familiako 12 lagun joan ziren Iruñeko sanferminetara, finala ikustera. Partida gogorraz gozatu ondotik, pilotariekin argazkiak atera zituzten (hemen Altunarekin).



NEREA MITXELTORENA



AINITZA OIHAN BARATZA

Ainitza oihan baratzerara bisita

Uztailaren 14an, Etxalarko Goiko landa auzoko Ainitza oihan baratza ezagutzeko bisita gidatua antolatu zuten. Zentzumenen eta gustu esperientzia landu eta landareen musikaz gozatzear gain, galdera-erantzunentzat tartea ere hartu zuten.



IRATI URANGA

Hogei haur baino gehiago udalekuetan

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak antolatuta, uztailaren 1etik 26ra, Irati Uranga eta Unax Etxartek gidatuta, udaleku irekiak egin dituzte. Hogei haur baino gehiago izan dira bertan eta ur jokoak, ginkanak, oka erraldoia, errezetak, irteerak eta bertze hainbat ekinga egin dituzte.

ELUTSA

EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENUAK

PINTXOAK - BOKATAK RAZIOAK

Anduetzeta, 13 - ETXALAR

T. 948 635 191



Herriko kirolariak Iruñeko sanferminetako saioan. UTZITAKOIA

Herri kirolean gogotsu dabilta herriko gaztetxoak

Iruñean jokaturako kadete mailako Nafarroako arpana txapelketan bigarren izan dira Mattin Eugi eta Danel Urtxegi

ANA ETA ITZIAR

Herriko kirolari gazteak udan ere lanean jarraitzen dute. Iruñeko sanferminetan, kimu eta haur mailakoek proba konbinatuan maila ederra erakutsi zuten. Arpanari dagokionean, Mattin Eugi Mendizabal eta Danel Urtxegi Urria bigarren izan ziren kadete mailako Nafarroako arpana txapelketan.



Urtxegi eta Eugi lanean.

Herriz herri txapelketa

Bertzalde, 21 urtetik beheitiko herriko gazteak ere Basaburuia eta Arantzakoekin batera sortu berria den Basaraiga taldean parte hartuko dute Nafarroa-

ko Herriz Herriko txapelketan, proba konbinatuan. Jardunaldiak Elizondon (uztailaren 27an), Antsoainen (abuztuaren 10ean) eta Burlatan (abuztuaren 18an) izanen dira.

Bestetako programaren azal lehiaketara lanak aurkezteko hondarreko egunak

Sanmigeletako esku-programaren azala aukeratzeko lehiaketa antolatu du aurtengoan ere udalak, herrian sortu edo bertan bizi direnei zuzendua. Lanak abuztuaren 9ra bitarte aurkez daitezke. Marraskiz edo argazkiz eginak aurkezten ahal dira lanak, 27x19 cm-ko

neurriarekin. Derrigorrez, *Igantzi. Sanmigelak 2024* testua agertu beharko da. Saritutako azalaren egileak 150 euroko saria irabaziko du. Saritutako lana udalaren esku geldituko da eta bertzeak itzuliko dira, baina programan argitaratu ahal izanen dira.

Denboraldi bukaerako afari-merienda egin dute jubilotekako kideek

Ikasturte osoan herriko nagusienak Jubilotekan asteazkenero elkartu dira eta uztailaren 24an eginen dute denboraldiko despedida, afari-meriendaekin, buruilean berriz ere martxan jartzeko intentzioarekin. Hemendik gonbidapena luzatu nahi dute orain arte

joan ez direnei atea zabalik dituztela jakinarazteko. Ludoteka saioak akabatu arren, ez dira ez geldirik egonen, buruilean Iean Bizkaira eginen baitute txangoa: Alonsotegiko txakolin ferriara joanen dira eta ondotik Portugaleteko zubia ikusiko dute.



UTZITAKOIA

Iñaki Gonzalez garaile Oviedon

Sanferminetako asteburuan dena ez zen besta izan. Irrisarrin egoitza duen Baxi Basajauna taldeko kirolariak Oviedon jokaturako disc golf irekiaren laugarren edizioan parte hartu zuten. Iñaki Gonzalez Olaizola garaile izan zen beteranoen M50 kategorian eta Antonio Negrere laugarren.

OLA SAGARDOTEGIKO XXIII. PILOTA TXAPELKETA

Abuztuaren 8tik 25era

HERRI PARTEHARTZAILEAK:
BAZTAN, BARAÑAIN, LEZO,
ETXALAR, LESAKA, IRUN,
HONDARRIBIA, OIARTZUN,
LEITZA, HERNANI, IRUÑA,
ERRETERIA, LEKUNBERRI

Meaka auzoa 102
IRUN 943 623 130

INFORMAZIO GEHIAGO:
olasagardotegia.eus

Abuztu musikatua izanen dute Aterpean

Abuztuaren 31n Esne Beltza eta Alai DJa ariko dira eta hala borobilduko dute udako kontzertu zikloa

NEREA ALZURI

Zuzeneko kontzertuak gozatzeko aukera izanen da aurten ere Aterpean, abuztuko larunbatetan, musikari eta talde entzutetsuek euren emanaldiak egingen baitituzte.

Abuztuaren 3an, Bull jaia 50 urte izanen da. Eguerdia txarangak girotuko du eta 17:00etan La Jodedera, Sakamantekas, Mexikortxo eta Kittu taldeen kontzertuak izanen dira. Abuztuaren 10ean, Petti eta Xabaltx musikagileen emanaldia izanen da, 19:30ean. Abuztuaren 17an, 19:30ean, Makala eta lagunak etorriko dira bertze urte batez eta hilaren 24an Gailu ariko da zuzenean, 19:30ean.

Kontzertu sortari akabaila emateko, abuztuaren 31n, Esne Beltzak, bere agurrerako biran, herrian geldialdia egingen du, Alai DJarekin batera. Bide batez,



Ibanek etxean joko du abuztuaren 31n.

Iban Zugarramurdik, taldeko batera jotzaileak, etxekoekin eta herrikideekin partekatuko dituen taldearen hondarreko urteko bizipenak. Kontzertua 19:30ean hasiko da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Udalekuen azken egunak

Udalekuen lehenbiziko egunetan hartutako argazkia da irudian ageri dena. Ia lau aste pasatu dira geroztik, eta dagoeneko azken egunetan sartuak dira. Ortzirale hau izanen dute hondarreko eguna. Ane, Marta eta Nahia begiraleekin 29 haur ibili dira eta aski tarte atseginak pasatzeko aukera izan dute.

Zakurrak mendian lotuta ibili behar direla oroitarazi du berriz udalak

N. ALZURI

Aitzineko aldizkarian aipatu bezala, udalak bando bidez, zakurrak mendian lotuta ibiltzeko deia zabaldu zuen. Udalaren hitzetan, «mendian azien dak libre ibiltzen direnez, jabeei zakurrak mendian lotuta ibiltzeko» eskatu zitzaie, gisa honetara, «bertze animaliei, pertsonei edo inguruneari egiten ahal dizkieten kalteak saihesteko». Itxura denez, bandoak ez du eraginik izan, eta «arazoak berdin segitzen duela ikusita, kontzientziario kanpaina» bat hasiko du, «zakurrak ezin dire-



Ardiak mendian.

la libre ibili jakinarazteko». Araua betetzen ez bada, «isunak paratzera behartuak» izanen direla ere jakinarazi du udalak. «Elkarbizitzarako neurria dela ulertzeko» eskatu du.

Ekaitza Elkarteko zuzendaritza batzordea berri dute

N. ALZURI

Bi urteren ondotik Ekaitza Elkarteko zuzendaritza batzordea berri dute. Jose Jabier Mitxelena, Gregorio Mitxelena, Sonia Iturria, Aitor Telletxea, Josu Laretxea, Mentxu Pena, Ainhoa Alzuri, eta Belen Mutuberriak zuzendaritza utzi dute. Eta


bazkideen botoak bilduta, hauek izanen dira ondoko bi urteetan batzordekideak: Nekane Maia, Eneko Sarrias, Imanol Lukanbio, Gurutze Pikabea, Isabel Danboriena, Mirari Maiz, Maittere Pagola, Eli Iturria, Xabi Alzuri, Lucia Iparragirre eta Beatriz Taberna.



G. PIKABEA

Bestetako programarako marrazkiak

Abiadura ederrean doaz asteak eta ustekabeen bestak ere ailegatuko zaizkigu. Egitarauaren azala nahiz kontrazala aukeratzeko lehiaketa ere egin du udalak; herriko eskolatik 55 lan aurkeztu dituzte eta Ainere Iguzkiagirre Irigoien eta Beñat Ibarra Bereauren marrazkiak aukeratu ditu epaimahaia.



Arcelor Mittalera doan errepidea baliatuko du saihesbideak.

Lesakako saihesbidea 450.000 euroan lizitatu dute

Espainiako Gobernuak finantzatu du eta herriguneko trafikoa deskargatzea eta eremuaren garapena erraztea ahalbidetuko du

TTIPI-TTAPA LESAKA

Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako Departamentuak, Herri Lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, 450.000 euroan lizitatu du Lesakako saihesbidea eraikitzeko proiektua. Gaur egun, N-121A errepidea Oiarzunekin lotzen duen NA-4000 zeharbidearen zati bat herriko erdigune historikotik igarotzen da, eta horrek bide-segurtasuna arriskuan jartzen du, ibilgailu astun batzuen zirkulazioa eragozten du eta inguruaren garapena kaltetzen du. Jarduera hori Espainiako Gobernuak Garraio eta Mugikortasun Iraunkorreko Ministerioak finantzatu du, eta udalerriko hiriguneko trafikoa deskargatzea eta eremuaren garapena erraztea ahalbidetuko du.

Zeharbideak arautzen dituen araudiak eta Lesakako morfologiak eta konfigurazioak eragiten du, batetik, espaloirik ez izatea herriko interesguneetara ailegatzeko, eta, bertetik, 12 metro baino gehiagoko luzera duten ibilgailu astunek ezin izatea inguruan

ibili. Herriaren hazkundera dagokionez, Baztan-Bidasoaldeko motor ekonomikoetako bat da Lesaka, eta Lapurdiko mugatik, Donostiatik eta Iruñetik hurbil egoteak, nazioarteko hainbat enpresa dituzten bi poligonoren garapena eragin du. Herrigunea gurutzatu gabe poligono horretara sartzeko ezintasuna da garapen ekonomiko eta urbanistiko horrekin jarraitzeko bertze eragozpenetako bat.

Mugikortasun plana bukatzeko aukera

Saihesbideari esker, herrigunean gaur egun bultzatzen ari den mugikortasun plana bukatu ahal izanen da. Horretarako, oztopo arkitektonikoak kendu, espaloiak eta galtzada berdindu eta batez ere oinezkoentzat eta bizikletentzat pentsatutako guneak sortuko dituzte.

Saihesbidearen irtenbidea, funtsean, ArcelorMittal enpresara doan NA-4001 errepideari jarraipena ematea izanen da, Agiña eta Oiarzun aldera doan NA-4000 errepidearekin berriro bat egin arte.

Uda sasoian ohi baino langile gutiago dira Bortzirietako mediku kontsultategietan

TTIPI-TTAPA BORTZIRIAK

Lesakako Osasun Etxeak jakinarazi duenez, uda sasoian ordezkapenak egiteko langilerik ez da egonen Bortzirietako kontsultategietan. «Urtean zehar izan ditugun lanpostu hutsen eta bajen egoera larriari, langileen merezitako oporrak gehitu behar zaizkie», ohar batean adierazi dutenez.

Jakinarazi dutenez, bertze leku batzuetan ez bezala, kontsultategiak irekita mantentzen saiatuko dira, baina langile gutxiagorekin. Hala ere, ohar-tarazi dute egun batzuetan itxi daitekeela kontsultategiren bat.

«Langilerik ez dagoela konpontzeko, hainbat neurri hartu ditugu herritarren osasun arazoei erantzun ahal izateko –dio oharrak–. Neurri horiek osasun langileengan eta biz-

tanlerian eragina izanen dute, eta hori dela eta, pazientzia eta ulermena eskatzen diegu herritarrei»

Goizeko ordutegian kontsultak beti bezala egingen dira ezarritako telefonoetan, eta administrazioko langileak izanen dira *triajea* egin eta lehen kontsultei lehenatasuna emanen dietenak. Asteazken zehar 15:20etik hurrengo eguneko 08:00etara, eta asteburu eta jaiegunetan 112 telefonoaren bidez bideratuko dituzte larrialdiak Lesakan.

Erizain zerbitzua

Horrez gain, Lesakako Osasun Etxetik oroitarazi dute aholkuak emateko erizain zerbitzua ere izanen dela astelehenetik igandera eta jaiegunetan 08:00etatik 22:00etara 948 29 02 90 zenbakira deituta.

Portugalgo ligako lehen mailan ariko da Jorge Agirre futbolari lesakarra

TTIPI-TTAPA LESAKA

Donostiako Real Sociedad taldetik Osasunak fitxatu zuen joan den denboraldian Jorge Agirre de Cespedes futbolari lesakarra. Osasunako bigarren taldean aritu da 2023-24 denboraldian eta bortz gol egin ditu 24 urte dituen aurrelariak. Orain, bere ibilbidean bertze urrats bat eman eta Portugalgo ligako lehen mailan ari den Gil Vicente Futebol Clube taldeak fitxatu du, hiru urterako. Portugalgo iparraldean, Galiziatik hurbil, Braga eskualdeko Barcelos hiriko taldea ligako sailkapenaren erdialdeko taldea dela erran daiteke, baina 2022-23 denboraldian UEFA Conference League ere jokatu zuen.

Uztailaren 3an sinatu zuen Agirrek eta klubeko sare sozialetan adierazi duenez, «kon-



Jorge Agirre, Portugalen.

tent eta hasteko gogotsu nago, talde kideak eta entrenatzaileak ezagutzeko. Estadioa hagit polita da eta zelaia eta gimnasioa ere probatu dut pixka bat eta hagitz ongi daude. Hiria ere hagit polita iruditu zait, lasaia eta bertan bizitzeko egokia». Denboraldi aurreko lehen partidaren gola egin zuen Agirrek eta abuztuaren 10ean Porto talde entzutetsua izanen dute arerio ligako lehen jardunaldian.



Unai Bertiz bigarren izan zen orga joko txapelketan. UTZITAKOIA

Esti Gastearena Nafarroako txapeldun txingekin

Iruñeko sanferminetan jokaturako txapelketa irabazi zuen eta Unai Bertiz bigarren izan zen orga joko txapelketan

MAIDER PETIRENA

Iruñeko sanferminetan jokatzen diren herri kirol erakustaldi eta txapelketetan parte hartu zuten Esti Gastearena Villanueva eta Unai Bertiz Anzizar herritarrek. Uztailaren 11n giza proba erakustaldia egin zuten. Uztailaren 13an, Esti Gastearena, iaz bezala, Nafarroako txinga eramate txapelketan txapeldun suertatu zen, 15 plaza eta erdi pasatxorekin. Garazi Azkoaga (Etxauri) eta Iranzu Fierro (Berriozar) utzi zituen gibelean.

Uztailaren 14an, Unai Bertizek Nafarroako orga joko



Esti Gastearena txapeldun.

txapelketan bigarren postua lortu zuen, Oskar Aguas txapeldunaren gibeletik, bere iazko lana hobetuz: Bi itzuli eta hiru laurden egin zituen gurdia altxatuta.



Gastearena txapeldun, Azkoaga eta Fierroekin, podiumean.



UXUE ARMENDARIZ

Udako ludotekan gustura dabilta

Urtero bezala ludoteka zerbitzua eskaintzen ari dira udan Sunbillan, ekainaren 24an hasi eta abuztuaren 9ra bitarte. Aurten ere, pasa den udan bezala, hezitzaile lanetan Uxue Armendariz Aizkorbe, June Aiesa Rekarte eta Uxue Ibarra Mariezkurrenak herritarrek ditugu.



Sara Gartzia helmugara sartzen Avilesen. UTZITAKOIA

Sara Gartzia eta Eneit Bertiz herritarrek Nafarroako txirrindularitza selekzioarekin

Nafarroako Txirrindularitza Federazioak Espainiako Eskolarteko Errepide eta BTT txapelketetan parte hartu du Avilesen gizonezkoen zein emakumezkoetan uztailaren 4tik 7ra bitarte. Bertan Infantil emakumezkoen kategorian Sara Gartzia Sanzberro herritarrek parte hartu zuen. Esperientzia bikaina izan da.

Nafarroako txirrindularitza federazioarekin ere, 23 urtez azpiko kategorian Eneit Bertiz Apezetxeak Huelvan, El Almendron, Team Relayen parte hartu eta probintzien artean Nafarroa bigarren gelditu da.



Eneit Bertiz Huelvako El Almendron.



Mitxeko eta Uterga erdian, txapelak soinean dituztela. UTZITAKOA

Uterga eta Mitxeko nagusi San Fermin erremonte torneoan

29-35 nagusitu ziren finalean Xanti Uterga eta David Mitxeko herritarrek Zeberio II.aren eta Ionon kontra

TTIPI-TTAPA

Herrira etorri dira Euskal Jai Berri Fundazioak antolatutako San Fermin erremonte torneo-ko txapelak. Uztailaren 12an jokatu zuten finala Iruñean eta Xanti Uterga eta David Mitxeko herritarrek 29-35 irabazi zuten lehia.

Hasiera berdinduaren ondotik, gehiago izan zen Doneztebe-ko bikotea. Bana, launa, seina, zortzina eta bederatzina berdindu ondotik, sei tantoko aldetxo hartu zuten (10-16, 11-17, 12-18 eta 14-20). Bazirudien partida bideratua zutela doneztebarrek, baina hogei-

na berdinduzuten Zeberio II.ak eta Ionek. Ez zuten markagailuan aitzinetik jartzea lortu, ordea, eta bukaerara arte gehiago izan ziren Uterga eta Mitxeko.

Aurrelariak 19 tanto egin zituen eta atzelariak 7, horietatik 2 sakearekin.

Promozio mailan txapelak Malerrekara

Eskualdera etorri dira promozio mailako txapelak ere. Mikel Mikelarena oiztarra eta Markel Leatxe donamariarra, 26-35 nagusitu ziren Jon Sagaseta iruritarren eta Barricarten kontra.

Turismo bulegoa irekia egonen da uda sasoian

Uda sasoi ailegatzearekin batera, herriko turismo bulegoa irekia egonen dela jakinarazi du udalak. Zehazki, asteartetik igandera egonen da irekia, eta honako ordutegia izanen du: 09:00etatik 15:00etara. Merkatuko Bidea karrikan kokatua dago.

Disc golfa entrenatzen hasiko dira asteazkenetan

Azken urteetan pixkanaka goiti egiten ari da herrian disc golfa praktikatzeko afizioa. Horren erakusgarri, hemendik aitzinera asteazkenetan elkartuko direla Intzakardin 19:30ean praktikatzeko. Kiro-la egiteko beharrezko diskoak udalak erosi ditu.



UEMA

Salto! udalekuetako gaztetxoak herrian

UEMAk antolatutako Salto! udaleku ibiltarrietan ibili diren gazteak herrian izan dira. Bi txandatan banatuta, Arantza eta Elizondo arteko bidea osatu dute, tartean Donezteben geldialdia eginda. Euskararen arnagune diren herrietako 60 gaztek hartu dute parte denera udalekuan.

Laxoa txapelketako final handirako sailkatu da herriko The Moment taldea

TTIPI-TTAPA

Iazko Nafarroako Laxoa Txapelketako txapeldunak berriz ere sailkatu dira final handirako. Julen San Miguelek, Pascual Bertizek, Javier Bertizek eta Koldo Legarrak osatzen duten Doneztebe The Moment taldea Arraiozen lehiatuko da abuztuaren 3an Oiz A taldearen kontra.

Finalerako lehia estua izan zuten herriko bi taldeek: Doneztebe The Moment eta Doneztebe Apeztegia (Jon Apeztegia, Ramontxo Etxebeste, Iban Santesteban eta Joseba

Juanena) taldeek. Joaneko partidari, The Moment 9-4 nagusitu zen Apeztegia taldearen kontra.

Itzulerakoan, aldiz, Apeztegia 2-0 aitzineratu bazen ere, azkenerako The Moment taldea nagusitu zen bere aldeko 9-5 emaitzarekin.

Gauzak horrela, iazko txapeldunak txapelaren lehian izanen dira berriz ere abuztuaren 3an Arraiozko frontoian. Parean Oiz A (Ioritz Zelaieta, Iker Bereau, Laurendi Zelaieta eta Ugutz Zelaieta) izanen dituzte herritarrek.

Herriarteko Txapelketako maila nagusian ez du txapelik lortu Errekak

OIER ZULAIKA

Uda sasoiaren ere pilotan jokatzeko segitzen dute Errekako pilotariek. Nafarroako Herriarteko Pilota Txapelketako nagusien kategorian finalera ailegatu dira Errekako pilotariak, baina, Larraunen kontra galdu eta ezin izan dute txapela

pela herrira ekarri. Lesakako Benito Taintaren omenezko lehian, aldiz, Errekan aritzen den baina sunbildarra den Nahia Bertizek finala galdu zuen. Iker Anzarrek, ordea, txapela lortu zuen gaztetxoe-tan Gaztelekuko Aimar Berozi 18-3 irabazita.



Iruñeko Kondestablearen jauregian egin zuten txapelketaren aurkezpena.

Nafarroako erremonte txapelketa abiatu da

Sei bikote hasiak dira lehia urriaren 5ean Zubirin jokatu den finalerako txartelaren bila

TTIPI-TTAPA

Sanferminen ondotik, Euskal Jai erremonte fundazioak antolatutako Nafarroako Foru Komunitatearen XIX. erremonte profesionaleko txapelketa jokoan da.

Sei bikotek parte hartuko dute, bi multzotan banatuak. A multzoan, Xanti Uterga doneztebarra eta Markel Leatxe donamariarra; Matxin III.a eta David Mitxeo doneztebarra eta Xuban Iturregi iruritarra eta Aimar Saldias oiztarra ariko dira. B multzoan, berriz, Zeberio II.a eta Barricart, Eloy Otxandorena doneztebarra

eta Ion eta Jon Sagaseta iruritarra eta Otano.

Txapelketa uztailaren 19an hasi zen Irurtzunen eta Lerinen uztailaren 24an, Mendabian abuztuaren 10ean, Hendaian abuztuaren 17an, Milagron abuztuaren 24an eta Artaxonan irailaren 1ean jokatu dituzte lehen faseko partidak. Multzo bakoitzeko bi lehenbizikoek finalerdiak irailaren 7an Garesen, irailaren 15ean Zangozan, irailaren 21ean Irunberrin eta irailaren 28an Ribaforadan jokatu dituzte eta irabazleek finala jokatu dute urriaren 5ean Zubirin.



NHKF

Maika Ariztegiren hamalagarrena

Iruñeko sanferminetan herri kiroletan Nafarroako hainbat txapel banatu dituzte. Eskualdeko kirolariek lortu dituzte horietako aunitz, baina beharbada aipagarriena Maika Ariztegik ingude altxatzen eskuratutakoa izan da. Hamalagarren aldiz jantzi du txapela iturendarrak.



NAFARROAKO PILOTA FEDERAZIOA

Herriarteko ikuskizuna Labriten

Nafarroako herriarteko pilota txapelketako finalak jokatu zituzten San Fermin egunean Iruñeko Labriten. Final ttikian Baztanek 2-1 irabazi zion Berari eta final handian (argazkian), Larraunek 2-1 irabazi zion Donezteberi. Informazio gehiago 70. orrialdean.

Nafarroako mendi bizikleta selekzioa bigarren Team Realy errelebo proban

Nafarroako mendi txirrindularitza selekzioak uztailaren 12tik 14ra El Almendron (Huelva) jokatu zen Team Realy erreleboetako proban bigarren postua eskuratu zuen. Selektzio bakoitzean sei txirrindularik parte hartzen dute proban, hiru emakumek eta hiru gizo-

nezkoek, elite, sub23 eta junior mailakoak. Nafarroako selekzioarekin, eskualdeko txirrindulariei dagokienez, Eneit Bertiz sunbildarra 23 urtez beheitikoetan eta Jon Egizabal junior mailan aritu ziren eta zilarrezko dominarekin bueltatu ziren biak.



Bertiz eta Egizabal, ezkerretik hasita hirugarren eta laugarrena, podiumean.



Eusko Ikaskuntzako Ana Urkiza eta Tokikomeko Alaitz Artolazabal.

Eusko Ikaskuntza eta Tokikom lankidetzan hasiak

Hitzarmena sinatu dute uztailearen 4an Bilbon, «egoera soziokulturalari eragiten dioten gaiak gizarteratzeko»

TTIPI-TTAPA

Eusko Ikaskuntza erakundearen lehendakariak, Ana Urkizak, eta Tokikomen zuzendari nagusiak, Alaitz Artolazabalek, bi erakundeen arteko lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten uztailearen 4an Bilbon, haien arteko harremanak sendotu eta elkarlan ildoetan sakontzeko asmoz.

Hitzarmenaren bidez, Eusko Ikaskuntzak eta Tokikomek elkarri zuzendutako proiektuak sortu nahi dituzte, edukien ezagutza sustatu eta zorrotasuna lortzeko.

Horretarako, bi erakundeek ezagutza trukatzeko konpromisoa adierazi dute, eta elkarren lan batzordeetan parte hartzeko ekarpen adierazgarriak egin ditzaketen kasuetan. Hitzarmenean jasotzeko lan jarraipena egiteko batzorde bat ere eratuko dute erakundeok, elkarrekin egin beharreko lanak adostu zein egindakoen balorazioa egiteko.

Eusko Ikaskuntzaren lehendakari Ana Urkizaren hitzetan, «hitzarmen honek Euskal Herriko txoko anitzeko errealitateetara hurbiltzen gaitu,

elkar ezagutzeko, hausnartzeko eta batera erronkei erantzuna emateko bidea zabalduko duelarik». Azpimarratu nahi izan du, halaber, «Tokikomen tokiko gertutasun hori ezinbestekoa da, gizartearen gaitasuna heldu eta eurekin elkarlanean eragiteko, guztion ongizatearen mesedetan».

Tokikometik, berriz, «hitzarmenak aukera emango die toki komunikabideei Eusko Ikaskuntzak hizkuntza, kultura eta ezagutzaren bueltan egiten duen lanketa gizarteratzeko, eta aukera paregabea egiten dituzten bestelako proiektu pausatua goetan sarbidea izan eta toki komunikabideetan sakon aztertu eta zabaldu ahal izateko» azpimarratu du zuzendariak, Alaitz Artolazabalek.

Elkartzen Gaituena XIX. Kongresuko babesle

Hitzarmenaren eta elkarlanerako gogoaren lehen ondorio gisa, Eusko Ikaskuntzak urriaren 2an, 3an eta 4an Gasteizen antolatutako Elkartzen Gaituena XIX. Kongresuko babesle izatera pasako da Tokikom.

Zubietako Aurkidiko bideko hobekuntza lanak 85.000 euroan egin dituzte

FERMIN ETXEKOLONEA ZUBIETA

Zubietako Aurkidiko bidean egindako mantentze lanak bukatuak dituzte. Luisengo bordako bidegurutzetik Isabeleko bordaraino egin dituzte lana, 730 bat metrotan, bi zatitan banatuak. Bi zatitan hormigoia bota dute eta tarte horiek hobetuta, bizitegiak sarbidea ere hobetu da. Excavaciones Mikel Ubiria enpresak egin ditu lanak eta 85.081,33 euroko inbertsioa egin da (gehi BEZa). Tokiko Inbertsioen Planaren (PIL) % 75eko dirulaguntza izan du



Lan ederra egin dute Aurkidin.

Zubietako Udalak lanak ordaintzeko.

Bidea auto eta traktoreendako irekia dago dagoeneko, baina kamioiendako uztailearen 29ra arte itxia egonen da.



UTZITAKOIA

Joaldunak Iruñean eta Erreterian

Uda partean ere han eta hemen aritzea egokitzen zaie Zubietako joaldunei. Azken urteetako ohiturari eutsiz, Iruñeko sanferminetan, Baluarteko Kantu Jaian parte hartu zuten uztailearen 13an (argazkian) eta, egun berean, Erretereriako Erromeria Egunean ere izan zen beste talde bat.

BEINTZA-LABAIEN



Aizkora apustua izanen da larunbat arratsaldean Labaienen. ARANTXA ITURRALDE



Tortilla eta postre lehiaketak ere ikusmina pizten du.

Abuztuaren 2tik 5era prest dituzte herriko bestak

Larunbat arratsaldean aizkora apustua izanen dam igandean tortilla eta postre lehiaketa eta astelehenean herri bazkaria

TTIPI-TTAPA

Abuztuaren 2tik 5era ospatuko dituzte Beintza-Labaiengo bestak. Ohi bezala, bi egunetz Beintzan eta bertze bi egunetz Labaienen izanen dituzte ospakizunak, ortziraleko altxaferoekin hasi eta asteleheneko herri bazkarira arte.

Abuztuak 2, ortziralea (Beintza)

20:00etan altxaferoak eta karrika erronda Iturengo txistulariekin. 21:00etan zopak, herriko ostatueta eta Iturrondo elkartean. Gaeuz dantzaldia Dj Endararekin.

Abuztuak 3, larunbata (Labaien)

10:00etan karrikaronda Iturengo txistulariekin. 11:00etan Mus Txapelketa. Goizez eta arratsaldez puzgarriak eta haur jokoak, bukaeran txokolate beroa. 14:00etan Gazte bazkaria. Arratsaldean Elutxa txaranga herrian barrena ibiliko da. 19:00etan aizkora apustua: Bihurri-Joxean Etxeberria; Larrañaga-Jexux Etxeberria; Otaño-Oier Kañamares. Arratsaldez eta gaeuz dantzaldia Bizphiru pelau taldearekin (tarteetan karaokea izanen da).



Asteburuan puzgarriak eta haur jokoak izanen dituzte tikienek.

Abuztuak 4, igandea (Beintza)

10:00etan karrikaronda Iturengo txistulariekin. 11:00etan Meza Nagusia. Ondotik Mallerrekako dantzarien saioa eta gero luntxa. Arratsaldez haur jokoak eta puzgarriak. 19:30ean Mariatxiak, Roberto Urrutiaren eskutik. Ondotik bingoa eginen dute. 21:00etan Tortilla eta postre lehiaketa jokatuko dute. Gero suak ikusgai. Arratsaldez eta gaeuz dantzaldia Dj J&Irekin.

Abuztuak 5, astelehenea (Labaien)

10:00etan karrikaronda Iturengo txistulariekin. Goizean zehar haur jokoak. Bazkalurrean gazte jokoak. 14:00etan Herri bazkaria. Bertsolariak: Aitor Mendiluze eta Unai Agirre. Kantu zaharrak eta akordeoilaria: Anjel Mariezkurrena, Aitor Jalisko eta Beñat Mitxelenarekin. Arratsaldez eta gaeuz dantzaldia DJ J&Irekin. Gaixoa ni, beste bukaera emanez.



Besta onak opa dizkie
herritar eta bisitari guztiei

ORBELA
SENDERISMOA ATERPETXEA

BEINTZAKO OSTATUA
Idoia · Mikel

T. 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com
www.orbela-beintza.com



Suziriaren ondotik zopak eta musika izanen dituzte ostatuan. FATIMA MITXEO



Larunbat eguerdian herri kirol desafioa izanen dute gazteek.

Santo Domingo bestak abuztuaren 1etik 4ra prest

Ortzeguneko suziriakin eta herriko ostatuko zopekin hasi eta igandeko meza eta aizkora apustuarekin akituko dituzte

TTIPI-TTAPA GAZTELU

Gazteluko Santo Domingo bestak abuztuaren 1etik 4ra ospatuko dituzte eta hainbat ekitaldi izanen dituzte aurten ere lau egunez, ortzeguneko suziri eta zopetatik hasi eta igandeko meza, aizkora apustu eta dantzaldira bitarte.

Abuztuak 1, ortzeguna
20:00etan suziriak. 21:30ean zopak herriko ostatuan. Ondotik musika ostatuan.

Abuztuak 2, ortziralea
Haurraren Egunean goizean eta arratsaldean puzgarriak.

17:00etan mus eta partxis txapelketak. **19:00etan** tortilla patata txapelketa. **19:30etik 21:30era** dantzaldia Agerralderekin.

Abuztuak 3, larunbata
09:00etan gosaria. **12:00etan** herri kirolak. **14:30ean** herri bazkaria eta ondotik dantzaldia Agerralderekin. **22:00etan** afaria. **00:00etatik 01:30era** dantzaldia Pancho Balbuena-ekin. Ondotik, DJ Rutxo.

Abuztuak 5, igandea
12:30ean Meza nagusia eta ondotik salda eskainiko dute



Larunbateko herri bazkariaren ondotik dantzaldia izanen dute.

herriko ostatuan. **18:00etan** aizkora apustua. **19:30etik 21:30era** dantzaldia Agerralderekin eta ondotik, 'Gaixoa Ni', bestak akitzeko.

ORTZIRALEAN HAURREN EGUNA ETA LARUNBATEAN HERRI BAZKARIA



Herri kiroletan lanean.

GAZTELUK OSTATUA

948396684

gazelukotaberna@gmail.com

@gaztelu_herriko_ostatua

KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea
www.kulturkari.com

Biniloak

Pareta eta erakusleihoetarako

Neurrira eginak, azido efektua, elektrostatiokoak, gardenak, jartzeko errazak...



MINIESKABAZIOAK

MINIESKABAZIO eta GARRAIO LANAK enpresa eta partikularrentzat

Ezpelura, 1 - DONEZTEBE - T. 616 513 491

Orain arteko ekitaldien balantze positiboa

Hainbat jarduera egin ditu urteko lehen sei hilabeteetan elkarteak eta jendetsuenak bidaiak eta irteerak izan dira

TTIPI-TTAPA

Urte erdia pasatu da dagoneko, eta lerro hauek aprobetxatu nahi ditu elkarteak urteko lehenengo sei hilabeteetan izandako ekintzen balorazioa egiteko.

Irteerei dagokionez, uztaila bitarte zortzi irteera antolatu ditu elkarteak, egun bakarrek batzuk, eta luzeagoak bertzeak. Denera, 1.519 lagunek hartu dute parte irteera horietan. Irteera jendetsuena Euskal Kantuen Eguna izan zen, denera 271 bazkide elkartu baitziren Dantxarinear. Horrez gain, nabarmentzekoa da 407 lagunek parte hartu dutela orain arte egindako mendi irteeretan.

Ikastaroak datutan

Ikastaroak izaten dira Arkupeak elkarteak antolatzen dituen bertze ekimen arrakastatsuenetakoz batzuk. Kasu horretan, ez herri guztietan, baina aunitzetan izan dituzte. Herriz herri, Arantzán 11 lagun bildu dira yoga ikastaroan; Beran 69 lagun lau

ikastarotan; Donezteben hamar ikastaro egin dituzte eta 89 lagun elkartu dira denera; Donamarian ikastaro bakarra izan dute, soinketako, eta 10 lagun elkartu dira; Elizondon 49 lagun elkartu dira egindako hiru ikastarotan; Sunbilla 8 lagun yogako ikastaroan eta Leitzan, aldiz, 5 egin dituzte eta denera 41 lagun bildu dira.

Datu guztiak kontuan hartuta, denera urtea hasi denetik 295 bazkide ibili dira elkarteak antolatutako ikastaroren bat egiten.

Kiroldegian ere bai

Ikastaroez gain, hainbat kiroldegitan deskontuak lortzen dituzte Arkupeak Elkarteak bazkideek. Datuak ikusita, ikusten da, gainera, aunitz direla deskontu horiek erabiltzen dituzten herritarrak.

Berako Kiroldegian, erra-terako, 46 lagunek aprobetxatzen dute elkartearen deskontua, eta horietako gehienak 19 lagun, soinketa egiten aritzen dira. Elizondon ere aunitz dira deskontua



407 lagunek hartu dute parte orain arte egindako mendi irteeretan. UTZITAKOIA

aprobetxatzen dutenak, denera 84. Horietako gehienak, 59 lagun zehazki, diziplina anitzeko jardueran aritzen dira.

Leitzako kasuan, aukera zabala dute kiroldegian eta 85 lagunek aprobetxatu dituzte deskontuak. Horietan gehienak, 29 lagun, diziplina anitzeko jardueran apuntatuta daude. Bukatzeko, Lesakan ere badute kiroldegia eta 181 lagunek aprobetxatzen

dute deskontua. Gehientsuenak, 102, diziplina anitzeko jardueran aritzen dira.

Osasun zerbitzuak eskura

Horrez guztiaz gain, hainbat osasun zerbitzu ere eskaintzen ditu elkarteak: podologia, masaje zerbitzua, fisioterapia eta baita ile apaintzaile zerbitzua ere. Denera, 217 lagunek erabili dute zerbitzu horietakoren bat, eta erabiliena podologia izan da, 163 aldiz erabili baitute.

Datuak ikusita eta aztertuta, orain arteko sei hilabeteen balantze positiboa egin du elkarteak, eta urtea bukatu arte antolatutako ekintzetan parte hartzeko deia luzatu du.

1.519 LAGUNEK HARTU DUTE PARTE BIDAIA ETAN ETA IRTEERETAN



KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea
www.kulturkari.com

Enpresentzako materiala

Txartelak, gutun-azalak, orriak, talonarioak, karpetak, zigiluak...





Hainbat euskarri

Era guztietako formatuak eskaintzen dizkizugu zure enpresa bistaratzeko



BERAKO BESTAK

2024

Egitaraua

Uztailak 27, larunbata

14:30ean 4x4 autoen ikuskizuna Postan. Antolatzailea: Boma 4x4.

16:00etan 3x3 kuadrillen arteko saskibaloitxapelketa Toki Onako patioan. Taldeak 3-4 lagunez osatuak egon behar dute. Izen ematea 15:00etatik aitzinera. Antolatzailea: Toki Ona Saskibaloit Taldea.

Uztailak 28, igandean

10:00etan plater tiroketa minifoso modalitatean Lizuniagako tiro eremuan. Antolatzailea: Berako Ehiza eta Arrantza Elkarte. **11:00etan** txirrindularitza proba, Berako XXI. Saria. Irteera eta helmuga Bidasoa karrikan. Antolatzailea: Gure Txokoa Elkarte. **16:00etan** 3x3 saskibaloitxapelketa Toki Onako patioan. Izen ematea 15:00etatik aitzinera. Antolatzailea: Toki Ona saskibaloit taldea.

Abuztuak 1, ortzeguna

11:00etan txupinazioa San Jose zahar etxean. **19:30ean** dantza jaialdia Eztegara pilotalekuan. Antolatzailea: Gure Txokoa Elkarte. **22:00etan** X. Berako Gau Krosa. Izen ematea eta

argibideak: www.manttale.com helbidean. Antolatzailea: Manttale.

Abuztuak 2, ortziralea

10:00etan gosari herriko txosnetan. **Ondotik**, txupinazora martxa. **11:30ean** ahantzien oroimenez lore eskaintza Herriko Etxeko plazako oroigarrian. **12:00etan** 2024ko San Esteban besten hasiera adierazteko altxaferoa botako dute eta ezkila jotzea izanen da. **Aldi berean**, ttikiendako goxokiak banatuko dituzte. **Ondotik**, erraldoiak eta buruhandiak karrikaz karrika ibiliko dira Incansables txarangak, Ezpelur gaiteroek eta



Zelaieta

Okindegirako makineria

Zalain auzoa, 19 - 31780 BERA
T. 948 631 004 | info@zelaieta.com
www.zelaieta.com

Jauztena

Denda, 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jauenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantentze-lanak

Eguzki-panelen instalazioa
eta dirulaguntzen gestioa

Ongi pasa bestak!

Goieko

GOI MAILAKO EKOLOGIA

Ongi
pasa
bestak!

Bidaurre Ureder Ind. 2. P4 partzela 20305 Irun ☎ 943 63 45 36

HAMAIKETAKO

ERAMATEKO JANARIA

ETXERA ERAMATEKO MENU OSOA 9,75 €tik HASITA
948 631 017



ONGI PASA BESTAK!

Sara karrika, 7 · Agerra auzoa · BERA

DESIN BERA

INSEKTU-HILTZEAK
ARRATOI-HILTZEAK
EGUR TRATAMENDUAK
DESINFEKZIOAK
HEGAZTIEN KONTROLA

Ongi pasa bestak!

T. 948 625 597
Zalain, 42 B · BERA

INDARRI

HOTZ KOMERTZIALA ETA INDUSTRIALA
KLIMATIZAZIOA

T. 639 103 305 • Ziobi, 15 LESAKA
indharr@gmail.com

ANTZUZELAI

S.L.

Ongi
pasa bestak!

BERA
T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com



HARGINTZA | FATXADAK | TXIMINIAK
ZOLAK | TAILLA ARTISTIKOAK | OBRAK

MARITX

· INGENIARITZA ELEKTRIKOA · BOLETIN INDUSTRIA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Ongi pasa bestak!

T. (0034) **636 617 450** Legia, 23 - BERA

KORTA ANAIAK

ARROZTEGI METALIKOA
CARPINTERIA METALICA

Ongi pasa bestak!

Alkaiaga Ind. Elutxa 1 · 31789 LESAKA
T./F. 948 631 651
info@kortanaiak.com

SORKUNDE BENTA
IBARDIN

ONGI PASA BESTAK!

BERA · IBARDIN · 00 34 948 630 724

PIKA BEA
HARATEGIA
URDAITEGIA

Ongi pasa bestak!

T. 948 631 284
Sara karrika, 7 · Agerra auzoa · BERA

errandonea EDARIAK

ONGI PASA HERRIKO BESTAK!

Ziobi 11, Alkaiaga Industrialdea.
31789 BERA Tel. 948 630 982



gaita eskolak lagunduta. **17:00etan** Ezpelur gaiteroek San Jose zahar etxean joko dute. **19:00etan** txosnen irekiera Toki Onako patioan Zker Elektrotxarangak giro tuta. **19:30ean** Berako txistularien karrikabuelta Illekuetatik Herriko plazara. **21:00etan** dantza herrikoiak Altzate karrikan Ezpelur gaiteroen laguntzarekin. **22:00etan** Janus Lester taldearen kontzertua Toki Onako patioan. **00:00etan** Ganibet taldearen kontzertua Toki Onako patioan. **01:00etan** Kalejira Incansables txarangarekin Mukixu zubitik hasita. **01:30ean** DJ Üzkülüz Toki Onako patioan.

Abuztuak 3, larunbata

09:30ean herriko txistulariek argi-soinua joko dute eta Ezpelur gaiteroak herrian barna ariko dira. **10:30ean** meza Nagusia Esteban Donaren ohoretan Berako Abesbatzak lagunduta. **Ondotik**, Gure Txokoa Dantza Taldeko kideek Berako Bordo Dantza eta Makil Dantza dantzatzuko dituzte txistularien laguntzaz. **Gero**, Sarai Robles eta Andoni Egaña bertsoariak kantatzuko dute. **13:00etan** Ezpelur

gaiteroak Ibardinen ibiliko dira. **17:00etan** Incansables txarangak San Jose zahar etxean joko du. **18:00etan** Gure Txokoa Dantza Taldeak Berako Aureskua dantzatzuko du Herriko etxeko plazan. **Gero**, Berako Bandaren kontzertua Herriko etxeko plazan. **Ondotik**, Incansables txarangaren kalejira Herriko etxetik Alzatera. **21:00etan** dantza herrikoiak Alzateko karrikan Ezpelur gaiteroen laguntzarekin. **00:00etan** Bengoren kontzertua Toki Onako patioan. **01:00etan** kalejira Incansables txarangarekin Mukixu zubitik hasita. **02:00etan** DJ Fifi eta Fefa Toki Onako patioan.

Abuztuak 4, igandea

09:00etan Ezpelur gaiteroak Zia eta Dornaku auzoetan ibiliko dira. **09:30ean** Berako erronka herrian barna Merkatu plazatik hasita. Adina: LH 3tik LH 6. mailara. Igerilekurako ezinbertzekoak: toalla, bainujantzia eta txanoa eramatea. Antolatzaileak: Berako Udala eta Manttale. **11:00etan** Incansables txarangak San Jose zahar etxean joko du. **12:00etan** migatutak

OINLUR
Reflexologia
BERA

Nerbio-sistema zentrala eta periferikoa orekatzen ditu.
Gorputzaren funtzionamendu egokiari laguntzen dio.

Immunitate sistema sendotzen du.
Odol-zirkulazioa aktibatzen du.
Antsietatea guttizen du.

Lourdes Párraga
+34 623 981 988 | @oinlur | oinlur@yahoo.com

MILJAR OSTATUA

Ongi pasa bestak!

669 68 42 87
Eztegara pasealekua, 30
BERA

Herriko Etxeko plazan. **12:30ean** erraldoiak eta buruhaundiak Ezpelur gaiteroen laguntzarekin ibiliko dira Agerran. **17:00etan** herri olinpiadak Txosna Batzordeak antolatuta. **17:00etan** gizonezko pilotari profesionalen arteko partidak Eztegarra pilotalekuan. Sarrerak Agara prentsan salgai. Antolatzailea: Aspe. **Ondotik**, emakume pilotari profesionalen arteko partida. Antolatzailea: Ados pilota. **19:00etatik 23:00etara** gazteentzako diskofesta eta afaria Toki Ona kiroldegian 10 eta 15 urte artekoentzako. Antolatzailea: Labiaga Ikastola. **20:00etan** Miceren kontzertua Toki Onako patioan. **21:00etan** dantza herrikoak Alzate karrika Ezpelur gaiteroen laguntzarekin. **00:00etan** etan herriko DJak Toki Onako patioan. **01:00etan** kalejira Incansables txarangarekin.

11:00etatik 13:30era puzgarriak Eztegarra pilotalekuan. **12:00etan** herri danborrada Herriko Etxeko plazatik Alzateko plazara. Antolatzailea: Berako Banda. **14:00etan** Kantu bazkaria Alzateko pilotalekuan Labiaga Ikastolak antolatuta. **16:00etatik 18:30era** puzgarriak Eztegarra pilotalekuan. **18:30ean** Migattuk Herriko Etxeko plazan. **19:00etan** elkartasun ekitaldia txosnan. **Ordu berean**, erraldoiak eta buruhaundiak Alzaten barna. **20:00etan** Atzarbale taldearen kontzertua Toki Onako patioan. **21:00etan** dantza herrikoak Alzate karrika Ezpelur gaiteroen laguntzarekin. **Ondotik**, zezensuzkoa ibiliko da Alzateko karrikan. **00:00etan** Xutik taldearen kontzertua Toki Onako patioan. **01:00etan** kalejira Incansables txarangarekin Mukixu zubitik hasita.

Abuztuak 5, astelehena

09:00etan Irats taldeko trikitilariak eta pandero jotzaileak Garaitarretan ibiliko dira, eta Ezpelur gaiteroak Zalain, Alkaiaga eta Zalain Zoko auzoetan. **Gisa berean**, Bera Kantari Suspela auzoan ibiliko da. **10:00etan** plater tiroa ehiza ibilaldia modalitatean Lizuniagako tiro eremuan. Antolatzailea: Berako Ehiza eta Arrantza Elkarte. **11:00etatik 13:30era** txoko jokoak Merkatu Plazan. Eguraldi txarrarekin Toki Onako estalpean. Antolatzailea: Labiaga Ikastola.



BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

INGURU ELEKTRIKOA
KONKATZEDO OINAK
DOMOTIKA
EUSKI PANELAK

Ongi pasa bestak! 948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 59 65

Zalain Ind., 42 Bera.

Toki Ona
Berako Udal Kiroldegia

SASTRAKNO
KIROL ZERBITZUAK

Kirol bulegoa: 948 630 215 - info@sastrakokirola.eus

GOURMET ETA BESTAKO
BARRUTUAK

URKILÄ
HARATEGIA

Kanttonberri, 12 BERA 948 630 439 666 407 210

PLATAFORMAS BIDASOA

PLATAFORMEN ALOKAIURUA

T. 639 103 305 • Ziobi, 15 LESAKA indharri@gmail.com

erran.
eus

Osatuz
Psikologia-Psikoterapia
Garbiñe Goia Irazoki
HAURRAK / NERABEAK / HELDUAK
Tel.: 619 343 755
g.g.irazoki@gmail.com

ERREKALDE
OSTATUA

ONGI PASA BESTAK!

T. 948 630 259
Eztegarra 23 BERA

mendi mendian

Ongi pasa bestak!!!
JATETXEA • DENDA • OSTATUA

IBARDIN | BERA | NAFARROA | (0034) 948 630 723
mendimendian@hotmail.com | www.mendimendian.com

ZOANSA

FESTA ONAK PASA! **¡FELICES FIESTAS!**

MARKA GUZTIEN KONPONKETA
MEKANIKA • ELEKTRIZITATEA • TXAPA • PINTURA
Tel.: 948 62 55 55 • Fax: 948 62 55 05
e-mail: zoansa@zoansa.com
Banarta, 2 • Alkaiaga Ind. • 31789 LESAKA (Nafarroa)



F. LANCHAS
 Akutxiladorea eta bernizatzailea
 Parket eta parket flotatzailea
 jartzea
 Mota guztietako zolak
 Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

Occident Ongi pasa bestak!

ie Iriarte-Etxandi
 artekaritza-aholkularitza
 Kanttonberri, 1 • BERA • T.948 631 169

Goxune ONGI PASA BESTAK!

Kafetegia Okindegia

Sara kalea, 7 - BERA
 Tel: 948 630 235

Udako ordutegia (Ekainaren 24tik irailaren 1era)
 Asteartetik igandera Astelehena

07:30-13:30	07:30-13:30
17:00-21:00	Astelehen arratsaldean ixita

Abuztuak 6, asteartea

09:00etan musika eskolako trikitalariak eta pandero jotzaileak Kaulen ibiliko dira eta Ezpelur gaiteroak Suspelttikin. **10:00etan** herriko pilotarien pilota partidak Eztegarra pilotalekuan. Benjaminak, alebinak, infantilak eta helduak. Bortziriak pilota eskolak antolatuta. **12:00etan** erraldoiak eta buruhaundiak Altzate Herriko Etxeko plazara Ezpelur gaiteroek lagunduta. **Ordu berean**, mutxikoak Toki Onako patioan.

14:30ean herri bazkaria Altzateko pilotalekuan. **Ondotik**, jokoak txosnagunean. **17:00etan** Ezpelur gaiteroak San Jose zahar etxean. **19:00etan**: Pan con Chile taldearen kontzertua Toki Onako patioan. **21:00etan** dantza herrikoiak Altzateko karrikan Ezpelur gaiteroekin. **Ondotik**, zenezuzkoa Altzate karrikan. **00:00etan** Alarma Morea taldearen kontzertua Toki Onako patioan. **01:00etan** kalejira Incansabales txarangarekin Mukixu zubitik hasita.





BIDASOA
 GURPILAK - GASOLINDEGIAK
 1999. URTETIK

GASOLIOA ETXERA
 eramaten dugu



Gasol
BIDASOA 1.559
 GURPILAK - GASOLINDEGIAK 1.167

PARTIKULAR ETA GARRAIOLARIENTZAT ZERBITZU ANITZAK

Ibilgailu guztietarako gurpil eskaintza bereziak
24h-ko asistentziak errepideetan
IAT aurreko zerbitzua dohainik
Gasolindegia 24h irekita

☎ **609 446 693 - 679 204 872**
bidaso@neumaticosbidaso.es
www.neumaticosbidaso.es

Eska ezazu BIDASOA txartela erregaian deskontuak izateko

📍 **Alkaiaga Industrialdea**
 Ziobi Kalea 6
 31770 Lesaka (Nafarroa)
 948 625 663 - 636 293 125

Ongi pasa bestak!

📍 **Noain-Eskiroz Industrialdea**
 Y Kalea 10
 31110 Noain (Nafarroa)
 948 312 239 - 679 204 872

«Omenaldi gisa bizi dugu txupinazoa botatzeko aukera»

BERAKO ERRALDOIEN KONPARTSA TXUPINEROAK



Ilusioz eta gogoz. Halaxe hartu dute aurtent txupinazoa botatzeko ardura eta ohorea Berako Erraldoien Konpartsa kideek. Abuztuaren 2an suziria pizteaz arduratuko dira, eta aukera aprobetxatu nahi dute aitzineko konpartsa eta bertako lau kideak omentzeko: Fernando eta Javier Iturria, Angel Garcia de Dios eta Alberto Pereira. «Urte aunitz ibili dira erraldoiak dantzatzen, 25 urtez baino gehiagoz, eta uste dugu merezi dutela omenaldi bat. Eta noski guri egindako omenaldi gisa ere hartzen dugu txupinazoa botatzeko aukera».

Hain zuzen, Angel Garcia de Dios garai bateko konpartsakidea eta gaur egun erraldoiak dantzatzen aritzen den Irati Lazkano izanen dira suziria piztuko dutenak, konpartsa iragan eta etorkizuna erakusteko asmoz. 25 urtez baino gehiagoz aritu zen Garcia de Dios dantzatzen, eta Lazkanok, aldiz, 18 urte bakarrik baditu ere hirugarren urtea du aurtengoa konpartsan.

Gaur egun denera 18 lagun ari dira konpartsan erraldoiak dantzan, horietako batzuk urteak daramatzatenak, eta bertze batzuk hasi berriak. →

Ainhoa Alzuguren Mitxelena

ongi pasa bestak!

Abokatutza orokorrean · Herentziak
Alokairuak · Arazo administratiboak
Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deitu hitzordua hartzeko

Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89
ainhoaaltzuguren@gmail.com

JRAGONE-GOZOTEKIA



Besta gozo eta zoriotsuak opa dizkizuegu

Etxean egindako produktuak

948 630 786 · Altzate, 21 · BERA



ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

zubiondojatetxea.com

ONGI PASA BESTAK!

Alasta karrika · BERA | T. 948 625 472

anterola
Instalatazaile teknikoa

ITURGINTZA · GASA · BEROGAILUAK
AIRE GIROTUA
KOMUNeko & SUKALDEKO OSAGARRIAK
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa

629 449 602



Ongi pasa bestak txurripuki! Aupa hi!

BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA

www.kateabike.com

Kanttonberri, 1 | BERA | Tel.: 948 631 218 | joxemi@kateabike.com



ORBEA PINARELLO

BERGAMONT

BH

MONTY

MERIDA

JOSE I. GONZALEZ ENGUIA
Pintura orokorrean
Barrualdeak eta fatxadak
 T. 666 235 466

Ansonca ostatu · jatetxea
 Ongi pasa bestak!
 T. 948 63 01 07 Foruen plaza, 1 · BERA

E D A R I A K
 Ongi pasa bestak!
MANUEL TABERNA S.L.
 Bidasoa, 76 - 31780 BERA
 948 63 10 27 670 598 560
 info@tabernaedariak.eus
 www.tabernaedariak.eus

regina tolosa
 FISIOTERAPEUTA
K-STRETCH
 Elorri eta probatu debalde!
 San Esteban, 17 • T./F. 948 625 206 • BERA
 Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN
 Ongi pasa bestak!
 Centro Prim regina tolosaechepare



Elkarren arrimuan aritzen dira bat-tak bertzearengandik ikasten eta irakasten. Konpartsako kide izatea herriarekiko eskuzabaltasun ekin-tzatat dute: «Entseguetara etorri behar duzu, eta konpromisoa hartu behar duzu, lana da kide izatea».

Bestetan egunero

Berako bestak izaten dituzte urteko ekitaldirik luzeenak eta aurten lehenengoz egunero aterako dira karri-kara. «Abuztuaren 2ko ibilbidea pixka bat moztu dugu eta horren ordez abuztuaren 5ean arratsaldean atera-ko gara dantzari», kontatu dute konpartsako kideek.

Horretarako urte hasieran hasi zituzten entseguak, hasieran hila-betean behin elkartuta. Bestak hur-bildu ahala, uztailean, astean bitan entseatzeko hasi dira. Aurten, gaine-ra, lehenengoz haurren erraldoiak ere aterako dituzte karrikara, 12 urte inguruko haurrek dantzatuta. Erral-doi ttikien bidez, haurrengan zale-tasuna bultzatu nahi dute. «Ttikia zarela hasten bazara erraldoiak dantzatzen, gero errazagoa da kon-partsan sartzea».

Gogoa eta konpromisoa

«Ongi pasatzeko gogoa». Horixe da konpartsako kideen hitzetan erral-doiak dantzatzeko beharrezkoa den bakarra. «Ez da beharrezkoa dantza-tzen jakitea. Taldean bagara dantza-ri ohiak, baina, baita inoiz dantzatu ez dutenak ere, gogoa da behar den bakarra, eta baita herriaren alde lan egiteko izpiritua ere».

Adinari dagokionez ere, adin guz-tietako partaideak dituzte konpartsan. Aurten hasi diren gazteenek, errate-rako, 14 urte dituzte. «Ona da taldean denetarik egotea, gazteak eta adine-koak, denen artean banatzen ditugu lanak eta batzuek esperientzia dugu gauza batzuetan eta bertzeek bertzeetan». Hala ere, gazteenen eta helduenen artean adin diferentzia haundia dagoela eta, jende gaztea animatu nahi dute konpartsara.

Eta ikusleen aldetik zer? Argi dute erraldoiak ez direla modatik pasatzen. «Pandemia aitzinetik sekulako jende-tza ibiltzen zen, eta pixkanaka-pixkanaka ari gara jende hori dena berreskuratzen», azaldu dute. «Hau-rreren bueltan elkartzen dira gurasoak eta aitatxiak eta amatxiak».



Hondartza, kanpin eta lorategirako behar duzun guztia!

ONGI PASA BESTAK!

Zalain auzoa, z/g. - Pk. 4. - 31750 - BERA - Nafarroa
Tel.: +34 948 628 200 - FAX: +34 948 630 804
alco@alcoplas.com | www.alcoplas.com

Ongi pasa bestak

Zure merkataritza -guneak mugan

Dantxarinea • Ibardin • Behobia • Luzaide

Irekita 7/7



Zure erosketa-gune hoberenak
Euskal Herriko bihotzean



Elikadura



Shopping



Jatetxeak

Tel. +34 948 625 130 (Es.)
Tel. +33 9 72 10 40 20 (Fr.)

Instagram icon @venta.peio
Facebook icon peioventa



MAITE
PELUQUERIA MIXTA

Ongi pasa bestak!

679 493 099
948 630 483

Iturlandeta, 4-Behea
31780 Bera - Nafarroa



Ongi pasa bestak!

Frutas y Verduras
FRANDONEA, S.L.
FRUTAS Y VERDURAS

BILTEGIA:
948 630 102
SAKELAKOA:
633 480 563

Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA



artatu
ONGIZATE ZENTROA

Ongi pasa bestak!

Oihana Elzaurdia Ariztia
(633 788 323) Fisioterapia
Julen Errandonea Martin
(623 11 02 58) Prestaketa fisikoa
Jon Etxegarai Irazoki
(610 003 490) Psikologia-Gestalt psikoterapia
Irantzu Piquero Rodriguez
(722 47 46 53) Vinyasa yoga - Yoga dinamikoa

Tel.: **633 788 323** | artatubera@gmail.com



xulufraia
moda-opariak

Ongi pasa bestak!

Altzate, 18 • BERA | 948 631 266 | @ f



caveo

ongi pasa bestak!

Bidasoa, 78• BERA
Tel.: (+34) 948 62 50 20
Fax: (+34) 948 63 10 01
www.caveoautomotive.com

«Argi nuen kartel koloretsua egin nahi nuela»

JULIA ARTIEDA AZAL LEHIAKETAKO IRABAZLEA

Lehenengo aldiz aurkeztu eta irabazi. Horixe lortu du Julia Artieda Vila Berako ilustratzaileak. Bere lana izan da azal lehiaketan boto gehien lortu eta bestetako programako azalean agertuko dena. Ohitua dago, ordea, sormen lanak egitera, Kiribil izenpean ilustrazioak egiten aritzen baita, batez ere ilustrazio pertsonalizatuak egiten. Baina, Berako bestetako izan da lehiaketa batera aurkeztu duen lehen afixa. «Egunero aritzen naiz marrazkiak egiten, eta nire lanaren zati bat ezagutarazteko aukera ona denez, animatzea pentsatu nuen», azaldu du.

Teknika berria

Afixa egiteko argazkilaritza eta ilustrazioa nahastu ditu Artiedak, eta dena digitalki osatu du. «Herriko etxeko argazki bat hartu eta horri marrazkiak gehitu nizkion», azaldu du. «Ideia hagitz argi nuen, zerbait diferentea egin nahi nuen, zerbait koloretsua» azaldu du. Ideia argi izanda gehien kosta zaiona irudiak sortzea izan da. «Lehen aldiz aritu naiz marrazkiak argazki gainean egiten, baina, gustura aritu naiz eta gustuko dudan bertze estilo mota bat deskubritu dut».

Bestak iragartzeko txupinazoan sortzen den «giro koloretsua eta dibertigarria» islatzen saiatu da ilustratzaileak. «Nik uste dut beratarrentzat bestetako ekintzarik garrantzitsuenak dela, eta giro gehien izaten dena». Horretarako, espresuki saiatu da berak ohikoa duen estilotik aldentzen. «Eskerrak eman nahi dizkiet nire lana bozkatu duten herritarrei», dio, eta aurreratu du aurtengo emaitza ikusita, dagoeneko pentsatzen hasi dela heldu den urtean ere aurkeztea.





Hagitz maiteak ditu Artiedak herriko bestak. «Kuadrillarekin hiruzpalau egun pasatzeko aukera ederra dira, eta baita herritarrekin elkartzekoa ere». Baditu hutsik egiten ez duen ekitaldi batzuk. «Txupinazoa aunitz gustatzen zait, baita kantu bazkarian sortzen den giroa ere, urtero disfrutatzen dudana ekintza da». Eguna eta gaua, gustukoaren zein duen galdetuta, egunaren arabera izan da bere erantzuna. «Egun batzuetan jende sobera egoten da bestarako, baina abuztuaren 5a, adibidez bestarako egun ona da», kontatu du. Horrekin batera, abuztuaren 3ko besta ere maite duela kontatu du.

Uztaila «lanpetua»

Bestak ailegatzeko gogoz dago Artieda, nahiz eta jakin badakien besta aitzineko azken egunak aski lanpetuak izan direla. Uztailan hurrekin eta helduekin eskulan tailerrak egiten ariko da, baina, ez horretan baka-

rrik. Gure Txokoa Dantza Taldeko kidea da, baita Berako Bandako eta Barraskilo Gazte Taldekoa ere, eta beraz, bestak prestatzeko lanetan ibiliko da uztailako azken egunetan.

Besten bezperan, dantza jaialdia egiten dute, eta hori prestatzen ari dira buru belarri. Jaialdiaz gain, dantzari gisa, batez ere abuztuaren 3ko arratsaldeko aureskua du gustuko Artiedak. «Ttikitatik sartzen diguten sentimendu moduko bat da plaza erdian dantzatzearena eta aunitz gustatzen zait». Horretarako, entsegu ordu luzeak izaten dituzte. «Denak batera eta koordinatuak joan behar dugu, aureskuan hori aunitz nabaritzen delako. Plazara nola sartu eta atera entseatzeko dugu, eta baita egunen batean txistulariekin ere. Aunitz gustatzen zaizkit entseguak».

Aureskua dantzatzea ez da egun horretan egin behar duen zeregin bakarra. Izan ere, bandako kidea denez, musika jotzea ere egoki- →

Pizzio

tabako-denda 2. zbk
ongi pasa bestak!

Altzate, 26 · Tel. 948 630 788 · 31780 Bera



- Testu liburuak
- Bulego eta eskola materiala
- Joko hezigarriak
- Oparitzeko artikulua

ONGI PASA BESTAK!

Kanttonberri, 4 BERA Telefonoa eta 948 630 626 papeleriaigone@gmail.com

Zalain

JATETXEA RESTAURANTE



**BESTETAN LASAI IBILTZEKO
GARRAIO ZERBITZUA ESKAINTZEN DUGU
21:00-01:00
TXUPINAZO EGUNEAN EGUERDIAN ERE BAI**

Zalain Auzoa z/g 31780 Bera - Nafarroa
t. 948 631 106 w. www.zalain.com



ongi
pasa
bestak!!

Sara Kafetegia

UDAKO ORDUTEGIA
(Ekainaren 24tik irailaren 1era)

Astelehenetik igandera:
07:30-13:30 | 17:00-21:00

Hurlandeta, 6 BERA · 948 625 673

ONGI PASA BESTAK!
 **ugaldea**

**AHOLKULARITZA · FISKALA KONTABLEA
ASESORIA · FISCAL CONTABLE**

Rafa Pombar Sainz

Sara karrika, 1 31780 BERA (Nafarroa)

tel 948 63 02 01 fax 948 63 02 55 e-mail asesoria@ugaldea.com

ONGI PASA
BESTAK!



◀◀◀◀ HIRUKIDE ▶▶▶▶

Eguzki panelak ▶▶ Iturgintza
Industria mantenimendua ◀
Aire egokitua ◀

T./F. 948 625 395
Alkaiaga ind. · Alasta, 4-6 Behea · 31770 LESAKA

GORA SAN ESTEBANI!

borzud

IMPRESA - HOPISTEGIA

948 631 521

material guztietan inprimatzen dugu
hamisetak / oparitzeko artikulua

Gasa
Ura
Kalefakzioa

froling

Alemanian gehien saltzen
den egurrezko galdara

ecoFOREST
markako
pelleitezko estufak

**PATXI MUTUBERRIA
ITURRIA**
Tel.: 686 23 52 30
patximutu@hotmail.com
ERAKUSKETA: Bidasoa, 45 - BERA

mendiko
JATETXEA

Sagardotegiko menua eta karta
EGUNERO IREKITA

Onge pasa
bestak!

Ibardin-BERA
www.mendikoibardin.com
+34 699 810 870

ELIZALDE

Benta | Ostua | Jatetxea

Besta on batzuk pasa!

948 631 024 | Ibardin | BERA



tuko zaio arratsalde berean. Beraz, Aurrekua bukatu eta segidan arropaz aldatu eta klarinetea hartuko du bandaren kontzertuan jotzeko. «Urte hasieran hasten gara prestatzen, eta urtean jende gehien joaten den emanaldia da», kontatu du. «Aurrekua ikustera herritar aunitz joaten dira, eta gelditzen direnek badakite gero kontzertua izanen dela». Bandarekin emanaldia bukatuta, berriz ere aurrekuko arropak jantzi, eta kalejiran aterako da. Batetik bertzera baina, «kontent» ariko da.

Txosnako prestaketak

Dantza eta musika banda aski ez, eta Barraskilo Gazte Taldeko kidea ere bada, eta beraz, baita Txosna Batzordeko kidea ere. Hor ere, bestetan baino, besta aitzineko egunetan tokatuko zaio lanean aritzea, «edaria kalkulatu behar da, txosna muntatu, musika ekipoa paratu...». Gainera, azken urteetan txosnak Altzateko

plazatik Toki Onako patiora mugituta, jende gehiago joaten dela sumatu dute. «Leku ona izan da txosnak paratzeko, kontzertuak ere hor jarrita dena batera gelditzen da, eta jende gehiago sartzeko gaitasuna dago».

Berara joaten denak, beraz, ziur karrikan aurkituko duela Artieda, dantzan, klarinetea eskuan edo txosnan lanean bertzela, baina ziur irribarrean ahoan. Eta bestak bukatuta zer? «Pare bat merkatutara joanen naiz nire produktuak saltzera, baina, saiatuko naiz abuztuan lasaiago hartzen eta atseden hartzen».

**«DANTZATZEKO
AURREKUA
GUSTATZEN ZAIT
BEREZIKI!»**

Savera
Elevator System Solutions

ONGI PASA BESTAK

Beratik mundura

Zalain auzoa, 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: +34 948 626 900 - Fax: +34 948 626 904
savera@saveragroup.com - www.saveragroup.com

The Kingdom Tower
Jeddah, Saudi Arabia
1.000 m.ko altura

Berako gidak erabiliz egina

Martiko

DASTATU TRADIZIOA

ONGI
PASA
BESTAK



BOUTIQUE MARTIKO

ASTELEHENETIK ORTZIRALERA 9:00etatik 17:00etara • WWW.MARTIKO.COM



ALBISU
HORTZ KLINIKA

Bidasoa, 2 - Bera Tel. 948 631 631



AUZO BERA
JANTZIA

Abuztuko orduategia:
9:00tatik 00:00etara

Ilkeeta 11 BERA
T. 848 177 135

Ongi pasa bestak!



larreta lanak sl

ISOLAMENDU AKUSTIKOA
PLADURRA
IGELTSU PROIEKTATUA
ISOLAMENDU TERMIKOA

Bera - Nafarroa

www.larretalanak.com - larretaigeltsua@gmail.com

Gorka Arretxea 627 225 514 • Juanen Sarolegi 637 921 299

Ongi pasa bestak!



Guillermo LARRAÑAGA doktorea
KIRURGIA KARDIOBASKULARRA / FLEBOLOGIA / LINFLOGIA

- Barizeak, prebentzioa, diagnostikoa eta tratamendua
- Kirurgia integratua teknika pertsonalizatuekin
- Tratamendu estetikoak, armiarma-barize eta malformazioena
- Ekografia kardiobaskular diagnostikoa
- Ekointerbenzionismoa
- Zainetako ultzerak, gaixotasun linfatikoak

Ongi pasa bestak!

Telefona: 610 549 507

Centro Médico Bera
San Esteban 17, Bera

«Ilusio haundiz erran nion baietz danborrada zuzentzeari»

NEKANE LASAGA DANBORRADAKO ZUZENDARIA



Esperientzia bikaina

Iaz zuzendu zuen lehenengoz danborrada, baina ez zen ohiko danborrada izan, eguraldi txarrak baldintzatu baitzuen erabat. «Iaz eguraldiak ez zigun lagundu, eta ohiko ibilbidea ezin izan genuen burutu», azaldu du. Hala ere, egunaren oroitzapen polita du. «Esperientzia bikaina izan zen; hasiera batean urduri banengoen ere, ibilbidean aitzinera joan ahala gustura, konfiantza hartuz joan nintzen eta aunitz gozatu nuen»

Aurtengorako ere gogotsu dago Lasaga, bigarren urtea izanik «lasaigo» egonen delako. «Espero dut eguraldia gure alde egotea eta behar bezala disfrutatzea», kontatu du. Horretarako, prestaketa lanean hasiak dira dagoeneko. «Nire lana, hitzak dioen bezala, danbor jotzaileak zuzentzea da: entseguak prestatzea, bandarekin koordinatzea, sarrerak eta bukaera ematea, danborraren kolpeak zuzentzea... erritmoa eramatea, azken finean», azaldu du. Bi kanta joko dituzte Herriko Etxeko plazatik Altzatera eginen duten ibilbidean: *Aupa Bera!* izenekoa eta *Berako Danborrada*.

Lehendik parte hartzaileek entsegua eginen dute, uztailaren 30ean, asteartea, 20:00etan Herriko Etxeko plazan. Lasagari bere kabuz ere entseatzea tokatu zaio besta bezperan. «Astebete lehenago edo hartuko di-

«49 urte dituen emakume beraterra, hiru seme-alaben ama eta lanbidez irakaslea». Halaxe aurkeztu du bere burua Nekane Lasagak. Baina, hori dena izateaz gain, iaztik hasita bertze kargu bat ere badu: Berako bestetako danborradako zuzendaria da. Bigarren urtez izanen du postu hori, eta gogoz eginen du egitekoa.

Iaz hartu zuen danborrada zuzentzeko ardura eta proposamena. «Bestetako batzordekide eta zinegotzi den Estitxu Pinatxok proposatu zidan», azaldu du. «Maiatz aldera danborrada zuzentzeko pertsona baten bila hasi zen eta bere deia jaso nuen. Egia erran, hasiera batean ezustean harapatu ninduen, baina gehiegi pentsatu gabe eta ilusio haundiz baietz erran nion».



IREKI
LEIHOAK

Aluminio RPT / PVC | Pertsianak | Toldoak
Itxidurak | Kontraleihoak | Barandak | Berandak

ONGI PASA BESTAK!

T. 948 630962 - H. 31780 BERA
info@irekileihoak.com · www.irekileihoak.com






GANIX
Talferra



948 63 06 69

Ongi pasa bestak!

Zalain Pol., 11 . BERA
EUROMASTER zegoen lekuan

Gora Berako bestak!

BAZKARI BEREZI
BAT? ONGI
ETORRI GURE
ETXERA



IBARDIN - DANTXARINEA - VALCARLOS



Jatetxeak
Supermerkatuak
Moda
Osagarriak
Lurrindegia
Edertasun Zentroak
Outdoors kirolak
Albaitaritza
Burdindegia

Ikusi gure karta
guztiak hemen



☎ 948 63 07 07



*Fideltasun txartelarekin
deskontuak lortu eta pilatu puntuak
zure erosketa guztietan.*

BIOK
EXPERIENTIAL SHOPPING



📷 📱 [ventabiok.com](https://www.ventabiok.com)



MEKANIZATUAK
ongi pasa bestak!
Bidasoa, 76 · BERA
T./F. 948 63 11 67

Zalain
J A N A R I A K *ongi pasa bestak!*

Zalain Ind. 42, behea. 948 631 338
zalainjanariak@gmail.com

autoeskola
ESKAINZA BEREZIAKI!
Ikastaro teorikoa nahiz praktikoa euskaraz!

- INFORMATU ZAITEZ -

Eztegara pasealekua, 26 Plaza Berria, 7
BERA LESAKA
T. 948 630 298 T. 948 638 299
e-posta: semperautoeskola@gmail.com
ongi pasa bestak!

tut partiturak batez ere bestetarako giotzeko», kontatu du.

Musika protagonista

Danborradaz harago, ordea, bertze hamaika ekitaldi izanen dira Berako bestetan, eta horietako aunitzetara joanen da Lasaga. «Zaila da ekitaldi gustukoena zein den aipatzea, baina orokorrean musika presente dagoen ekitaldi guztiak ditut gogoko», kontatu du. «Neurri haundi batean herriko bestetan musikak berebiziko garrantzitsua du, besta giro alai eta bizia sortzen laguntzen baitute».

Hala nola, Gure Txokoa dantza taldearen emanaldia, San Esteban eguneko meza kantatua, Makil Dantzak eta Aurrekua, danborrada eta arratsaldeko dantza herrikoiak nabarmendu ditu ekitaldi gustukoenen artean. «Udalak eta Besta Batzordeak bestak antolatzeko egiten duen lana guztia eskertu nahiko nuke», gehitu du.

Beraz, danborradan zuzendariaren makila eskuan, zein musika protagonista den bertze ekitaldietan, ziur bestetako musika doinuez gozaten izanen dela Lasaga.



Zurekin DISEINUAK

Kanttonberri, 3
BERA
Tel: 722 52 14 71

KANPO NAHIZ BARNE DISEINURAKO BEHAR DUZUNA, ETORRI IKUSTERA KONPROMISORIK GABE!

SUKALDEAK, LURRAK, ARMAIRUAK, ATEAK, TEILATUAK, EGURLANAK...



GREMIOEN KOORDINAZIOA
Sunbilla (Nafarroa)

Etxebizitza berriak · Zaharbertitzak · Erreformak · Konponketak · Teilatuak
Harri eta hormigoi lanak · Mota guztietako igeltseritza lanak



JAVIER IBARRA ERAIKUNTZAK

669 122 815
javieribarra@ibarraeraikuntzak.eus

«Besta parte hartzeko gustatzen zait, ez ikusteko»

ALBERTO RETEGI MUSIKARIA ETA MUSIKAZALEA



Ezinbertzeko elementua izaten da musika Berako bestetan, eta inportantzia berezia hartzen duite txistu doinuek zein bandarenek. Bietako parte da Alberto Retegi. Abokatua ofizioz, musikazale amorratua da eta txistulariekin zein bandarekin klarinetea jotzen aritzen da herriko bestetan zein bertzelako ekitaldietan. Aurten ere hor izanen da txistua jotzen egun batzuetan, eta klarinetea eskuan bertzeetan, baina beti musikaren bueltan.

Haurra zeneko bestetako lehen oroitzapenak ere musikarekin lotu ditu: «Erraldoiez eta buruhandiez oroitzen naiz, eta baita bestetan jotzen

zuten orkestrez ere: Beotibar eta Alegria. Aste osoan egoten ziren Beran, eta txaranga lanak ere egiten zituzten». Geroztik, ordea, aunitz aldatu dira bestak, eta baita Retegik bestak bizitzeko duen manera ere: «12-13 urte nituela hasi nintzen txistua jotzen karrikan, eta bestak ekitaldi ofizial gisa bizitzen nituen», azaldu du. Lanean, gainera, libre ematen zioten: «Txistulari gutti izaten ginen, eta Ibardinen lanean aritzen nintzenez, libre ematen zidaten herrian jotzeko», azaldu du.

Josu Goia zenarekin ikasi zuen txistua jotzen Retegik. «Josu Zalain Zokoko eskolara joaten hasi zen bertan makil dantzak erakustera, eta ni dantzaria nintzenez, berarekin joaten nintzen erakustera. Haurrek arreta gehiago jartzen zioten txistuari eta horrela hasi nintzen ni ere». Josu Beran erakusten hasi zen, eta bertan segitu zuen Retegik ikasten. «Josuk justukoa zekien, baina, guk ez genion inportantzia haundirik ematen horri, inportanteena zarata pixka bat ateratzea zen eta lau kanta jotzea».

1977-78 urteen bueltan, herriko bestetan egitaraua aldatzen hasi ziren, eta talde horretako kideetako bat izan zen Retegi: «Indar Trabes taldea ekarri genuen, gerora Itoitz izanen zena,



T.F: 948 631 557
Helbidea: Ziobi, 3 ALKAIAGA
posta: maziziorsenper@gmail.com

**EDARIEN
eta
JANARIEN
SALMENTA
eta
BANAKETA**



Ongi pasa bestak!

Tel. 948 630 180 - Altzate 28, BERA



Ongi pasa bestak!



matxako
KALEFAKZIOA · GASA · ITURGINTZA
Tel.: 609 808 756 | BERA

Iturgintza lanak
Berokuntza mota guztiak
Galdaren instalazioak

"Baxi" markan eskaintza berezia.
Eskatu aurrekontua

BAXI
LA NUEVA CLIMATIZACIÓN



PAGOLA
Harategia

ONGI PASA BESTAK!



Altzate Plaza, 2 · Bera · T.948 63 00 54 ☎ 722 84 12 85
www.carniceriapagola.es



ANDONI LASAGA APEZTEGUIA
T. 637 40 86 40 · 31780 BERA
andonimatxako@gmail.com

ONGI PASA BESTAK!





Poi.Ind.Zalain, nave 4, local 5, 1ª planta
31780-Bera
Tel: 948630132
e-mail: info@beranet.es

Telefonia eta zuntz optikoko operadorea Beran



MUGIKORRA 40GB
8'95€/hilean
BEZa barne



MUGIKORRA 80GB
9'95€/hilean
BEZa barne



MUGIKORRA 120GB
11'95€/hilean
BEZa barne



ZUNTZ OPTIKOA 300Mb
26'95€/hilean
BEZa barne

Gure tarifa guztiak www.beranet.es webgunean daude

Alberto RETEGI
abokatua
 © 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

txepetxa
 ALBAITARITZA KONTSULTA
 CONSULTORIO VETERINARIO
 ongi pasa bestak!
 Legia, 21 - BERA 948 631 362 | 688 723 460

RECACOR
 BERA
Ongi pasa bestak!
 Zalain industrialdea, 5
 Tel. 948 48 71 91



eta dantza taldean ere aldaketa haundi xamarra izan zen, bestetan jaialdia egiten hasi ginen eta urte batzuk beranduago danborrada antolatzen». Garai bertsuan hasi zen klarinetea ikasten ere. «Klarinetea erosi nuen inoiz instrumentu hori ikusi gabe. Momentu horretan ordaintzen ahal nuen bakarra zen, eta Javier Igoarekin Lesakan klase batzuk egin eta neure kabuz segitu nuen ikasten».

Hasi bazen hasi, geroztik klarinetea astintzen segitu du. «42 urte inguru nituela itzuli nintzen Berara bizitzera, eta musika eskolan hasi nintzen klaseak hartzen. Esperientzia hagitz-hagitz ona izan da musika eskolan ikastearena». Garai berean hasi zen Berako Bandan jotzen ere: «Bandakoek kanpaina bat egin zuten musika instrumenturen bat jotzen genuenak bertara animatzeko, eta geroztik bertan segitzen dut. Sekulako esperientzia izaten ari da».

Geroztik pianoa ikasten ere aritu da, eta baita akordeoiarekin ere. Hala ere, klarinetea eta txistua ditu maiteen eta horiek dira karrikan jotzen ditue-

nak ere. Hala ere, dioenez, hemendik aitzinera ez du bertze instrumenturik ikasteko asmorik, nahikoa omen du orain arte jotzen dituenekin.

Bandarekin, urtean sei bat emanaldi egiten dituzte denera: «Udalarekin hiru ditugu adostuta, eta bertze batzuk ere egiten ditugu gure kabuz», azaldu du. Aurten, erraterako, udaberriko kontzertua egin dute, eta hagitx gustura dago emaitzarekin: «Guretzat aukera ederra izan da abuztukoaz gain bertze kontzertu bat egiteko, eta jendea ere gustatu zitzaien, jende aunitz etorri zen». Bestetan abuztuaren 3an emanen dute kontzertua, eta danborradan ere aterako dira.

«KLARINETEA EROSI NUEN INSTRUMENTUA EZAGUTU GABE»

zure ideia "bitxi" bihurtuko dugu.

 ONGI PASA BESTAKI
Kalash
 Bitxi-denda | Erloju-denda
 Kanttonberri, 6 BERA | 948 630 751
 Merkatarien Karrika, 7 DONEZTEBE | 948 451 519

Lebe Zar

OGIA PIZZAK ENPANADAK ALEAJOREAK PRENTSA...
 Eztegarra, 18 - BERA
 848 410 115

Berako udalak besta zoriontsuak opa dizkizue



B E R A

Gora Berako bestak





LA MAISON DU JAMBON

*Izan zaituz gonbidaturik
onena aurtengo bestetan!*

ESKATU NAHI BEZALA MOZTUTAKO
URDAIAZPIKO BEREZIENA



*Iberikoak, Erreserba, Erreserba Haundia,
Gizendutako zerriarena, Ezkur urdaiazpikoa
hezurrarekin edo hezurgabetua, ...*



IBARDIN

info@maisondujambon.es
Tel. 948 790 121 - 622 507 252



Fideltasun txartelarekin
deskontuak lortu eta pilatu puntuak
zure erosketan guztietan.

BIOK
EXPERIENTIAL SHOPPING

  ventabiok.com



**LARRETXEAK
EGYRRAK**

Zuhaitzak erosi, bota eta ateri

Piketeara eta sutarako egurra



Ongi pasa bestak!!

Pio Baroja, 15 | Bera | T. 617 981 427

FONTANERIA



Carlos Pacheco

**ENERGIA
BERRIZTAGARRIAK**

Legia, 19 - BERA Tel: 637 151 170

LORE SORTAK
LORE-LANDARE KONPOSIZIOAK
NATURALAK ETA ARTIFIZIALAK

ZU lorendena
dekorazioa
osagarriak

Altzate, 33 31780 BERA zuloredenda@hotmail.com
Tel.: 948 625 786

**ZENTRU
LOGOPEDIKO-PEDAGOGIKOA**

Nekane Ordoki Gonzalez

ongi pasa bestak!

- Ahozkapen zailtasuna ("erre" gaizki esana, "ceceo"-a...)
- Gauzak kontatzeko zailtasuna
- Irakurketa arazoak
- Idazketa arazoak
- Toteltasuna "tartamudeo"
- Ahots arazoak
- Arnasketa arazoak

Euskaraz/Erdaraz 646 894 332 BERA

Entseguak maiteen

Urte aunitz badaramatza ere txistua zein klarinetea jotzen, aunitz ere nahiago du entseatu karrikara atera baino. «Hagitz urduri jartzen naiz». Berriki, gainera, txistu taldean silbotea jotzen ere hasi da, eta pozik dago eginkizun horrekin. «Gaur egun ez, baina duela urte batzuk arte txistua bestarako aitzakia ederra izaten zen. Ekitaldiren batera txistua jotzera joan, eta ostatuak itxi arte ibiltzen ginen jotzen. Errekalde ostatuokoei meritu ederra dute gu hain-

bertze aguantatzeagatik», kontatu du barre artean.

Aurten ere hutsik gabe ariko da bestetan. «Orain erren nago eta karrikabueltan ateratzea gehiago kostatzen zait, baina badut intentzioa ateratzeko». Izan ere argi du: «Niri besta parte hartzeko gustatzen zait, ez ikusteko».

Beraz, herriko bestetan musikariak dauden ekitaldi denetan, hantxe izanen da Retegi klarinetea edo txistua eskuan bestak musikaz bizitzeko gogoz.



asegi asesorías Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6 31700 ELIZONDO T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22 31780 BERA T. 948 631 108

Eliza Kalea, 22 31740 DONEZTEBE T. 948 450 395 · F. 948 451 304

Eltzeta, 20 31770 LESAKA T. 948 638 077

BERAKO BESTETAKO MENUA 2024

BERA. Iberikoak, foie-blokarekin eta tosta kurruskariekin.

LESAKA. Ganboiak plantxan.

IGANTZI. Lupia solomoa barazkitxoekin plantxan eta saltsa berde bereziarekin.

ETXALAR. Masail iberikoa ardo beltzean patata-purearekin.

ARANTZA. Mango-mousse tarta eta hur-izozkia.

**NAFARROAKO JATORRI-IZENDAPENEN ARDOAK
URA eta KAFEA (BEZa BARNE)**

PREZIOA: 40 €

Etia bazkaldondoa ongi bukatzeko LENKONEA konbinatu bereziak 6,50€ (marka estandarak)

Hotel Churrut
HOTEL ***

Churrut hoteleko jatetxea (LENKONEA)

Foruen plaza | BERA (erdian)
T. 948 625 540 · T. 948 625 542
www.hotelchurrut.com

SUNBILLAKO BESTAK

2024



Egitaraua

Abuztuak 9, ortzirala

18:00etan, XI. Goitibehera Jaitsiera. **21:00etan** giza proba (zubi berrian). Sei pertsonako taldeak osatuta, 600 kiloko harria tira beharko dute 15 minutuko txandetan. **23:00etatik 05:00etara** AntroRock: Arekan, Modus Operandi eta The Yurrouz Brothers taldeen.

Abuztuak 10, larunbata

12:00etan suzuria Herriko Etxetik, erraldoiek, buruhandiek, Elizondoko gaiteroek eta Elutxa Txarangak alaiturik. **18:00etan** profesionalen arteko pilota partiduak. **19:30ean** trikitilarien kalejira Irulegi trikitixa eta pandero eskolako ikasleen eskutik. **21:30ean** zopak Ulibeltzak elkartean Elutxa Txarangak alaiturik. **Gauean** dantzaldia Gabezin taldearekin.

Abuztuak 11, igandea

09:30ean diana Elizondoko gaiteroekin. **11:00etan** meza. **12:15etan** Sunbillako dantzarien emanaldia eta ondoren luntxa plazan. **17:30etik 19:30era** marrazketa Masterclassa. (Sei urtetik aurrera. 10 euro ordaindu behar dira). **18:00etan** muxikoak



plazan. **18:30ean** XXI. Ramon Latasa Saria. **21:00etan** suzko zezena plaza inguruan. **20:00etatik 22:00etara** dantzaldia Beñat eta Fernandorekin.

Abuztuak 12, astelehena

10:00etan diana. **11:00etan** plater tiroketa Olegi parajea. **11:30etik 13:00etara** erraldoi eta buruhandien kalejira Elizondoko gaiteroek alaiturik. **13:30ean** bazkaria guraso elkar-teak antolatua (izen ematea Bustitz eta Fonda ostatueta). **Bazkalondoa** apar festa Harbiztin. **18:00etan** gaztetxoan pilota partiduak eta frontenis txapelketako finalak. **19:30ean** tortilla eta postre lehiaketa. **Ondoren**, pintxo dastaketa eta sagardoa Lekueder karrikan. **21:00etan** suzko zezena Harbiztin. **Arratsaldean eta gauean** Bizpahiru Pelau taldearekin musika.

Abuztuak 13, asteartea

10:00etan diana. **Goizean eta arratsaldean** Txu-txu tren. **12:00etan** boneta eta zapatil tiraketa plazan. **14:00etan** kuadrillen bazkaria Ulibeltzak Elkartean. **Bazkalondoa** ura-ura Jaiak Txarangak alaiturik. **20:00etan** Arno ganadutegiko betizuak Ulibeltzak Elkarte pareko belagian. **20:30etik 02:00etara** dantzaldia J&J Djarekin. **21:00etan** suzko zezena plaza inguruan.

Abuztuak 14, asteazkena

10:00etan diana. **10:00etan** mus txapelketa. **10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara** Haurrendako Jokoak. **19:00etan** toka, aitzur eta zartagin jaurtiketa, igerileku ondoko belagian. **20:30ean** suzko zezena plazan. **21:30ean** herri afaria Ulibeltzak Elkarteak antolatua. **Afa-londoa** Chuchin Ibáñez eta **gauean** Modestorekin.

larreta lanak sl *Ongi pasa bestak!*

ISOLAMENDU AKUSTIKOA
PLADURRA
IGELTSU PROIEKTATUA
ISOLAMENDU TERMIKOA

Bera - Nafarroa

www.larretalanak.com - larretaigeltsua@gmail.com

Gorka Arretxea 627 225 514 • Juanen Saralegi 637 921 299

BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
KONKATZEMEN GUREA
SOLARTIA
ERREZI PANELAK

Ongi pasa bestak! 948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 59 65

Zalain Ind., 42 Bera.

SUNBILLAKO UDALAK
Besta zoriontsuak opa dizkizue
sunbildar eta bisitari guztioi
GORA SAN TIBURTZIO !

IRURI MOTOR

Aukerako autoak
Turismo eta furgoneten salmenta
4x4 autoetan modelo guztiak | Salerosketa zerbitzua

ONGI PASA BESTAK!

T. 948 450 399 · 620 950 687
Iruña-Irun errep. zaharra | SUNBILLA

ONGI PASA BESTAK!

ALTZURI
MENDI LANAK - GARRAIOA
31791 SUNBILLA
altzuri@gmail.com
www.altzuri.com
M. 699 461 394

SU EGURRA - PIKETEAK
GARRAIOAK - ITXITURAK
GARBITZE MEKANIKOAK
EGUR ATERATZEAK - ESKABAZIOAK

BIDASOA
GURPIAK - GASOLINDEGIAK
1993 ORTUA

609 446 693
948 625 663
bidasoa@neumaticosbidasoa.es

Alkaiaga Industrialdea
Ziobi kalea 6 - LESAKA

Ongi pasa bestak!

ukulu
inmobiliaria

Lekueder karrika 16, Sunbilla
667 547 445 | xuban@ukulu.es

JANARI - JENDA

MARISOL ONGI PASA BESTAK

JANARIAK | TABAKOA | DROGERIA | LOTERIA | PRENTSA
Kale Nagusia 7, 31790 SUNBILLA | T 948450608

Bustitz *Ongi pasa bestak!*
ostatua

PINTXOAK • RAZIOAK • BOKATAK
HAMAIKETAKOAK • KAXULAK

T. 948 627 919 - Leku Eder - SUNBILLA

Ongi pasa bestak!

FONDAOSTATUA

DONIBANE, 7 SUNBILLA

Etxebizitza berriak • Zaharberritzeak • Erreformak • Konponketak • Teillatuak
Harri eta hormigoi lanak • Mota guztietako igeltseritza lanak

JAVIER IBARRA ERAIKUNTZAK

669 122 815
javieribarra@ibarraeraikuntzak.eus

GREMIOEN KOORDINAZIOA
Sunbilla (Nafarroa)

«Lana norberak egin behar duenean gauzak desberdin ikusten dira»

SUNBILLAKO GURASO ELKARTEA ZUZENDARITZAKO KIDEAK



Herriari bizia emateko beharrezkoak izaten dira, isilean, inurri lanean aritzen diren herritarrak. Sunbillako guraso elkarteko kideek badakite horri buruz zer bait; urtean zehar herrian izaten diren ekitaldi asko antolatzeko ardura bere gain hartua dutelako.

Bortz dira Sunbillako Guraso elkarteko zuzendaritza batzordeko kideak: Kristina Loiarte, Amaia Gartzia, Larraitz Martin, Oihane Etxart eta Asier

Zugarramurdi. Batzordean aurten sartu dira lehenbiziko hirurak eta iaiztik ari dira lan horietan bertzeak. Horrela, ezagutzak elkarbanatuta, hasten dena ez da hutsetik hasten: «gure artean ardurak banatuak ditugu eta edozein arazo, zalantza... dugunean taldekoen babesa izaten dugu».

Aurten eman behar dute batzordeko beteranoek erreleboa eta bi kide berri sartuko dira: «nahiz eta lana

JAVI PETRIRENA

ITURGINTZA ETA ELEKTRIZITATEA

- ITURGINTZA - BEROKUNTZA
- EGUR ETA PELLETEZKO GALDARAK
- GASA
- AEROTERMIA
- EGUZKI PLAKA FOTOVOLTAIKOAK
- INSTALAZIOEN FINANTZAKETA %0
- INSTALATZAILA BAIMENDUA

Ongi pasa bestak!

T: 679 35 49 47- jpinstalazioak@gmail.com

izan sortzen den lan taldea eta giroa arras polita da eta bertan sartzera animatu nahi ditugu».

Guraso guztiek noizbait egin beharreko ariketa dela uste dute: «kanpotik ikusita ez duzu baloratzen egiten dena edo ez dirudi horrenbertzeko lana denik, baina orain barruan egonda gauzak desberdin ikusten dira». Hori dela eta, esker hitzak baino ez dituzte beraien aitzinetik zuzendaritzako lanetaz arduratu diren gurasoentzat: «goraipatzekoa da aurrekoak egindako lana». Eta kontuak ateratzen hasita, ez dira gutxi izan: «ez dugu inon jasoa zein izan zen elkartea sortu zen urtea, baina lehenbiziko akta 2008ko otsailekoa dela ikusi dugu». Horren arabera, hamasei urte, behintzat, izanen lituzke guraso elkartek.

Herriko haur eta gaztetxoek egunekoan eragina duten kontuak dira egiten dituzten lanetako batzuk: «jangela kudeatzea, guraso elkarteko kontuak eramatea, udako ludoteka antolatzea...», baina batez ere, herriko zenbait ekitaldi antolatzeko orduan egiten duten lana azpimarratu dute: «Eguberriak, Asteburu Kulturala, San Joan sua, bestetako bazkaria...». Horiekin badakite haurrei ongi pasatzeko aukera ematearekin batera, herriko kultura eta ondarea ere babesten ari direla.

Ekitaldi bakoitzak ekintza zehatz batzuk prestatzea dakar: «Eguberrietan, Olentzerorekin ibilaldia egiten dugu eta txokolate jana prestatu. Asteburu kulturalen haurrentzako jokoak prestatzen ditugu, koltxonetak, gauean bokata jana eta igandean

Zumalekura irteera. Aurten eskolarekin batera eski irteera ere antolatuko dugu Izabara eta azkena egindakoa, San Joan bezperako bokata jana eta sua izan dira».

Suaren azken txinpartak itzali aurretik, hasiak ziren bestetako lanak aurreratzen: «haur eta gurasoen bazkaria antolatzen dugu eta bazkariaren ondorengo apar besta egiten da. Beste egun batean, haurren egunean, koltxonetak eta txu-txu trenarene antolatzen ditugu eta suzko zezena ere antolatzen dugu gauetan».

Kamisetak salgai

Ez da besten bueltan egin duten ekintza berezi bakarra. Herritarren soinean ere nabaritu da guraso elkartearen seinalea: «duela bi urte kamisetak egin genituen eta aurten berriz egitea pentsatu dugu familiek ordaintzen duten kuotaz gain, diru iturri interesgarria delako». Gainera, haurrei eman diete prozesuan parte hartzeko aukera: «kamisetan jartzeko marrazki bat behar genuen eta ikasleak ibili dira artista lanetan. Eskolarekin harremanetan jarri ginen eta haur guztiek izan dute beraien marrazkia egin eta aurkezteko aukera. Egindako lan guztien artean, Aurkene Iturraldearen marrazkia aukeratu dugu bestetako giroa ongi erakusten zuela pentsatu dugulako». Nahi duen orok eskura dezake orain kamiseta eta salmentatik lortuko duten dirua: «urtean zehar haurrentzat antolatzen diren ekitaldiak ordaintzeko erabiliko dugu». Ttikien aurpegietan irribarreak marraztu bidenabar, herriari bizia ematen segitzeko.



sasoi
eraikuntzak

ONGI PASA BESTAK!

SUNBILLA (NAFARROA)
T.: 948 451 596
info@sasoi.eus

Lizun
GAZTANDEGIA

ONGI PASA BESTAK!

Sunbilla · Tel: 948 450 862

Espelosin
Construcciones · eraikuntzak

- Eraikuntza berriak
- Zaharberritzeak
- Teilatuak

Eta gehiago ...

ONGI PASA BESTAK!

SUNBILLA · 619 416 959
www.espelosin.com

f t

ONGI PASA BESTAK!

CAMPING · KANPINA

ARIZTIGAIN
RESTAURANTE · JATETXEA

BOKATAK
AUKERA ZABALA
Eskatu eramateko!!

- PINTXOAK
- RAZIOAK
- HANBURGESAK
- SANDWICH-AK
- PLATER KONBINATUAK
- MENUAK
- ASTEAN ZECHAR

31791 SUNBILLA
948 450 540 | 660 798 249 · 636 488 300
info@campingariztigain.com
www.campingariztigain.com

ongi para pestaki
AINART
 ileapaindegia
 Elbarren, 67 behea LEITZA · 948 510 197

Arzallus
HARATEGIA
 Txistorra eta artisau produktak, etxean eginak
 Elbarren, 37 · LEITZA · Tel. 948 510 377

BEATRIZENEA
TABERNA-JATETXEA
 Ongi pasa pestak!
 menua · otartekoak · kaxuelitak · pintxoak
 Mikel Deuna, 2 · Tel: 948 510 991 · LEITZA

ONGI PASA PESTAK!
MAIMUR
 · Prentsa · Opariak · Testu liburuak
 · Plastifikatzeak · Enkuadernatzeak
 · Inprenta lanak · Fotokopiak
 Elbarren, 15 - Herriko Plaza · LEITZA
 maimurleitza@gmail.com · T/F: 948 510 146

Bi Lagun
 Inurrista ind.P-2
 31880 LEITZA
 T. 948 610 985



MAXI VICENTE
ERAIKUNTZAK
 ongi pasa pestak!
 Amazabal, 17 · LEITZA · 606 307 810

ARIZTIMUÑO ANAIK
ERAIKUNTZAK
 ONGI PASA BESTAKI



Landa Ind. 19 · 31880 LEITZA
 M. 648 610 648 · 618 709 668 F. 948 510 693
 construccionesariztimuno@gmail.com



Egitaraua

Abuztuak 3, larunbata

14:00etan, eskelarien bazkaria Aurrrera elkartean. **16:00etan** auzoz auzo, programaren banaketa: trikitilari, txistulari, akordeoilari eta dultzaineroen laguntzarekin.

Abuztuak 4, igandea

09:00etan diana txistulariekin. **10:00etan** korporazio txikiak udal ordezkarietara gonalduko du. **10:30ean** txupinazoa. **Ondoren**, gurgildun zezenen entzierroa. **11:00etan** Aurrrera pilota eskolako txikien partidak plazan. **11:30ean** Jokai jolasak plazan. **17:00etan** Leitzako konpartsa plazatik abiatuko da. **18:30ean** Aurrrerako dantzari txikien emanaldia eta ondoren umeen ingurutxo plazan. **Ondoren**, goxokiak banatuko dituzte. **20:30ean** Mikeltxi DJ. **Ondoren**, suzko zezena.

Abuztuak 10, larunbata

13:00ean manifestazioa plazatik Sare herritarrak deituta. **13:30ean** kantujira Kuxkulturekin. **14:30ean** kantu bazkari herrikoa karrapean. **18:00etan** txupinazoa eta programa azalen irabazleei saria Kaxkabeltza eta udalaren eskutik. **Ondoren**, kalejira txistulariekin, Incansables txarangarekin, Leitzako eta Mendillorriko konpartsekin eta dultzaineroekin. **18:30ean** La jodedera Labetxeko atarian. **22:00etan** suzko zezena. **23:00ean** Itzal erromeria taldea. **Ondoren**, Incansables txarangarekin gaueko erronda eta Fresa Morango DJ plazako txosnan. **00:00etan** tekno gaua Atekabeltzen.

Abuztuak 11, igandea

08:00etan diana txistulariekin. **09:00etan** entzierroa eta behiak plazan. **10:30ean** meza San Migel parrokiaren. **11:00etan** hamaiketako irekia karrapean. **12:00etan** ezpata dantza. **13:00etan** Incansables txarangarekin erronda. **17:30ean** zezenak plazan. **19:00etan** herri kirolak plazan. Txingekin: Kerman Perez de Heredia eta Nerea Egurrola. Harria jasotzen: Ane Zestau eta Itsaso Treku. Aizkoran: Jon Rekondo eta Xabat Olaizola. Aizkoran errekor bila: Malen Barrenetxea. **19:00etan** bakarriketa saioa Atekabeltzen Maria Blanco eta Iker Plazaolarekin. **Ondoren**, goxokiak banatuko dituzte. **19:30ean** Incansables txaranga eta buruhaundiak aterako dira. **21:00etan** ingurutxo. **22:00etan** suzko zezena. **23:30ean** Alarma morea eta Sodaderen kontzertuak. **Ondoren**, Incansables txarangarekin erronda. **01:00 aldera** Euskal Rock erradikalaren gaua plazako txosnan.



Abuztuak 12, astelehena

08:00etan diana txistulariekin. **09:00etan** entzierroa eta behiak plazan. **11:00etan** apar festa. **12:00etan** pilota partiduak Amazabalen. Lau lurraldeetako emakume txapeldunak: Garai eta Erasun, Zabaleta eta Gaminderen aurka. Leitzako afizionatuak: Goikoetxea eta Alduntzin, Txoperena eta Santamariaren aurka. **13:00etan** paella jana karrapean eta Incansables txarangarekin erronda. **17:00etan** Tokan2 La Polla Labetxe atarian. **17:30etan** zezenak plazan. **19:00etan** Aurrerako dantza taldearen emanaldia plazan. **Ondoren**, goxokiak banatuko dituzte. Bertso poteoa eta Incansables txaranga eta buruhaundiak. **22:00etan** suzko zezena. **23:00etan** Los Tenampas mariatxi taldea. **Ondoren**, Infernu DJ plazako txosnan. **00:00etan** Atekabeltzen: Hiuzz, Ithaka eta **ondoren**, Puff DJ eta Laberi DJ. Herrian Incansablesen erronda eta **03:00etan** ingurutxoak plazan.

Abuztuak 13, asteartea

08:00etan diana txistulariekin. **09:00etan** entzierroa eta behiak plazan. **11:00etan** Leitzako konpartsa. **13:00etan** txakolin dastaketa eta Incansables txaranga karrapean. **16:30etan** zezenak plazan. **17:30etan** bertsolariak plazan: Andoni Egaña, Nerea Ibarzabal, Saioa Alkaiza, Aitor Sarriegi eta Joanes Illarregi. **18:30**



aldera goxokiak banatuko dituzte plazan. **19:00etan** pilota partida profesionalak: Iturriaga eta Agirre, Arrieta eta Mendibururen kontra eta Artola eta Albisu, Peña eta Mariezkurrenaren kontra. **19:30ean** suzko zezena. **22:00etan** herri afaria. **00:30 aldera** Incansablesekin gaueko erronda.

Abuztuak 14, asteazkena

08:00etan diana txistulariekin. **09:00etan** entzierroa eta behiak plazan. **11:00etan** ur txirrista Errekaldeneko atarian. **13:00etan** Incansables txarangaren erronda. **14:30ean** gazte bazkaria karrapean. **Ondoren**, bingo musikatua eta mojitada. **Segidan**, gazteen argazkia. **16:00etan** ur txirrista. **17:30ean** gazte jokoak plazan. **18:30ean** 3indarrook Elektrotxaranga. **20:00etan** goxokiak banatuko dituzte. **Ondoren**, Incansables txaranga eta buruhaundiak. **22:00etan** suzko zezena. **00:00etan** Esne beltza. **Ondoren**, Zaze DJ plazako txosnan. **01:30 aldera** Incansables txarangaren erronda. **02:00etan** Remy DJ Atekabeltzen.

Abuztuak 15, osteguna

07:50ean gazte gaupaseroen argazkia. **08:00etan** diana txistulariekin. **09:00etan** entzierroa eta behiak plazan. **10:30ean** Leitzako konpartsa. **12:00etan** herri kirolak plazan. Aizkoran: Igoin Pikabea eta Jon Zaldia, Oier Mitxelena eta Beñat Senosiainen kontra. **13:00etan** Incansables txaranga. **14:00etan** jubilatuen bazkaria. **14:30ean** Aurrerako bazkideen bazkaria. **17:30ean** entzierroa eta behiak plazan. **19:00etan** helduen ingurutxoak plazan. **Ondoren**, goxokiak banatuko dituzte eta Incansables txarangakoak eta buruhaundiak aterako dira. **20:00etan** Trikindantz eta atsedendaldiaren ondok, **23:00etan** bigarren saioa. **00:30ean** Gaixoa ni Incansables txarangarekin.

KK kide
Abokularriz

bai euskarari
Zerbitzua euskaraz

Ongi pasa pestak!

KONTABILITATEA
ZERGAK
AUTONOMOAK
ENPRESEN SORRERAK
ERRENTA AITORPENAK
AHOLKULARITZA JURIDIKOA
NOMINAK, KONTRATUAK,
ESKRITURAK TRAMITATZEA: HERENTZIAK,
LOKALAREN SALEROSKETAK...

LEITZA: Landa Ind. 18 - 1 · T. 948 510 990
DONOSTIA: Tolosa hiribidea, 5 - 2 · T. 943 42 03 48
izaskun@kide.eus · www.kide.eus

ULI-ZAR
Iturgintza

ITURGINTZA | BEROKUNTZA
GASA-GASOLIOA | MOBLEAK
MANPARAK | KOMUNERAKO OSAGARRIAK

pesta zoriontsuak igaro!

Tel. 647 525 516 • ARESO | LEITZA
arkaitzareso@gmail.com

LEM LEIMEN S.L.

Era guztietako elektrizitate lanak

LEITZA 628 725 396 Argoitz
MENDILLORRI 628 725 397 david

Jai zoriontsuak denoi!!

PERITZA
TABERNA

Pesta onak pasa eta txintxo ibili!

Leitzako pestetan herria beti garbi!

traeco
ingurumena · medioambiental

www.traecomedioambiental.com

MASAJISTA Pestak gozatu!

ZEURE BURUARI DENBORA ESKAINIZ ZAINDU
Zatoz masajea hartzera!
 Egunerokoak eragindako minak eta gainkargak artatu eta karga lasatzera

Elbarren kalea, 43, 2. Alifnea Tel. 646 568 753

ZORTZIKO
 LEITZA - 948 510 720
 ONGI PASA PESTAK!

Melo ONGI PASA PESTAK!!!
Pinturak koop.
 T. 609 873 178
 LEITZA
 www.pinturasmelo.com
 melopinturas@hotmail.com



LEITZELARREA S.L.
 Aroztegi eta Galdereria
 ONGI PASA PESTAKI
 Landa Beikoa Industrialdea, 20 • LEITZA
 T. 948 510 598 M. 669 368 991

AISLAN, s.l. POLIURETANOZKO
 BABES ETA
 INJEKZIOZKO
 ISOLAKETA
 ONGI PASA PESTAKI
AISLAN-LEITZA, s.l.
 618 915 943
 Santa Luzia pasealekua, 4 B Behea - Butintxuri - IRUÑA
 aislanleitza@yahoo.es

DENAUTO SAGASPER
Tailerra
 ONGI PASA PESTAKI
 AUTO KONPONKETA
 Eluseder Ind. • ARESO • T 948 510 610 • F 948 510 917

EXPLOTACIONES FORESTALES
ZUBILLAGA SARALEGUI, S.L.

 Oihan aprobetxamenduak
 Bertako eta kanpoko zur-biltegia
 Egurra aireko kable bidez ateratzen dugu
 Oihanberritze lanak
 Zur-salmenta, eskabazioak, garraioa
 Landa Ind. I eta II • LEITZA
 Tfnoa: 948 510 214 • Faxa: 948 510 841
 M: 606 949 130 - 606 949 131
 info@zubillagasaralegui.es

«Edozein herritako pestetan erlojurik gabe ibiltzea da hoberena»

XABIER GARTZIA AZPIROTZ LEITZAKO GAZTEA



«txikitatik natura asko gustatu izan zaidan arren, institutu garaian letren munduan murgildu nintzen. Egutero tartetxo bat bilatzen dut irakurtzeko eta antropologia, politika, historia... horrelako gaiak gustatzen zaizkit». Gustatu eta probatu ere bai: «hamasei urterekin sartu nintzen Nafarroako Gazte Parlamentuan. Hiru legealdi egin nituen eta azkeneko legealdian mahai-ko lehendakari bezala aritu nintzen». Aitortu du: «betidanik gustatu zait saltsa».

Dena den, afizioen inguruan galde-tutakoan bada beste guztien artetik nabarmetzen duen bat: «betidanik gustatu izan zaizkit azientak, seguraski gure amona zenari esker. Hamabi bat urterekin hasi nintzen Euskal Oiloa arrazarekin, elkartean sartu nintzen eta monografikoetan lehiatzen hasi nintzen. Hamasei urterekin erosi nuen nire aurreneko behorra, beranduago behi batzuk ere erosi nituen, eta geroztik azienten mundua da nire pasiorik haundiena».

Baserria

Baserria eta politika, biak uztartzeko aukera izan du Leitzako Udalean. Azaldu du baserrian auzolanaren garrantzia erakutsi diotela betidanik, eta hala eman zuen azkeneko udal hauteskundeetan zinegotzi izateko pausoa: «zinegotzi etapa hau auzolan bezala bizitzen ari naiz». Mikel Zabaletaren telefono dei batekin hasi zen guztia: «Mikelek deitu zidan telefonoz, nire urtebetetze egunean gainera, gauza bat komentatu nahi zidala eta kafe bat hartzeko gelditu ginen. Deia arraro xamarra egin zitzaidan, baina banekien beste herrietan zerrendak osatzen hasiak zirela, eta berehala ohartu nintzen proposatuko zidanaz. Gehiegi pentsatu gabe baiezkoa esan nuen».

Ingurumena, EBK, lehenbiziko sektorea eta elikadura burujabetza eta gazteak dira bere gain hartu ditue ardurak. Udal taldeari zer eskaintzen dion

Sorterria bezain garrantzitsua izan daiteke sustraiak errotzen diren tokia eta horren adibide da Xabier Gartzia Azpirotzek bere burua deskribatzeko aukeratu duen esaldia: «Iruñean sortutako leitzarra naiz».

Iribarre bat ezpainetan eta solase-rako patxada hartzen duten horietako da Xabier eta horregatik, bere izaera definitzerakoan, barre artean aitortu du: «askotan esan didate plaza gizona naizela eta agian arrazoi izanen dute». Horretan zeresana izan du bere lanbideak: «hemezortzi urte bete nituenetik herriko enpresa batean aritu naiz jende aurrean lanean. Hainbeste ordu jende artean pasatzeak baditu bere alde onaketa txarrak, baina arlo pertsonalean oso aberasgarria da». Txikitik oso lotzatia omen zen, «hitz egiten ere ez nintzen ausartzen, baina denborarekin ikasi du bere burua irekitzen: «horrelako lanpostu batean mota guztietako pertsonekin tratatzea tokatzen zaizu, jende asko ezagutzen duzu eta harreman politak sortzen dira». Gaur egun, «herriko pertsonekin harremanetza edota jende berria ezagutzea asko gustatzen zait, eta edozeinekin edozertaz hitz egiten asko disfrutatzen dut».

Kontatu digunez, denbora librean letren mundua ez du izaten aparte:

galdetuta, bere kasua berezi xamarra dela aipatu du: «aita Iruñekoa dugu eta ama leizarra, eta gu Iruñean sortu ginen. Astez Iruñean eta asteburuetan beti Leitzara etortzen ginen, baina aukera izan nuenean hiria utzi eta herrira bizitzera etortzeko hautua egin nuen. Nolabait esateko, bi munduak ezagutzen ditut, hiriko bizimodua eta baserrikoa, eta horri esker gauza desberdinak aporteratu ditzazkedala uste dut». Hala, udal taldea zentzu guztietan oso anitza dela uste du: «badira betiko leitzarrak direnak, baina beste asko ni bezala kanpotik etorritako leitzarrak dira. Udal taldea osatzen dugun bakoitzak gure ibilbide eta bizipen desberdinak dauzkagu, hori partekatzea eta batzea benetan ederra da».

Gazteen kezkak

Bere adineko gazte baten kezkak zeintzuk diren ere jakin nahi izan dugu: «nire ustez etxebizitzaren arazoa da egungo gazteoi gehien kezkatzen gaituen gaia». Badira beste gai garrantzitsu asko ere: «gazteon osasun mentalaren inguruan asko dago egiteko, berdintasunaren inguruan ere atzerapauso erraldoiak ematen ari dira. Substantzia legal eta ez legalen kontsumoen inguruan ere arazo ugari sortzen ari dira. Familia eta kuadrilla askotan oso gaizki pasatzen ari dira errealitate honen ondorioz». Badago zeregina: «errealitatea hor dago eta gizarte mailan benetako hausnarketa bat egitea falta da uste dut».

Herriko pestak iristen direnean, kezka horiek bigarren maila batean utzi eta «ongi pasatzea izanen da lehentasuna». Hori bai, ez du alde batera uzterik izanen zinegotzia izateak dakarren ardura: «udalean sartu nintzenetik pestak beste modu batera bizitzen ditut. Pesta egun bakoitzeko bi zinegotzi jarri gara arduradun eta lan egitea to-

katzen da». Zezenketetan ere horizatzen da «eta hortaz aparte beste konpromiso batzuk ere izaten dira. Etxean azienekin ere lan egitea tokatzen da, baina hala ere ongi pasatzeko denbora soberra izaten dut».

Argi du pesta giroan modu berezian neurtzen direla orduak eta azaldu digu horretarako sekretua: «edozein herri-tako pestetan erlojurik gabe ibiltzea da hoberena». Eguneko edo gaueko festa, zer nahiago duen galdetuta dio: «gauekoa utzi gabe, eguneko festa geroz eta gehiago» gustatzen zaiola. Hala, abuztuaren 11 izaten omen da gehien gozatzen duen eguna: «goizetik hasita egun borobila izaten da. Gainera, egun horretan egiten den ezpata dantza, leitzar guztiontzat oso momentu berezia izaten da».

Pestetako bigantxak

Pestei buruz hitz egiten hasita, bigantxen inguruan zabaldu diren zurrumurruak argitzeko ere baliatu nahi izan du Xabierrek aukera: «aurten entzierrorik ez dela eginen, bigantxak bai baina normalean baino haundiagoak ekarriko direla eta jendeak mina hartuko duela. Enbolatu gabeko zezenak ekarriko ditugula. Denetarik entzun dugu, baina ez da egia». Azaldu du aurten arazoak izan dituztela pestetako zezenekin: «urtero Marqués de Sakako ganadutegia ekartzen da pestetarako, baina aurten gure esku ez dagoen arazo batengatik Erriberako ganadutegi bat kontratatu behar izan dugu azken momentuan. Jendea lasai uzteko, argi gera dadila betiko tamainako behiak eta enbolatutakoak ekarriko direla». Marqués de Sakako arduradunak berarekin izandako jarrera ere gorai patu nahi izan du: «aurten zezenik ekarriko ez duen arren, momentu oro guri laguntzeko prest azaldu baita».



gaztelu scl

KALEFAKZIOA · SANEAMENDUA · GASA · ITURGINTZA · KLIMATIZAZIOA
BAITA ZIURTAGIRI ENERGETIKOAK ERE

Landa Behikoa Ind, 21 • LEITZA
T. 948 510 086 · 948 510 156 · F. 948 610 856
info@fontaneriagaztelu.com • www.fontaneriagaztelu.com

ONGI PASA PESTAK!

izaskun
estetika zentroa

edertasun
tratamendu
eta aholkuak

Uharte Gotzaina 4 behea
LEITZA - T. 638 306 110

KAMPERBIDE

ONGI PASA PESTAK!

Landa Poligonoa 8b · LEITZA · 669 707 916
info@kamperbide.com · www.kamperbide.com

MUSUNZAR
OSTATU-JATETXEA

HAMARRETA KOAK, PINTXOAK,
BOKATAK, RAZIOAK

PESTETAKO MENUA

SARRERAKOAK
Iberikoak
Itsaski salpikoia
Txangurruren piper beteak
Etxeko ravioliak onddoekin
eta trufa saltsarekin beteak

AUKERATZEKO
Bakailoa piperradarekin
edo
Azpizuna hornigaiekin
edo
Txekor masailak saltsan
patata purearekin
edo
Legatz beteak

POSTREA
Gazta tarta
edo
Etxeko tiramisua
edo
Helatua

38€
edaria eta
kalea aparte

ERRESERBAK EGIN

Elbarren 14, LEITZA
747 447 565

VICUÑA

Ongi pasa pestak!

LOGISTICS+



FISIOETXEA

Ane Egizabal Llata
Fisioterapeuta

Ongi pasa pestak!

Ariketa terapeutikoak · Osteopatia · INDIBA ACTIV zentroa
K-STRETCH METODOA · Gimnasia Abdominal Hipopresiboa

Uharte Gotzaina, 8 3.C · LEITZA · T. 948 510 730

ONGI PASA PESTAK!



DANI

ITURGINTZA

ITURGINTZA · GASA · BEROKUNTZA

672 18 31 99

iturgintzadani@gmail.com

LEITZA



LEITZAKIROLAK

Ongi pasa pestak!

Elbarren, 36 · LEITZA · Tel. 948 610 976
info@leitzakirolak.com · www.leitzakirolak.com



Garbi

drogeria - lurrindegia

Ongi pasa pestak!

Huarte Gotzai 19, LEITZA 948 51 01 73



taberna

Pintxo eta ogitarteko
aukera zabala

Ongi pasa pestak!

677 721 688
Uharte Gotzaina 2 LEITZA



HIERROS LEITZA

Ongi pasa pestak!

Iñurrista Pol, 12 - LEITZA

948 51 08 48
www.hierrosleitza.com

«Baserriari eusteko habe garrantzitsua izan da beti emakumea»

FELIZIANA ZABALETA ZESTAU EMAKUME BASERRITARRA



Erasote auzoko Errezuma baserrian jaio zen Feliziana Zabaleta Zestau 1934. urtean. Bizitza osoa eman du baserriari lotuta eta ongi baino hobeki daki, emakumea eta baserritarra izateak bere atzean gordetzen duen guztia; argien eta itzalen neurria. Horregatik, festetako txupinazoa botatzeko herriko emakume baserritarrak aukeratu dituztela jakitea polita izan da beretzat eta hala dio: «poza ematen du herritarrek gurekin akordatu direla jakiteak».

Sehaskatik ikasia

Zer ikusi, hura ikasi dio esaera zaharrak eta Felizianaren kasuan ere halaxe izan zen: «gurasoek erakutsi zizkidaten baserriko lanak. Txikitatik hasi nintzen animaliak zaintzen. Azpiak atera, jana eta ura eman, belatsoetara atera eta gero bueltan ekarri... jezten ere oso txikitatik hasi nintzen, bai ardiak baita behiak ere. Lurra lantzeko ere behiak erabiltzen ziren, norbait behar izaten behien aurrean eta hortan ere ibiltzen nintzen». Hogeita bi urterekin, auzo berekoa zen Migel Zabaletarekin ezkondu zen: «Migelen jaiotetxea zen Aurtzikenea baserrira ezkondu ginen. Bertan bederatzi urte egin genituen, Gorritzaran auzoko Bordaberrira joan ginen arte eta geroztik bertan bizi izan gara». Baserria izan du beti ogibide eta oraindik ere baserri munduko lan guztiak gustuko dituela dio: «bai animalia zaintza, bai baratzako lanak, belar la-

nak...». Horren seinale da urtetan aurrera eginagatik, oraindik ere lanean segitzea: «orain ez daukagu azienda handirik, baina oraindik baratzean eta oilo zaintzan aritzen naiz».

Bere egitekoen parte izan da, seme-alabak hazi eta hezteara ere: «17 seme-alaba izan ditut, 33 biloba eta 28 birbiloba dauzkat. Amaginarreba etxean neukan, eta hark ere lan asko egiten zuen».

Orain biloben bizimodua ikustean, gauzak asko aldatu direla dio: «gazteek baserriatik bizitza ateratzeko zailagoa dute eta beste lantokietara jo behar izaten dute. Alde batetik, pena ematen dit, baina, bestetik beraien bizitza aurrera ateratzen ari direla ikusteak ere pozten nau».

Herriko festetan ere nabari du aldea. Txikitako oroitzapenak ekarri ditu gogora: «herrira gutxi ateratzen ginen, baina ilusioa izaten genuen, soineko berriak, izeba batek josiak, orduan estreinatzen genituen-eta». Koskortu ahala, aldatu ziren gauzak: «lan gehiagorekin ibiltzen ginen, pestaleak zirela-eta». Baserria prestatu behar izaten zen pesta aurrean: «pareta zuriketan, zoruari *brilloa* atera, lehendabizi alantrea pasa, gero argizaria eman eta *zepilloarekin brilloa* atera, koltxoiak artilez beteak izaten ziren eta astindu behar izaten ziren eta etxe ingurua txukundu». Pestarako aukera askorik ez zutela izaten aitortu du: «akaso, pesta hirugarrenean edo, arratsaldean bueltaren bat». Gauregun, «ahal den hobekien pasatzen eta pasatuarazten saiatzen naiz». Aurtengo txupinazoa ez daki nondik ikusiko duen, baina pizten den metxak Felizianaren zatitxo bat izanen du. Askotan isildutako hitzak ere bai: «oso paper garrantzitsua izan du beti emakumeak. Baserria eusteko habe garrantzitsua izan da. Ez zait iruiditzen behar den bezela errekonozituta dagoenik, baserria aurrera aterarazteko ardura izanda ere, beti bigarren planoan egon gara». Ea suzuria lehertzean luzarogan aditzen den bere hitzen oihartzuna.

Lirain
Arropa-denda

Elbarren 34
LEITZA
676.737.856

ONGI PASA PESTAK!

AMAIA
arraindegia



Ongi pasa pestak!
Uharte Gotzaia · LEITZA
948 510 590

EZKAIN eraikuntzak S.L



ongi pasa pestak!!

Lizarraga, 3 • LEITZA
M. 650 910 868 • 650 910 867
T./F. 948 610 956 • 948 610 956
ezkain1@gmail.com

Lopenea

Elbarren, 47 - LEITZA
606 27 35 34 · 688 64 08 34
www.lopenea.com



BOKATAK · KAXULAK
MENUA · PINTXOAK
PLATER KONBINATUAK

LG
Leitza Garajea · Multimarka

LEITZA GARAJEA
MULTIMARKA TAILERRA
STILH AGENTZIA
NEKAZARI TAILERRA
SALEROSKETA

ONGI PASA PESTAK!

Landa Industrialdea · LEITZA
948 510 466



EROSKI city

Harategia, urdaitegia,
arraindegia, frutategia...

**Herritik atera gabe
erosketa guztiak**

Tel: 948 510 007 · 948 610 657
Elbarren, 20-71 LEITZA

Ongi pasa pestak!

LAK

**LEITZARAN
AUTO KLUBA**
Mikel Aristeta

Inurrista 21
LEITZA
640 203 963
@lakandlow

Ongi pasa pestak!

Ongi pasa pestak!

euskron

Zure beharretara
egokitutatuko
ebaketa erremintak

+34 948 510 807
www.euskron.com

Elusteder 4
31876 Areso



LEITZAKO UDALAK
pesta zoriontsuak opa dizkizue
leitzar, bisitari eta gurekin egon
ezin izan duzuen guztiei



ONGI PASA PESTAK!

OGI BERRI
ARTESANOS PANADEROS
KAFETEGI
OKINDEGIA

Egunero egiten ditugu
PIZZAK



948 610 974 | LEITZA

FERRETERIA - PENTSUAK

ORTIZ

Baserriko gaiak
Tresnak
Haziak
Sagardoak
Baratza
Ardoak
Kontserbak
Pentsuak
Eraikuntzarako gaiak

ortizpentsuak@gmail.com
Landa industrialdea 13
31880 Leitza - Nafarroa
T. 948 513 600
www.ortizferreteriapentsuak.blogspot.com.es



**ERRESPETUZKO
HARREMANAK
GUSTATZEN ZATZKIGU**

BERDINTASUN BATZORDEA
LEITZA - LEIZARRA - NAFARROA

Zaindu maite duzun hori...

Zein da zuzena?

* Izartxoaren dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

*Iruña edo Iruñea?

Euskaltzaindiak *Iruñea* forma erabakia du, eta bukaerako -a hori artikulua du, eta beraz, honela erabili behar da: Iruñea, Iruñeak, Iruñeari, Iruñean, Iruñetik, Iruñeko... (**Iruñeako, *Iruñeatik...*).

Bertzelakoa da udalak edo foru administrazioak erabakitakoa: *Iruña*, baina irizpen akademikoa kontuan hartu gabe. Dena dela, arazoa NOR kasuan baino ez da agertzen; izan ere, bertze kasuetan, udalak berak ere, *Iruña* hobetsi arren, Iruñeko, Iruñetik, Iruñean eta abar erabiltzen baitu. *Iruinea* forma ere desegokia da.

Toponimia beregaina da; bere arau morfologiko eta sintaktiko bereziak ditu, eta inon ez dira nahasten literatur hizkuntzarekin. Oinarrizko irizpide horrek argitzen ditu bikoiztasun hauek: oihartzun da izen arrunta, baina *Oiartzun* da herriaren izena; *harri*, baina *Arrigorriaga*...

Euskaltzaindiaren arabera, toponimiako herri izenek eta abizenek grafiako ohiturek ere ez dute zertan era berean joan beti, batzuen eta bertzeen bilakaera historikoa ez baita aunitzetan berdina izan: *Iurre, Iantzi/Ihantzi/Igantzi, Oñate*... (abizenak); *Igorre, Igantzi, Oñati*... (toponimia).

Hizki zopa

Hamabi udalerrik egiten dute muga Goizuetarekin. Ea aurkitzen dituzun!

O	M	T	X	O	R	A	T	U	I	A	S	E	S
B	I	U	Z	L	E	R	N	E	N	T	O	R	K
E	A	A	I	E	Z	K	U	R	R	A	U	R	B
R	E	R	R	I	A	L	T	A	O	P	E	E	H
A	I	A	E	T	R	H	A	T	A	R	T	N	E
S	T	N	I	Z	Z	A	I	S	U	E	A	T	L
T	A	T	S	A	U	U	D	U	T	Z	N	E	E
E	F	Z	A	H	B	I	N	N	O	E	U	R	S
G	O	A	N	L	I	E	F	O	L	M	X	I	A
I	H	R	I	K	E	L	D	U	A	I	N	A	K
A	B	R	D	A	T	G	P	S	R	E	T	M	A
L	E	A	R	Z	A	R	A	N	O	N	A	Z	Z
B	E	I	N	T	Z	A	L	A	B	A	I	E	N
O	N	K	I	G	O	R	J	P	E	K	D	D	A



Kalko ustelak

*'Prezioak

% 5ean igo dira' edo 'Prezioak % 5 igo dira'?

Igo, garestitu, merkatu, jaitsi/jautsi aditzekin, ZENBAT galdetzen denean, kalko desegokia egiteko arriskua izaten da:

-*Prezioak % 5ean igo dira

> Prezioak % 5 igo dira (edo Prezioak % 5ez igo dira).

-*Bi puntu(t)an igo da langabezia > Bi puntu igo da langabezia.

-*Ehun euroan garestitu da > Ehun euro garestitu da.

Egokiak dira egon, saldu, erosi... aditzekin, ZENBATEAN galdetzen denean:

-Bortz euro(t)an zeuden porruak.

-Bost euro(t)an erosi/saldu ditut porruak.

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61



Inoiz baino gehiago bertako aukerak eta zerbitzuak, 0 KM-koak



JOSE MANUEL HUICI ANTON
SARALEGI TALOAK - LEITZA

«Festaz festa, merienda afarietan, ezkontzetan... lan asko dugu orain»

Duela 11 urte hasi zen Jose Manuel Huici talogintzan, emazte zuen Kristina Saralegirekin batera; «dena berria zen niretzat». 2019an, aldiz, pauso bat gehiago eman eta lantegia ireki zuten etxean, «baina pandemia etorri zen. Hori dela eta, Leitzako Udalak gure produktuak herrian saltzeko aukera eman zigun baserritarroi, eta talo ontziratuekin hasi ginen. Iruñean etxetz etxe banatzen aritu ginen eta dendetatik deika hasi zitzaizkigun: harategiek, koo-

peratibek, Eroskik... lan asko dugu orain». Taloa jateko modua ere «asko aldatu da denborarekin, orain dena nahastu nahi izaten dute: gazta, txistorra, hirugiharra eta txokolatea. Hori bonba bat da».



JUAN ANGEL PEROTXENA URANGA
BERTAN BAZTAN

«Kontsumo eredu jasangarri, euskaldun eta bertakoak sustatu nahi ditugu»

76 merkatarik, zerbitzu eta ostatak osatzen dute gaur egun Bertan Baztan, eta Juan Angel Perotxena da lehendakari berria. Azaldu duenez, «dendak baino gehiago gara; zerbitzuak ematen dituzten komertzioak ditugu, Baztango zaporeak sartu berri da eta Apopilo alojamentuen elkarte ere barne hartzen dugu». Izan ere, «Bertanen denak ordezkatu nahi ditugu. Ez dira berdinak dena baten eta ostatu baten errealitateak, eta denonak kontuan izan behar ditugu».

Horrez gain, «azken 20 urteetan egindako lana garrantzitsua izan bada ere, pauso bat gehiago eman nahi dugu kontsumo eredu jasangarriak, bertakoak eta euskaldunak sustatzeko; kanpaina, proiektu eta ideia dezente ditugu buruan».



ARITZ MEOKI ETXEBESTE
DONEZTEBEKO UDALA

«Bisitariak herria bera eta bere historia ezagutu nahi izaten dute»

Doneztebeko turismoa «batez ere asteburukoa edo egun pasakoa» da, «baina udan gorakada nabaritzen da eta denbora gehiagorako etortzen dira bisitariak; batez ere familiak edo kirola egitera eta mendira». Bisitariak «herria bera ikusi nahi izaten dute, eskualdeko herrietan dugun euskal tradizioko eraikuntza mota. Historia ere ezagutu nahi izaten dute; zer nolako herria zen, dorretxeak... azalpenak emateko turismo bulegoa irekitzen dugu udan». Etorkizu-

nera begira, «alde batetik bisita gidatu bat prestatu nahi dugu, herrian zehar QR puntuak paratuta. Bertzetik, mendian oinezko eta bizikletentzako bideak eta Bidasoko Bide Berdea zaindu eta sustatu nahi ditugu».



ITZIAR FAGOAGA LOPEZ
ZAPOREAK - DANTXARINEA

«Zaporeak gune berriak kalitatezko gourmet esperientzia eskainiko du»

Grupo Biok-ek Zaporeak gunea ireki berri du Dantxarinean, «sukaldaritzako esperientzia paregabea eskainiko duen gourmet espazioa». 800 metro karratuko gunean jatetxea, ostalua eta gourmet produktuen denda dituzte eskuragarri. Gainera, hainbat kolaboratzaileekin egingen dute lan, «kalitatezko zerbitzu autentikoa eskaintzeko helburuarekin. Horien artean Hervé Sancho, MOF (Frantziako harakinik onena) titulua duena, bertako Euskal Txerria ekoizten duen

Maskarada etxea eta Sasi Ardiarekin lan egiten duen Sasioko elkarteak. «Ekoizle ttikien pasioari, tradizioari eta dedikazioari balioa eman nahi diegu, eta komunitatearentzat onuragarria den negozio eredu jasangarria sustatu».



Habelartek herri jantokia irekiko du pestetan

Abuztuaren 10etik 14ra afariak eskainiko dituzte Atekabeltz gaztetxean

TTIPI-TTAPA

Habelarte Mendialdeko base-rritarren elkarteak antolatuta, herri jantokia irekiko dute Leitza zoko pestetan Atekabeltz gaztetxean. Abuztuaren 10etik 14ra eskainiko dute zerbitzua eta txandak Habelarteko kideen eta Leitza, Areso eta inguruko herrietako lagunen lankidetzarekin osatuko dituzte. Jantokia 20:00etatik 23:00etara egonen da irekita eta ogitartekoak, hamburgerak eta taloak egiteaz gain, errazioak ere izanen dira aukean, egun bakoitzeko bat. Abuztuaren 10ean, txerri saiheski erre; abuztuaren 11n, antxume erre; abuztuaren 12an, axuri erre; abuztuaren 13an, txerrikume erre eta abuztuaren 14an, oilasko erre jateko aukera izanen da.

Otorduetako osagaiak Mendialdeko ekoizleenak izanen

dira, modu jasangarrian ekoiztutakoak. Eskualdean ekoizten ez diren elikagaiak soilik hartuko zaizkie Mendialdetik kanpoei. Jantokia bi helbururekin jarriko dute: «finantziazioa lortzea eta gure lanaren eta guk defendatzen dugun elikadura ereduaren gaineko sozializazioa egitea». Jateko goxoa eskaintzearekin batera, kontzientzia sortu nahi dute: «herritarrei ikustarazteko badagoela elikagaiak ekoizteko eta kontsumitzeko modu iraunkor bat: ingurumena zainduz, animalien ongizatea errespetatuz eta herritarrentzat eta nekazariarentzat prezio justua bermatzen duena». Gonbidapena luzatu diete: «herritar zein bisitariak animatzen ditugu gure txokora hurbildu eta festetan ere, baserrikoa eta janari osasungarria jan eta festaz gozatzera».



Egitarau borobila osatu dute herriko gazteek.

Atekabeltz gaztetxean egingen dituzte festetako hainbat ekitaldi

TTIPI-TTAPA

Herritar zein bisitariarentzat, pestarako gunea izanen da beste urte batez Atekabeltz gaztetxea. Abuztuaren 10etik 14ra hainbat ekitaldi antolatu dituzte bertan. Abuztuaren 10ean elektronika gaua antolatu dute eta gauerditik aurrera, Polvorilla, Koldo, Intermusic eta Brujo DJak jarriko duten musikaz gozatzeko aukera izanen da. Abuztuaren 11n, Maria Blanco eta Iker Plazola aktoreek Stand Up bakarriketa eskainiko dute 19:00etatik aurrera. Abuztuaren 12an, Hiuzz eta Ithaka musika taldeek


kontzertua eskainiko dute 00:00etatik aurrera eta gaua bukatzeko PUF eta Laberi DJak arduratuko dira musika jartzeaz. Abuztuaren 14an Gazte Eguna ospatuko dute eta egun osoan pestan ibili ondotik, gauean bokata jana egingen dute gaztetxean. Esne Beltza taldeak plazan eskainiko duen kontzertuaren ondotik, Reimy DJaren saioa izanen dute gaztetxean 02:00etatik aurrera. Pestarako gunea askea dela nabarmendu dute eta jarrera sexistarik, LGTBIQ+foborik eta jarrera arrazistarik ez dutela onartuko adierazi dute.



ADOS PILOTA

Leitzarrak txapelkun Iruñean

Ados Pilota elkarteak antolatutako San Fermin torneoko finalak jokatu zituzten uztailaren 12an Iruñeko Labrit pilotalekuan. Lau eta erdiko finalean, Goiuri Zabaletak 22-11 irabazi zion Barrokali. Binakakoan, berri, Iturriagak eta Zabalak 22-17 irabazi zieten Oskozi eta Galeanori.



ESPAINIAKO TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOA

Olaizola bigarren Espainiako txapelketan

Joanes Olaizolak Nafarroako selekzioarekin, kadete mailan, parte hartu du Avilesen jokatu zuten Espainiako txirrindularitza txapelketan. Azken metroetan, sprintean, erabaki zen lasterke-ta. Alemany izan zen bizkorrena eta bere atzetik sartu zen helmugan Olaizola.

Arkiskil zelaiko proiektuan aurrerapausoak

Proiektuaren erredakzioa esleituko dute egunotan aurkeztu diren hamalau proposamenen artean

TTIPI-TTAPA

Aurrerako jokalarien eta familien eskaerei erantzun eta futbol zelaian belar artifiziala jartzea lehentasunezko egitekotzat jo du udalak. Mozioa onartu zuten otsailean eta belar naturaletik artifizialerako aldaketa lehenbailehen egin dadin, udalari berari dagokion konpromiso ekonomikoa eta teknikoa hartzea adostu zuten. Ezertan hasi aurretik, proiektua erredaktatzea da lehenbiziko pausoa eta deialdi publikoa egin ondoren, datozen egunetan esleitu behar dituzte lanak. Aipatu behar da, hamalau arkitekto aurkeztu dutela proposamena.

Esleitzen zaion horrek, okerrik ez bada, bizpahiru hilabetean idatzi eta entregatuko du proiektua. Ondoren, proiektu horrekin, berriz ere finantzia-



Arkiskil zelaia. PABLO FEO

zio bila joanen dira dagokion toki guztietara. 800.000 euro inguruko inbertsioa beharko litzateke belar artifiziala jarri, argiteria aldatu eta aldagelak berritzeko. Alkateak nabarmendu du diru kantitate handia dela eta hori egin ahal izateko ezinbestekoak direla Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak: «finantziazioa lortzea ez da berrimatu dautzagun zerbait, baina ahalegin osoa egingen dugu lortzeko».

Abuztuaren 13ko herri afarirako txartelak salgai

Uztaileko azkeneko astean jarriko dituzte salgai, herri afarirako txartelak. Abuztuaren 13an, 22:00etan, izanen da afaria eta urtero bezala jendetza espero dute. Afaritarako itsaskiz betetako piperrak, penka beteak ondo saltsarekin, txanpiñoiak urdaiazpikoarekin, oilasko izterrak saltsan, goxua edo sorbetea, edaria, kafea eta kopa izanen dituzte. Afarirako txartelak 27 eurotan jarriko dituzte salgai Peritza, Leitza eta Torrea tabernetan abuztuaren 9ra arte.

Udako ordutegia martxan jarri dute Anikote kiroldegian

Abuztuaren 31ra arte, udako ordutegian ariko dira lanean Anikote kiroldegian. Astelehene ostiralera, 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:30era egonen da zabalik. Larunbatetan, 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara irekiko dituzte ateak. Igande eta jaiegunetan, goizez bakarrik ariko dira, 09:00etatik 14:00etara.

Gainera, jakinarazi dute urtero bezala, herriko pestetan eta pesta ondoan, abuztuaren 12tik 25era, itxita egonen dela kiroldegia.

'Etxera!' lelopean manifestazioa eta kantu bazkaria antolatu dute abuztuaren 10ean

TTIPI-TTAPA

Sare herritarrak antolatuta, manifestazioa eta kantu bazkaria antolatu dituzte abuztuaren 10ean. *Etxera!* lelopean, 13:00etan hasiko da manifestazioa plazatik. Kantu bazkaria egingen dute gero, 14:30 aldera, karrapean. Bazkaritarako errusiar entsalada, txanpiñoi eta ganba brotxeta, haragiz beteriko piperrak, masailak saltsan eta gazta flana izanen dituzte. Bazkaria Kuxkuxtu musika taldeak alaituko du. Bazkarirako txartelak Torrea, Peritza eta Musunzar



lazko bazkariko argazkia. ARTXIBOA

tabernetan eskura daitezke 30 euroren truke. Antolatzaileek aipatu dute 180 lagunentzako tokia dagoela eta txartelak erosteko azkeneko eguna abuztuaren 8a izanen dela.

Aurrerak antolatutako plazako pilota txapelketa aurrera doa

TTIPI-TTAPA

31. edizioa bete du aurten Aurrerak antolatzen duen Plazako Pilota Txapelketak. Hamasei bikotek eman dute izena eta tanto eta erretoan gozatu eta gozaraziz, finaleko txartela geroz eta gertuago dute batzuek. Lerro hauek

idazterakoan final laurdene-tako norgehiagokak jokatzeko ari ziren eta uztailean hondarreak jokatu dituzte finalaurreko partidak. *Erran.eusen* jakinaraziko ditugu emaitzak. Dena ongi bidean, abuztuaren 3an, pestetako Erreparto Egunean, jokatu dute finala.

Puntu morea eta arretarako telefonoa eskura izanen dira pestetan

TTIPI-TTAPA

Pesta parekide batzuen alde egin eta Leitza leku seguru bat izatea denon ardura dela gogorarazi dute berdintasun batzordeko kideek. Arretarako telefonoa martxan izanen dela ere jakinarazi dute. Abuztuaren 3an, 00:00etatik 08:00etara martxan izanen dute telefonoa. Pestei ofizialki hasiera ematen dietenean, abuztuaren 10ean, 20:00etan aktibatuko dute telefonoa eta abuztuaren 16ko 08:00ak arte martxan izanen da. Puntu Morea, abuztuaren 10ean eta 12an jarriko dute. 20:00eta-

tik 00:00etara informazioa eskuragarri egonen da bertan eta 00:00etatik 08:00etara presentzialki eskainiko dute zerbitzua. Pesta eremuan emakume* nahiz LGTBIQ+ kolektiboko kideren batek eraso bat pairatuz gero, arreta eta laguntza zuzena eta profesionala eskaintzeko zerbitzua da. Edozein intentsitateko erasoan aurrean, eraso jasan duen pertsonari aurrez aurreko arreta emozionala eta bidelaguntza eskainiko zaio, egoera horri aurre egiteko dituen aukeren inguruko informazioa eta aholkularitza emanez.

Erne ibili festetako otordueterako txartelak erosteko

Plaza zaharrean salduko dituzte txartelak abuztuaren 4an, 5ean, 6an eta 7an

ENERITZ IRAOLA

Festetan mahaian eseri eta lasai bazkaldu edo afaldu nahi duenak, aurretik atera behar du kontuak. Festetako otordueterako txartelak saltzen hasi dira eta abuztuaren 4a, 5a, 6a eta 7a izango dira txartelak erosteko azkeneko egunak.

Lagunartekoek sanpedroetan erabili zuten sistema ari dira erabiltzen eta alde zuzenetik jakinarazitako egun eta ordu zehatzetan ari dira txartelak saltzen. Abuztuaren 4an, 18:30etik 20:00etara egongo dira plaza zaharrean. Abuztuaren 5ean, 18:00etatik 20:00etara; abuztuaren 6an, 11:30etik 13:30era eta abuztuaren 7an, 10:30etik 12:30era. Abuztuaren 14an guraso elkarteek prestatuko dute afaria. Urteroko menua erre-

pikatuko dute: entsalada, zopa, txekor saiheskia piperrekin, postrea, kafea eta kopa. Sei eta hamasei urte arteko haurrek 13 euro ordaindu beharko dituzte eta helduek 22 euro. Atzeratzen direnek bost euro gehiago ordaindu beharko dituzte.

Herri bazkaria abuztuaren 18an izango da eta Sarayola catering arduratuko da. Helduek 32 euroren truke: entsalada, otarrainxkak baratxurirekin, ondo saltsaz betetako penkak, bakailaoa piperradarekin, masailak saltsan, limoizko sorbetea edo etxeko flana izango dute bazkaritarako. Haurrek 12 euro ordainduta, makarroiak, oilasko bularkia patatekin eta danoninoa. Jatekoa kanpotik ekarri behar dutenez, egunean bertan ez dute txartelik salduko.



ENERITZ IRAOLA

Gustura ibili dira kirol udalekuetan

Hamar laguneko taldeak parte hartu du uztailearen 1etik 19ra herrian egin dituzten kirol udalekuetan. Ainhoa Aranburu leitzarria aritu da begirale lanetan eta egunean hiru orduz, herri kirolak, ur jolasak, irteerak... egin dituzte eta primeran ibili dira lagunartean.

Liburutegi ibiltaria uztailearen 31n etorriko da

ENERITZ IRAOLA

Udan ere, liburutegi ibiltaria etorriko da bisitan Aresora. Uztailearen 31n eta abuztuaren 28an, 12:30etik 13:30era, eskolako atarian izango dute herritarrek liburuak maileguan hartzeko aukera.

Ikasturte berrian, eskolarekin hartu-emanen segiko du eta urrira arte, hilean behin, eta urritik aurrera, bi astez behin etorriko da Harkaitz liburuz betetako kaxak hartu eta hamaika ipuin eta istorio kontatzera. Pasa den ikasturtean ostiraletan etortzen zen,

baina aurten asteazkenetan etortzeko asmoa duela aurreratu du. Eskolako haurrekin 12:30etik 13:45era egongo da.

Herritar guztientzat aukera

Liburutegi ibiltaria herritar guztientzat baliagarria izan daitekeen zerbitzua dela ikusita, aurten, eskolatik kanpo ere zabalduko dute zerbitzua. Eskolako atarian 13:45etik 14:15era egonen da eta nahi duen orok izango du bertan liburuak maileguan hartu edota itzultzeko aukera.

Mendi martxa antolatze bilerak abuztuaren 20an egingo dute

TTIPI-TTAPA

Aresoko Mendi Martxaren hamabosgarren edizioa irailaren 1ean izango da. Urtero bezala, auzolana ezinbestekoa izango da ekitaldia aurrera eraman ahal izateko eta herritarrek antolatzen hasi dira. Lan banaketa egina dute eta

azken xehetasunak lotzeko abuztuaren 20an egingo dute bilera, udaletxean, 18:00etan.

Izena emateko epea irekita dago eta nahi duenak nafarmendi.org web orriaren bidez egin dezakete. Egunean bertan ere izango da izena emateko aukera.



UTZITAKOIA

Abeltzaintza azpiegituren hobekuntzak

Arrozpideko bidea eta Ulimendira doan pista egokitzeko lanak aurrera doaz. Proiektuak 40.000 euroko kostua du eta hori finantzatzeko dirulaguntzak jaso dituzte. Auzolana ere baliatuko dute eta halaxe ari dira, Ulimendira doan bidean, auzolanean hormigoia botatzen.

Oihana Lujanbioren ikerketa proiektua saritu du Mintzolak

Goizuetan noka berreskuratzen hasteko ikerketa proiektuarekin jaso du Mintzolaeren ikerketa-lan monografikoen saria

TTIPI-TTAPA

2024ko Mintzola saria irabazi du Oihana Lujanbio Begiristain herritarrak. Euskaltzaindiak, euskaraz egiten den ahozko jarduna ikergai gisa sustatzeko bultzatzen duen proiektua da Mintzola. Goizuetako noka berreskuratzen hasteko ikerketa lanarekin lortu du saria Lujanbiok eta 3.000 euroko dirulaguntza jasoko du bere proiektua lantzeko. Ikerlana 2025eko otsailaren 28a baino lehen aurkeztu beharko du.

Datozen hilabeteetan Goizuetako noka formak zabaltzeko bideak ikertuko ditu, praktikak sustatuko ditu eta landutako bide horiek erabileran eraginik ba ote duten aztertuko du. Nokaren galeraren arazoak ezagutzera eta herritarren hausnarketa eragitea ere bada ikerketa proiektu honen beste



Oihana Lujanbio. UTZITAKOIA

helburuetako bat. Landu beharreko bideak ikertze aldera, Goizuetan noka mantendu duten hiztun-taldeen praktika onak ere bilduko ditu.

Aipatu behar da honakoa ez dela Oihana Lujanbiok Goizuetako euskarari buruz egiten duen lehenbiziko lana. Bakar-ka edo lankidetzan Goizuetako euskararen hizkuntza-aldakortasuna, azentua eta gramatika aztertzen dituzten lanak egin ditu.

Autobus zerbitzua indartuko dute herriko festetan

TTIPI-TTAPA

Abuztuaren 14tik 19ra Goizuetara eta Hernani arteko joan-etorriak autobusez egiteko aukera izanen da. Apezetxea autobus konpainiak abuztuaren 14an, 16an eta 19an eskainiko du zerbitzua eta Belako tailerretik 09:00etan eta 15:00etan aterako dira Hernanira doazen autobusak. Goizuetara etortzeko autobusa, berriz, Hernaniko Elkano kaletik aterako da. Abuztuaren 14an eta 16an, 12:00etan eta 19:00etan izanen dute autobusa. Abuztuaren 19an, astelehenean, ez da Hernanitik

Goizuetara etortzeko autobus zerbitzurik izanen. Beste egunetan, Ugarte autobus konpainia izanen da zerbitzua emanen duena. Abuztuaren 15ean, 17an eta 18an, suhiltzaileen parketik aterako dira Hernanira doazen autobusak, 06:30ean eta 12:00etan. Hernanitik Goizuetara etorri nahi dutenek, Zinkoeneako kioskoko geralekuan hartu dezakete autobusa. Abuztuaren 14an eta 16an, 19:30ean aterako da autobusa eta abuztuaren 15ean eta 18an, 11:00etan. Abuztuaren 17an, 11:00etan eta 19:30ean izanen da zerbitzua.

Uztailaren 26an etorriko da liburutegi ibiltaria

Aurreko aldizkarian aurreratu bezala, uztailaren 26an egingen du Urumealdera bisita liburutegi ibiltariak. Goizuetan 11:30etik 12:30era egingen du geldialdia. Handik, Aranora joanen da eta 13:00etatik 13:30era egonen da bertan.



ARTXIBOIA



FELIX LOIARTE

Karmen bezperako ospakizuna festarako aitzakia

Usadio zaharra berritu eta herritarrak elkartzeko aitzakia izan zen, aurten ere, Karmen bezperako ospakizuna. Herri afaria egin zuten plazan, afalondoan suak piztu eta nahi zuenak su gainetik saltoka ibiltzeko aukera izan zuen

Goitikiren aldeko kamisetak salgai uztailaren 27ra arte

Goitiki haurtzaindegirako dirua biltzeko festetako kamisetak salgai jarri dituzte eta nahi duenak uztailaren 27ra arte eskura ditzake Amaia kafetegian eta Zubidendan. Xumarrek egindako marrazkia darama kamisetak eta 0-11 urte artekoek 10 eurotan eta 12 urtetik aurrerakoek 15 eurotan eskura ditzakete. Aipatu behar da, egoitza berria dutela urte hasieratik eta horrek gastu estrak sortu dizkiola haurtzaindegiari. Ongietorriak izanen dira, beraz, diru sarrera guztiak.

«Onura ekonomiko, sozial eta ekologikoak eskaini nahi ditugu»

BEA MUJIKA JORAJURIA URKILO KOMUNITATE ENERGETIKOKO LEHENDAKARIA

Energia berriztagarrien trantsizioan pauso haundi bat emanez, amaiurtarrek Urkilo Komunitate Energetikoa sortu berri dute, eta proiektuari buruz solastatu da elkarteko lehendakaria

R. OSKARIZ AMAIUR

«Amaiurren autosufizientzia energetikoa lortzea, energia berriztagarriak eta garbiak sustatzea eta kontsumo ohiturak aldatzea». Horiek dira, bertzeak bertze, sortu berri duten Urkilo Komunitate Energetikoaren helburuak. Elkarteko lehendakaria den Bea Mujika sortze prozesuaz, helburuez eta etorkizuneko proiektuez mintzatu da, eta amaiurtar guztiak animatu ditu ekimenarekin bat egitera.

Zer da komunitate energetiko bat?

Toki bateko energia kudeatzeko modu bat da. Komunitateko kideak zuzenean inplikatzen dira energia berriztagarrien ekoizpena eta kontsumoa ezartzeko neurrien planifikazioan eta martxan jartzean, baita energia eraginkortasuneko eta mugikortasun iraunkorreko neurriei dagokienez ere. Finean, herritarrek energiaren inguruko erabakiak hartu, energia sortu, kudeatu eta kanpoko energiarekiko mendekotasuna murrizten dute elkarlanean.

Zein abantaila ditu?

Abantailak onura ekonomikotik haratago doaz, ingurumenekoak eta sozialak ere badira; tokian tokiko energia berriztagarri eta garbiak sortzea eta erabiltzea da helburua, kostua jaitsiz eta pobrezia energetikoa ekidinez.

Nola sortu zen Amaiurren komunitatea abiatzeko ideia?



Urkilo elkarteko lehendakaria da Bea Mujika amaiurtarra. UTZITAKOIA

Baztango Udalak hamabortz herrietako alkateekin egindako bilera informatibo bat izan zen abiapuntua. Nafarroako Gobernuak energia komunitateak bultzatzeko dirulaguntzen berri eman zuten eta Amaiurko herriak bide horretan sartzeko interesa erakutsi zuen. Gure kasuan, herriko etxe gehienak Vianako Printzea erakundeak babestuak dira eta horrek eguzki panelak parartzeko aukera, adibidez, oz-

topatzen du. Hori ikusita, panelak frontoiko estalkian paratzea izan daiteke irtenbidea, eta horretarako eta bertze hainbat proiekturako, egokiena komunitatea sortzea zela iruditu zitzaigun. Prozesuaren kostuaren ehuneko bat Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarekin ordaindu da eta gainerakoa udalak.

Nolakoa izan da prozesua?

Komunitate energetiko bat sortzeko bi modu nagusi dau-

de. Batzuetan enpresek bideratzen dituzte, eta eredu estandarizatuak eta azkarrak izaten dira. Bertzeetan herritarrek parte hartzeko bideak irekitzen dira, eta prozesua luzeagoa izaten da. Guk herritarrok sortu beharreko zer-bait zela ikusi genuen hasmentatik, eta horren aldeko apustua egin genuen. Urtarrilean egindako bilera jendetsu batean eman zitzaigun partaidetza prozesuaren berri, eta hortik abiatuta, herritar talde batek lanean segitu genuen: otsailean hasita, astean behin elkartu ginen Artelan, Kisar eta Arankoa aholkularitza zerbitzuetako profesionalen gidaritzapean, gizarte kohesio, energia berriztagarri eta araudiaren inguruan lan egiteko. Saio horien ondotik komunitatea bera sortzen hasi ginen; forma juridikoa erabaki (gure kasuan elkartea), estatutuak sortu, eta elkartea eratu genuen. Orain talde eragilea desegin dugu eta lanean ibili garenok elkarteko bazkide izatera pasatu gara. Kide guztiak izanen gara elkarlanean gure aukerak aztertu eta proiektuak planteatzen hasiko garenak.

Euskal Herriko bertze kasuak erreferentziatzat hartu dituzue?

Eskualdean Berako BixtuBera kooperatiba da gure prozesuarekin antza haundien duen adibidea, segituta pausoen hurrenkera berdina izan da bi kasutan; udalak bulkatutako partaidetza prozesu baten ondotik energia komunitatea eratu da, eta ondotik planteatu dira proiektuak. Baztanen ere energia berriztagarrien autokontsumo kolektiboaren aldeko apustua egin dute, Berroetan eta Anizen adibidez, baina haien kasuan panel fotovoltaikoen proiektuak nahiko aitzinatuak dituzte eta berriki hasi dira elkarrekin sortzen. Inguruko adibide hauek ezagutu ditugu baina ez gara haietan oinarritu; nahiko argi ikusi dugu gure herriaren ezaugarriak eta beharrak

kontuan hartu behar genituela eta horietan oinarritu behar genuela elkartzeko sortzeko.

Zein helburu dituzue?

Estatutuetan helburu anitz zehaztu ditugu, baina hauek aipatuko nituzke: autosufizientzia energetikoa lortzea; herritarrak energiaren arloan ahalduntzea; ingurumenaren defentsa; iturri berriztagarrien erabilera aldatzea; energia kontsumoaren aurrezpena; energia urrakortasunari aurre egitea; mugikortasun iraunkorra sustatzea; eta tokiko zerbitzuekin lankidetzara sare bat sortzea. Laburbilduz, ingurumen eta gizarte onurak eta abantaila ekonomikoak eskaini nahi ditugu.

Zenbat kide zarete taldean?

Talde eragilean 10-12 pertsona ibili gara eta bazkide izateko hasmentako inskripzioan bertze 18 lagunek eman dute izena. Epe hori herritarren interesa neurtzeko baliatu dugu, eguzki panelen proiektuari begira batez ere, baina hemendik aitzinera edozein momentutan egin ahal izanen da elkarteko bazkide.

Estatutuetan planteatu duzuen borts jardueretan laburbildu duzue. Zein dira?

Lehenbiziko, autokontsumorako energia berriztagarriak sortzeko proiektuak eta instalazioak sustatzea eta kudeatzea. Hau da seguraski energia komunitate baten inguruan solastatzean burura etortzen zaigun lehenbiziko jarduera. Bigarrena, egoera ahulean



Komunitatea sortzeko talde eragilean parte hartu duten zenbait herritar. UTZITAKOIA

dauden familiei autokontsumoa erraztu nahi diegu: elkarteko bazkideek eta proiektuetako partaideek formulak adostuko ditugu familia guztiek autokontsumorako aukera bermatua izan dezaten. Hirugarrena, aprobetxamendu energetikorako baliabide naturalen erabilera jasagarria sustatu nahi dugu; kontsumitu behar dugun energia bakarrik sortu nahi dugu. Ez du zentzurik frontoiko teilatua panelez estaltzeak, herena betetzen duten panelek sortutakoa bakarrik kontsumitu behar badugu. Laugarrena, energia eraginkortasunari eta energia berriztagarriei inguruko dibulgazioa, aholkularitza, sentsibilizazioa eta pres-

takuntza ematea; solasaldiak, tailerrak... herritarrak ahalduntzeko eta kontsumo ohituretan aldaketak sustatzeko. Azkenik, mugikortasun iraunkorra sustatzeko jarduerak; adibidez, bizikleta elektrikoak herritarren eskura paratuz edo ibilgailu elektrikoak kargatzeko gunea sortuz.

Zein proiektu dituzue buruan?

Bazkideon beharretatik eta proposamenetatik abiatuta prestatuko ditugu proiektuak,

«FAMILIA GUZTIEI AUTOKONTSUMOA ERRAZTU NAHI DIEGU»

gure testuinguruak eskaintzen dituen aukerak kontuan hartuta. Buruan ditugun proiektuan artean, nagusia frontoiko nahiz eskolako estalkietan panel fotovoltaikoak paratzea da.

Eperik zehaztu duzue?

Epe motzean egingarria izan daitekeela iruditzen zaigu. Lehendabizi bazkideon artean nortzuk parte hartu nahi dugun zehaztu behar dugu, etxe edo familia bakoitzaren kontsumoaren azterketa egin, proiektua sortu, finantziazioa bilatu, dirulaguntzak eskatu... Lana handia izanen da, baina eraikin publikoen teilatuek erabiltzeko udalaren prestutasuna edukitzea abiapuntu ona da.

Eta epe luzera zein asmo dituzue?

Epe ertain eta luzera, berriz, energiaren sorkuntzarako aukerak aztertzea dugu buruan: haizea, biomasa, ura... Horrez gain, bertzelako proiektu batzuk ere aurreikusi ditugu, ahal nola, ibilgailu partekatuen sustapena, kargagailu elektrikoak ezartzea eta ikastaro, tailer nahiz solasaldiak antolatzea.

Zerbait gehitu nahi duzue?

Amaiurtarrak Urkilo Komunitate Energetikoan parte hartzea animatu nahi nituzke, eta zalantzarik edo kezkarik izanez gero, zuzendaritza batzordeko kideren batekin edo talde eragilean lanean ibili garen edozeinekin harremanetan jartzea aholkatuko nioke.

JOSEPHINE'S

20 ENGLISH 13

BAZTAN

Pedro Axular karrika, 2 Elizondo

IRAKASLE NATIBOA

2024-2025 MATRIKULA IREKITA

Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa (B1, B2) eta Helduak

Christina Irigoyen ☎ 637 176 572 ✉ josephinesenglish@gmail.com

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ

T. 948 452 143 · 948 452 449

info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.

ESTRATEGIA ENERGETIKOA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU



Eguzki panelak frontoiko, kontsultako eta elkarteko teilatuetan. M. IANTZI

Eguzki panelak paratu dituzte Berroetan

22 etxebizitzek parte hartu dute proiektuan eta sortutako energia proportzionalki banatuko dute

MAIALEN IANTZI

Orain dela pare bat urte, proiektu berri bat paratu zen martxan Berroetan. Helburua eguzki panelak paratu eta komunitate energetiko batsortzea zen. Dagoeneko martxan daude plakak eta, beraz, proiektua arrakastarekin aitzinerat doa.

Eguzki panelak frontoiko, kontsultako eta Gure Ametsa elkarteko teilatuetan paratu dira, eta guztira 22 etxebizitza sartu dira proiektuan. Sortutako energia proportzionalki banatuko da kideen artean.

Komunitate energetikoaren ideia Karlos Garaikoetxea al-

kateak bultzatu du bereziki. Horri segituz, Olaia Elizalde bere gradu amaierako lanean proiektuaren nondik norakoak zehaztu zituen. Ondotik, batzar andana bat eginda, familia batzuek parte hartzea erabaki zuten eta dena martxan paratu zen.

Gaur egun, herria modu kolektibo batean bere energia sortzen ari da. Geroz eta indibidualistagoa den gizarte honetan, polita da horrelako proiektuak aitzinerat atera eta ongizate kolektiboari begiratzeari. Orain eguzkia ateratzea bakarrik falta...



Joan den urtean omendu zituzten herritarrak. ARTXIBOTIK

Abuztuaren 9tik 12ra ospatuko dituzte Zigako bestak

TTIPI-TTAPA

Herriko gazteek adin guzietarako egitaraua prestatu dute:

Abuztuak 9, ortziralea

20:00etan txupinazoa eta ez-kila jotzea izanen dira, ondotik, herriko trikitilariak herrian eta Zigaurren barna ibiliko dira. 21:00etan baztan zopak frontoian eta 00:00etan dantzaldia izanen da Andonirekin.

Abuztuak 10, larunbata

10:00etan diana herriko trikitilariarekin. 11:00etan meza nagusia eta ondotik luntxa izanen dute plazan. 18:30ean pala txapelketako finala jokatuko dute eta 19:30ean Chuchin Ibañez y los Charros taldeak joko du plazan. 21:00etan dantzaldia izanen da Bizphiru Pelau taldearekin eta 22:00etan joaldunak. Ondotik zingar jatea eliza gibelean. 00:00etan

Bizphiru Pelau eta ondotik DJ Endara.

Abuztuak 11, igandea

10:00etan diana herriko trikitilariarekin. 11:00etan haurren jokoak izanen dira plazan eta 14:00etan haur eta herri bazkariak. 17:00etan puzgarriak izanen dira, ondotik txokolate hartzea. 17:30ean mus txapelketa. 19:30ean dantzaldia izanen da Andonirekin eta 21:30ean paella jatea frontoian.

Abuztuak 12, astelehena

10:00etan diana herriko trikitilariarekin eta 11:30ean haurren frontenis txapelketa jokatuko dute. 14:30ean zikiro jatea Beñat eta Fernandok alaiturik eta ondotik bingo txapelketa. 20:00etan dantzaldia izanen da Beñat eta Fernandorekin plazan. 22:00etan zingar jatea eta martxa.



647 77 31 33

Eguzki plaken instalazioak, argiztapen-azterketak eta elektrizitate lanak orokorrean





270 lagun inguru bildu ziren uztailaren 16an egindako agerraldian. R. OSKARIZ

Elkartasun deialdia Aroztegiko zazpi auzipetuen alde

Denen artean 20 urteko kartzela eta 56.000 euroko zigorra eskatu dute kanpaldian parte hartu zuten zazpi herritarrendako

TTIPI-TTAPA

2021eko udaberrian hasi zituen Palacio de Arozteguia SL enpresak lanak Lekarozko Aroztegia inguruan, gerora Nafarroako Auzitegi Nagusiak balio gabetu zituenak, baimekin gabe hasi baitzituzten obrak. Hala ere, herritarrak izan ziren lanak gelditu zituztenak, eta zazpi lagun auzipetu zituzten kanpaldi horretan parte hartzeagatik.

Duela bi urte deitu zituzten deklaratzera zazpi auzipetuak, eta orain jakinarazi dietenez, denetara 20 urteko kartzela zigorra eta 56.000 euroko isuna eskatu dute salatzaileek.

Elkartasun deialdia

Uztailaren 16an agerraldia egin zuten, «Aroztegiko borrokan sistematikoki pairatu dugun jazarpen judizial, polizial eta ekonomikoa» salatzeke. «Orain zazpi laguni tokatu zaigu gustu txarreko zirku honetan parte hartzea. 20 urteko kartzela eta 56.000 euroko zigorrarekin isilarazi nahi dute herria. Talde kriminal antolatatu bat izatea eta derrigortze eta bortxa delituak leporatzen zaizkigu

kanpaldian parte hartzeagatik. Lotsagarria».

Epaiketan, «herritarrek beraien burua eta lurak defendatzeko duten konpromisoa eta gaitasuna zigortu nahi dute. Ez dezagun atzendu Nafarroako Gobernuak baztandarrei sorgor eginaz sortutako egoera dugula, eta borroka oraindik ez dela akitu: UGEpa bertan behera uztea eta ebatsitako lurak nekazariei eta Baztango Batzar Nagusiari itzultzearen erantzukizuna berea da».

Adierazi zutenenez, «bortxaz Aroztegiko parajeak ebatsi nahi dizkigute, gure haritz zaharrak botarazi dituzte, gure beharrei erantzuten ez dien eredu bat inposatu nahi digute eta epaitegiatarat igortzen gaituzte. Desobedientziak borrokatzeko eskubidea kriminalizatu nahi dute».

Hori dela eta, «pairatzen dugun errepresio ekonomikoaren aitzinean elkartasunez erantzutera» dei egin diete Euskal Herriko eragile eta norbanakoei. «Horretarako *aroztegia_elkartasuna@ni.eus* helbidera idazten ahal duzue».



ONDIKOL ETA UTZITAKOAK

Ederki joan dira Azpilkuetako bestak

Oier Ariztia eta Anne Urrutia *domunausiek* botatako txupinazoarekin besta giro bete-betean sartu ziren azpilkuetarrak uztailaren 4an, eta 7ra arte luzatu ziren sanferminak. Eguraldia lagun, ederki disfrutatu zituzten bestak eta umore ona izan zen nagusi herrian.

LIDERA

HÖRTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL

**INGURUNE BERRI BAT
ZURE IRRIBARREARENTZAT**

astelehenetik ortziratera

08:00-13:00

15:00-20:00

larunbatetan goizez

Iturrunzubiko plaza, 9-10 • 31770 LESAKA

Tel. **722 662 478** | lidera@hortzklina.es

@liderahortzklina



Baztango Udalak harrera instituzionala egin die haurrei. SAHARAZTAN

Ongietorria Saharako neska-mutikoei

Dagoeneko eskualdean dira Oporrak Bakean egitasmoarekin Saharatik etorritako 11 haur errefuxiatuak

TTIPI-TTAPA

Kente, Brahim, Wahna, Mohamedu, Mohamed, Haya, Mohamed, Uafa, Sidena, Nayat eta Nanak Malerreka, Bertizarana eta Baztan izanen dituzte bitoki irailaren 3ra arte.

Udalaren harreran, Anbus-tegi alkateak «bertako familien konpromisoa» nabarmendu eta Frente Polisarioaren lana goraipatu zuen. «Luzeegi jotzen ari den gatazka baten emaitza da Oporrak Bakean». Saharaztaneko kideek, berriz, «bere lankidetzeta eta konpromisoa» eskertu zioten udalari. «Egonaldiekin beraien errealita-



Eskualdeko bidean. SAHARAZTAN

tearen lekukotza zuzena ekartzten dute eta egitasmo hau mantentzeak gure herrietan Saharako herriak sufritzen duen errealitatea ez atzentzea eta ikastea ahalbideratzen du».

288.976 euroko dirulaguntza Oronozko eguneko zentroaren proiekturako

TTIPI-TTAPA

Iaz abiatu zuten eskualdeko udalek adimen desgaitasuna dutenendako eguneko egoitzaren proiektua. Hainbat udalen elkarlana bada ere, zentroa Oronoz-Mugairin eginen denez, Baztango Udala arduratuko da kudeaketaz.

400.000 euro inguruko aurrekontua izanen du eta Nafarroako Gobernuak 288.975,90 euroko dirulaguntza eman dio. Aurten lehenbiziko fasea eginen dute, abuztuan hasi eta azaroan akituko dena, eta heldu den urtean bigarrena, hau da, azkena.

Iruñeko Gazte Orkestraren kontzertuak abuztuaren 3tik 10era Baztanen

R. OSKARIZ

Iruñeko Gazte Orkestrak hainbat kontzertu antolatu ditu Baztango herrietan abuztuan:

Abuztuak 3, larunbata. Kalejira eginen dute Elizondon barna, 20:00etan hasita. Erraldioen laguntzaz, herriko plazaraino joanen dira eta emanaldia izanen da bertan.

Abuztuak 4, igandea. Baztango dantzei buruzko saioa eginen dute Arizkungo plazan 19:00etan, Patxi Larralderen laguntzarekin.

Abuztuak 6, asteartea. Gambera musikako kontzertua eginen dute Iruñeko Jauregian 19:30ean.

Abuztuak 7, asteazkena. Haurrei zuzendutako ipuin musikatua izanen da Erratzuko plazan 19:00etan.

Abuztuak 8, ortzeguna. Txokoto tabernako goitiko solai-

ruan kontzertu intimoagoa eginen dute, 19:00etan.

Abuztuak 9, ortziralea. Orkestrak Elizondoko elizan eginen du kontzertua, organoaz lagundurik, 20:00etan.

Abuztuak 10, larunbata. *Printzesa Horia* opera aurkeztuko dute Braulio Iriarte pilotalekuan, Camille Saint-Saënsen musikarekin. Mirari Etxeberriak zuzenduko du ikuskizuna, Saioa Goñi eta Roberto Olabarria izanen dira ahots nagusiak eta Erik Rodriguez izanen da eszena zuzendaria. 21:00etan izanen da emanaldia eta Elizondoko Abesbatza Tikiaren kolaborazioa izanen dute.

Emanaldi guztiek sarrera librea izanen dute eta helburua «jarduera mota hau hiriburutik deszentralizatzea eta eskuragarriagoa egitea» da.

ELEKBERRI

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

EGUZKI PANELEN INSTALAZIOA

- Proiektu pertsonalizatu, baimen eta diru laguntzen gestioa
- Amortizazio planen azterketa
- Ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuen instalazioa
- Finantziario aukera

646854825 / 616898065 · elekberri@gmail.com · Elizondo (Baztan)

Independenteen jarrera salatu du udal taldeak

Gobernu Taldeak erantzuna eman dio Baztango Independentetek kaleratutako prentsa oharrari

TTIPI-TTAPA

Udal taldeak adierazi duenez, «Baztango Independenteen hautagaitzak ezustea eta harridura sortu zuen, baztandar gehienek geure buruari galdera bera egin geniolako: *Zerk elkartu du hain ideologia desberdineko jendea? Zer lortu nahi dute?* Interes pertsonalak defendatzeko elkartu zirela zabaldu zen, eta hori bera aitortu zuen taldeak hauteskunde kanpainan. Beharbada ironia kutsuarekin erran zuten hori? Ez dakigu. Urte bat pasa da orduz geroztik eta alderdiaren jokabidearen arabera norberak atera beharko ditu ondorioak».

Taldeak «izorratzeagatik egiten omen ditu gauza batzuk, izorratzeko asmoa dutela aditu izan diegu noizbait. Nor nahi dute izorratu? Udal Gobernu Taldea? Edo baztandarrak oro har? Zein da beren estrategia? Baztango erakundeak barnetik eraistea udalaren, Batzar Nagusiaren eta herrietako batzarren aurka joz?».

Independenteen asmoa «insumisioa eta desobedientzia aktiboa egitea» ez ote den galdetu dute; «horrek argituko luke zergatik ez duten parte hartzen hainbat kontseilu, batzorde edota bilkuretan. Gogoratu nahi diegu herritarren ordezkariak direla eta beren betebeharra dela».

PAC edo NPB

Nekazaritza Politika Bateratua da «Independenteen gai izarra, hitzez bederen. Mendiko hektareak esleitzeko irizpideak adosteko, bilera aunitz egin ditu Batzar Nagusiak, eta harri garria bada ere, taldeko zinegotziek ez dute beren kabuz proposamenik aurkeztu».

Horrez gain, «nahiz eta bileretan aho batez adostutako neurriak izan, osoko bilkuran kontra bozkatu izan dute. Gure sentsazioa da haien helburu bakarra NPBrako hektarea gehiago edukitzea dela». Izan ere, «lur eskasia izan arte ez zen inongo arazorik, nahiz eta denak jakitun ginen ez zela azienda larretzen, oinarrizko baldintzetako bat izanagatik. Hektarea galera udalaren ardura dela salatu dute, baina azienda ez larretzeak ez ote du eraginik mendiaren zikintzean? Udalak mendi guztia garbitu behar du? 7.731 biztanle gara eta gogoratu behar da herri lurak direla eta baztandar guztiei dagokigu herri lurrekin zer egin eta nola kudeatu».

Gogoratu dute «mendiaz gain, bertzelako beharrak ere badaudela: 1.200 kilometro bide, 32 ur depositu, 14 ikastetxe, 7 mediku kontsultategi, 20 frontoi inguru... Udal Gobernu Taldeak ez ditu nekazariak atzenduko, ezta gainerako baztandarrak ere».



MAITANE MARITORENA

Anizko karririk auzolanean garbituak

Anizko haur eta gaztettoek karririk garbi mantentzea denon lana dela ikasi zuten uztailearen 5ean, auzolanean herria garbitzen aritu baitziren. Karririk garbitu ondotik, ongi merezitako pintterdia izan zuten elkartean, pizza jatea.

III. Liburu Mikro Azoka abuztuaren 4an Txokoton

Aurten ere liburuaren merkatu ttikia antolatzea erabaki du Txokoto tabernak, eta hirugarren edizioa izanen da. Abuztuaren 4an egingen dute azoka, eta liburuak erosteko aukeraz gain, solasaldiak, liburu aurkezpenak eta musika izanen dira.

Martxan da aurtengo Artearen Ibilbidea

Artea maite dutenek hainbat erakusketari izanen dituzte uda honetan Baztanen, eta Kultura Zerbitzuak eskuorri batean bildu ditu denak. Pinturak, eskulturak, collageak... ikusteko aukera izanen da Arizkun, Amaiurren, Erratzun, Elizondon eta Iruritan.

OTEIZA

ARKITEKTOAK

665 71 56 96 - 943 42 52 43

www.oteizaarquitectos.com

Apote Karrika 8 (Maskonea)
31730 - Irurita (Baztan)

Askatasunaren H. 7 - 7ºE
20004 - Donostia

DESIGNER
CERTIFIED
PASSIVE HOUSE
DESIGNER

[oteizaarquitectos](https://www.instagram.com/oteizaarquitectos)

MARMOLES SOULE

www.marmolessoule.com

LAPIDAK
PANTEOIAK
HILERRIAK
ZAHARBERRITZEAK
GARBIKETAK
HARRI ZIZELKATZEA

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444
marmolessoule@gmail.com |

Garbiketo Zerbitzua

OBRA BUKAERAKO GARBIKETAK

NEKAZAL TURISMO ETXEA

PARTIKULERRANDAKO PROFESIOALENDAKO

*Orduka ere aritzen gara.

+ 34 671 756 572 | the.hautsend@gmail.com
ELIZONDO

ZUGARRAMURDI

Lapiztegia karrikako ur-sareko arazoa zein den topatu dute

Hodi aunitz arrailduak daude eta ura sortzen den hiru toki ere atzeman dituzte, ponpatze makinaren gastua handituz

MARIFA ETA KORO

Hornidurarekin izaten diren arazoak direla eta, Lapiztegia karrikako ur-sarea miatzen aritu ziren uztailaren 3an. Tubrietan robot bat sartu eta horrek pantaila batera eramaten zituen seinaleetatik informazio baliotsua hartu dute. Alde batetik, tuberia aunitz arrailduak direla ikusi dute. Bertze aldetik, ura sortzen den hiru toki atzeman dituzte, non ur hori tuboetan sartzen den. Horren ondorioz ura ponpatzeko makina lan eta lan aritzen da gelditu gabe, eta horrek gastu handia sortzen du. Orain arazoa zein den badakigu, baina nola konpondu eta nola ordaindu ikusi beharko da.



Miatze lanak Martineko baratzean.

Zugarramurdi, Primer Milenio (datu eta data zenbait) liburua argitaratu zuen. Errefeta egunean egingen diote aitortza.

Fermin Iriarteri eskertza errefeta egunean

Uztaileko osoko bilkuran hartutako erabakian, Fermin Iriarteri errekonozimendu bat egitea adostu du udalak. Herriko historia eta kultura biltzeko lan haundia eginga dauka Ferminek, eta ongi merezitako eskertza izanen du hau. Erraterako, duela urte batzuk,

Ardi ile bilketa abuztuaren 20an Martineko aparkalekuan Bertze behin ere, ardi ilea nonahi eta nolanahi ez botatzea eskatu du Herriko Etxeak, eta horretarako abuztuaren 20an bilduko dela jakinarazi du, goizez, 10:00etatik 13:00etara, Martineko aparkalekuan.



MARIFA ETA KORO

Ttakunbirak geldialdia plazan

Uztailaren 12an Elizondotik abiatu zen 10. Ttakunbira plazan gelditu eta txalaparta doinu batzuk aditzeko aukera izan zen. Ekimen honekin txalaparta Euskal Herriko txokoetara eramatea dute helburu, eta aurtengoan Elizondotik Hernanirainoko bidea egingen dute, 300 bat kilometro denera.



ARTXIBOKOA

Bildots ile-mozte txapelketa bestetan

Aurten ere bildots ile-mozte txapelketa egingen da bestetan, abuztuaren 16an. Gehienok ez genuen gisa honetako txapelketarik ezagutzen, eta ikusgarria suertatu zen. Joan den urtean bezala, oraingoan ere Kortariko bordako ardiekin arituko dira, eta 30 bat parte hartzaile espero dituzte.

JOSENEA ZONE AUTO

GARBIKETA ZENTROA AUTOZERBITZUA DANTXARINEAN

Lavanderia Autoservicio Laundry

MERKATUKO MAKINARIK BERRIENAK

- 2 garbigailu 8 kilora arte
- 2 garbigailu 14 kilora arte
- 4 lehorgailu 14 kilora arte

Ordainketa: **Speed Queen** app-aren bitartez egin daiteke

PREZIO ONEAN

+34 948 599 236 • www.josenea.es • centrauto@josenea.es
Egunero 7/7 irekita, 08:00 - 20:00
Josenea Zone Auto (Dantxarineko mugan) Ctra. N-121-B Km 72,5 Dantxarinea Nafarroa.

BRIKO BAZTAN, SL

Drogeria · Garbiketa produktua
Feretaria · Sukaldeko tresnak
Mozorroak · Papertegia
Kiroleko eta mendiko jantziak
Moda · Oinetakoak
Laneo arropa · Bitxiak
Lurrin-denda
Kosmetika, Elektronika
Telefonoak · Poltsak eta maletak
Etab.

T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBARTE
(Sarrera Legasatik)



Idiek dakarten burdinez betetako gurdiari aurrekua dantzaten. ALICIA DEL CASTILLO

Udarako kultur agenda oparoa betetzen ari da

Pilotaren Unibertsoa eta patata tortilla txapelketa izanen dira larunbatean eta XVI. Burdinaren Eguna abuztuaren 10ean

ARANTXA ETA IRAIA

Joan den larunbateko Ikaburuko lezeen egunarekin hasiera eman zitzaion urtero herriko etxeak antolatzen duen udako agenda zabalari. Uztailaren 20an giro onean ospaturiko lezeen eguna eta gero etorriko dira bertze hainbat ekitaldi ere.

Pilotaren Unibertsoa eta patata tortilla txapelketa larunbatean

Horren barnean dugu, pilotaren unibertsoa. Hainbat pilota modalitate ikusteko aukera izanen dute uztailearen

27an, larunbatez, herriko frontoian. Gero, herriko sukaldari finen erakustaldia izanen da, urteroko tortilla txapelketa eginen baita. Urteroko gisan, epaimahaiak hiru modalitate sarituko ditu: patata tortilla tradizionala, estilo librekoa eta profesionalak egindakoa. Denak aski goxoak izaten dira!

HAMASEIGARREN EDIZIOA BETEKO DU BURDINAREN EGUNAK AURTEN

XVI. Burdinaren Eguna abuztuaren 10ean

Hortik aste pare batera, abuztuaren 10ean, urteroko ekitaldi handia izanen da: Burdinaren eguna. Aurten hamaseigarren edizioa beteko du. XVI-XIX. mendeen artean Urdazubiko monastegiak izan zuen garrantzia azpimarratuz, antzinako garaietan egiten zen gisan, Bizkaitik ekarritako burdina fraileek erosten dute, gero Donibane Lohizunera eramateko. Hortaz, gertaera historiko hori gogoratu ondotik, zikiroa eta musika izanen dute. Abuztuaren 10ean, larunbatean 10:00etan, artisautza azoka eta haurrentzako jokoak izanen dituzte. 12:00etan burdin mineralez kargatuta datozen idiak ailegatuko dira. Burdina urrezko txanponengatik trukatzeko ekitaldia izanen dute eta 14:30ean herri bazkaria, zikiro-jatea. 17:00etan kontzertuak izanen dira Mariachi Imperial Elegancia Mexicana taldearekin eta Jean Luis Bergara abeslariarekin.

Herri kirol erakustaldia abuztuaren 24an

Udako kultur eta kirol agenda zabalarekin finitzeko, abuztuaren 24an herri kirol erakustaldia izanen da frontoian. Gero, urteroko gisan, sardina-jatea izanen dute. Hurbiltzen den guztiak frontoian zerbait jateko aukera izanen du, arratsaldea ongi borobiltzeko.



Agestatarrak eta Jaurena, txapelkun.

Herriko pilotariak garaile izan dira herriartekoan Baztanekin

ARANTXA ETA IRAIA

Urte guztian zehar herriko pilotari ttipiek lan handia egiten dute eta uztaile honetan ere, emaitza bikainarekin amaitu dute denboraldia. Izan ere, uztailearen 7an Nafarroako Herriarteko pilota finala jokatu zen Iruñeko Labrit pilotalekuan eta bertan aritu Baztango eta Berako pilotari gazteak. Hiru kategoria izanik, benjaminak, alebinak eta infantilak, Baztanek 2-1 irabazi zuen. Aipatzekoa da Baztango taldean Urdazubiko hiru pilotari aritu zirela, argazkian ikusten den bezala: Ekhi Jaurena benjaminetan, Julen Agesta alebinetan eta Ibai Agesta infantiletan. Txapel politik etxera ekaririk, zorionak hiruei!

MÁRMOLES
AMEZTI
Desde 1994

SUKALDEKO ETA KOMUNEKO ENTZIMERAK EGITEN DITUGU

info@marmolesamezti.com • www.marmolesamezti.com

Iruñea Irun errepidea, z/g.
ORONOZ-MUGAIRI

T. (+34) 948 592 325
F. (+34) 948 592 295

Montxo
JATETXEA • ERRETEGIA

Tradizioa, historia eta gastronomia

asadormontxo.com

Awular karrika, 12
31711 Urdazubi-Urdax (NAFARROA)
+34 848 85 00 21
info@asadormontxo.com

Sara Rugby Touch agorrilaren 3an prest dute Animainean

Bortz jokalarik bortzen kontrako txapelketan parte hartzeko izena emateko epea hilaren 28an bukatuko da

GANEX

Sarako Rugby Touch agorri-lehen larunbatean egingen dute Animaineko errugbi zelaian, Sarako Izarra errugbi taldeak antolatua. Izena uztailearen 28a baino lehen egin behar da 06 65 48 05 37 telefonoan edo Sarako Izarra errugbi taldearen Instagram kontuan. Bortz jokalarik bortz jokalariren kontrako partidak izanen dira (gehienez hamai-ka jokalarik eman dezakete izena talde bakoitzeko). Jokalari bakoitzak 5 euro ordaindu beharko ditu. Izena ematerakoan taldearen izena eta kolorea jakinarazi behar da. Agorrilaren 3an, larunbatean 10:30ean egingen dute elkarretaratzea. 11:30ean hasiko da errugbi txapelketa eta ostatua eta taloak ere izanen dituzte Animainean.



Dantza ikuskizuna plazan.

Zazpiak Bat taldearen eskutik udako ikusgarriak

Zazpiak Bat dantza taldearen eskutik udako ikusgarriak berriz ere hasiak dira asteartean plazan. Uztailearen 9an eta 23an egin dituzte lehenak eta uztailearen 30ean eta agorrilaren 6an eta 20an izanen dituzte hurrengo hitzorduak, 19:00etan. Jatekoa eta edatekoa ere bertan eskaintzen dute, dantza eta herri kirol saioak ikusi bidenabarkoan.



SARAKO LEZEA

Korrontzi taldearen emanaldia lezeetan

Korrontzi taldeak egin du bere kontzertua lezeetan, Sarako gazteriak antolatua. Beti bezala ikusgarri ederra egin du, publikoak esku zarta ederrak egin dizkio. Lehenbiziko aldia egiten zutela lezeetan, baina gauza eder hori ikusita, beharbada berriz etorriko dira alde eder horretara.



SARAKO IZARRA PILOTA

Sarako Izarrako neskek txapeldun

Union Basqueko 14 urtez beheitiko nesken trinketeko paleta goma txapelketa irabazi dute Sarako Izarrako Elorri Endarak, Joane Endarak eta Maina Funosasek. Abarratia taldeko Idoia Etxegoieni eta Maitena Bidarti 40-31 irabazi zieten Endara ahizpek Uztaritzen jokaturako finalean.

Lehen eta bigarren itzulian Peio Dufau abertzalea izan da bozkatuena Saran

TTIPI-TTAPA

Abertzaleak lehen aldiz Frantziako asanblean izanen dira, seigarren barrutian EH Baiko kidea den Peio Dufau izan duen babesarengatik (bozen %36,28), baina eskuin-muturraren gorakada izugarria izan da. Bigarren itzulian, Saran,

Peio Dufauk (NFP, ezkerreko Fronte Herritar Berria), 613 boza lortu zituen, lehen itzulian baino 155 gehiago; Christian Devezek (Ensemble, zentroa), 464 boza (131 gehiago) eta Lastecoueres (RN, eskuin muturra), 351 boza (66 gehiago).



SARAKO LEZEA

Lezeen esplorazio originala ipuinekin

Sarako lezearen esplorazio originala ipuin eta elezaharren bidez egin zuten ekainaren 28an. Ttikiak (frantsesez) eta Maddi Zubeldiak (euskaraz) lagundurik, lezearen bihotzean bidaia liluragarri bat egiteko aukera izan zuten, «denboraz kanpoko esperientzia bat».



Kilimak taldea oholtzan. JL BESSONART

Giro ederra izan dute Amotze auzoko bestetan ere

Ortzirale arratseko zikiroak 400 afaltiar bildu zituen eta igandeko kantu txapelketan hamar partehartzaile izan ziren

JL BESSONART

Amotzeko bestek hartu dute herrikoen segida eta biziki oihartzun ona utzi dute. Gazte komitekoak baikor agertu dira aurtengoarekin. Aroa kili-kolo izanik ere, jendea hurbildu zen ekitaldietara. Ortzirale arratseko zikiroak 400 afaltiar bildu zituen. Larunbateko lasterkaldian 80 kidek parte hartu zuten. Arratseko kontzertuan Puntu-Kakotx, Elektrotzaranga, Kilimak, Etxepe eta DJ Doli Soinu Sistema aritu ziren. Igandean, meza, pilota partidak eta Maider Cigarroa kantari ezaguna.



Biarnesak kantari.

Ondoko Kantu txapelketak hamar bat partehartzaile ezarri zituen oholtza gainean. Biarnes kantari hirukoteak mendietako kantu ezin ederagoa azaldu zuten.



JL BESSONART

Herriko Etxeko atea trabatua

Bestetako astelehen eta astearteko gauean, parpin blokeo batzu pilatuak izan dira ate nagusiaren aitzinean, hurbilean zelarik ziment zakua eskorga batean. Jaun merak salaketa pausatu du jendarmerian. Nor ote den eginbide horren giblean, eraso pertsonala edo gau-xori batzuen obra, galdera hor dago.



ARTXIBOKOA

Laborarien gaualdiak hirugarren urtez

Hirugarren urtez segidan, Herriko etxeak antolatu ditu laborarien gaualdi bereziak, Xan Ithourria plazan. Lehena uztailaren 21ean egitekoa zen eta hurrengoa agorrilaren 18an (18:00-22:00). Karia hortarat, laborariet eta tokiko ekoizleek plater finak proposatuko dituzte baserrietako ekoizpenekin.

Donostiako Musika Hamabostaldiko bi emanaldi agorrilean Larrekon

JL BESSONART

Donostiako Musika Hamabostaldi Ibiltariaren bederatzigarren edizioaren kari, bi ikuskizungoi mailakoak izanen dituzte aurten ere Larreko kulturgunean.

Agorrilaren 14an, asteaztean 20:00etan, Euskadiko

Orkestra Sinfonikoak musika klasikoaren eta profanoaren arteko programa berezia eskainiko du: Aita Donostia, John Williams, Frederic Chiasson, Da Costa eta Van Beethoven handiaren piezak joko dituzte. Prezio osoa 24 euro, 18 urtera artekoek 5 euro.

Agorrilaren 24an, larunbatean 21:00etan, *Hechizo y Duende* emanaldia, hemen ere gaitzeko programazioa, musika klasikoa, flamenko dantza, poesia eta Frederico Garcia Lorcaren omenezko proiektzioa. Prezio osoa 16 euro, 18 urtera arte 5 euro.

Erreserbak egin daitezke, Euskal Herriko Turismo bulegoetan edo www.en-pays-basque.fr.

Frantziako hauteskunde emaitzak

Abertzaleak lehen aldiz Frantziako asanblean izanen dira, baina eskuin-muturraren gorakada izugarria izan da. Senperen, Peio Dufauk (ezkerreko fronte herritarra), 1.553 boza; Lastecoueres (eskuin muturra), 1.304 boza eta Christian Deveze (zentroa), 1.118 boza.



Larraunek lortu zuen txapel nagusia, Doneztebe menperatuta.



Baztanek eta Berak final ttiki ikusgarria eskaini zuten.

Baztan txapeldun, Bera eta Doneztebe txapeldunorde

Nafarroako herriarteko txapelketa ttikia irabazi zion Baztanek Berari, eta Doneztebek Larraunen kontra galdu zuen handia

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Herriarteko Pilota Txapelketako 54. edizioko finalak jokatu zituzten uztailaren 7an Iruñeko Labrit pilotalekuan. San Fermin eguneko goizean, ttikiaren mailako finalean, Baztanek irabazi zion Berari (2-1). Nagusien kategorian, berriz, Doneztebek ezin izan zuen Larraun garaitu (1-2). 700 pilotazalek bete zituzten Labriteko harmailak, giro ederrean.

Ttikietan Baztan txapeldun

Herrietako ttikiko finala has-teko ttikiaren, benjamin mai-

lakoek, ikuskizun ederra eskaini zuten. Partida bikain eta parekatuaren ondotik, hamazazpinako berdinketaren ondotik, gerora erabakigarria izan zen tantoa eta puntuak lortu zuen Baztanek. 2022an txapelketa nagusia irabazi zuen Baztanek eta bi urte beranduago, ttikia.

Benjaminak: Ekhi Jaurena eta Oihan Etxenike (Baztan), 18 - Mikel Ugalde eta Gexan Lizardi (Bera), 17

Alebinak: Julen Agesta eta Hegoi Otxandorena (Baztan), 18 - Beñat Goñi eta Eñaut Zubieta (Bera), 8



Fernando Anbustegi eta Juanjo Atxa, txapeldunaren koparekin.

Infantilak: Ibai Agesta eta Oihan Braña (Baztan), 16 - Erik Igoa eta Jon Lazkanotegi (Bera), 18

Nagusietan Larraun garaile

Txapelketa nagusiko finala Doneztebeko kadeteen garai-penarekin hasi zen, pronostikoak betetz. Baina Larraunek bertze bi partidak, jubenil eta senior mailakoak, irabazi eta lortu zuen herriarteko txapelketa bereganatzea, azkena

lortu zuenetik 36 urte beranduago.

Kadeteak: Hegoi Fagoaga eta Iker Anzizar (Doneztebe), 22 - Alai Olleta eta Egoi Ijurko (Larraun), 7

Jubenilak: Oier Eskudero eta Endika Santesteban (Doneztebe), 14 - Aitor Eguzkiza eta Endika Galartza (Larraun), 22

Seniorrak: Mikel Mikelarena eta Gaizka Agirre (Doneztebe), 13 - Iñaki Galartza eta Iñigo Gurrea (Larraun), 22

Benito Taintaren omenezko pilota txapelketaren finalak jokatu dituzte

Benito Taintaren omenez estreinakoz egin duten pilota txapelketako finalak uztailaren 6an jokatu zituzten Lesakan. Nesken kategorian, Errekako Nahia Bertiz sunbildarrak 15-18 galdu zuen Lide Murua ataundarraren kontra. Mutiletan, gaxtetxoetan, Errekako

Iker Anzizarrek 18-3 irabazi zion Gaztelekuko Aimar Berrozi. Jubeniletan, Abantzu-Zestoako Aritz Olaizolak 15-22 galdu zuen Ibai Saez ataundarraren kontra. Seniorretan, Oberenako Andoni Sarasibarrek 22-5 irabazi zion Ospele-Orioko Lorenz Orbegozori.



Txapelketako finalistak, antolatzaile eta Taintaren sendiarekin. A. AROTZENA



Nerea Sorondo beratarrak irabazi zuen aizkolari txapelketa. NHKF

Txapel uzta polita aurten ere Iruñeko sanferminetatik

Nerea Sorondo, Maika Ariztegi, Dario Trantxe, Jexux Goñi eta Esti Gastearena Nafarroako txapeldun izan dira

TTIPI-TTAPA

Ohi bezala, Iruñeko sanferminen erakusleihu handian, Nafarroako Herri Kirol Federazioak Nafarroako hainbat txapelketa antolatu ditu aurten ere Foruen Plazan. Eskualdeko kirolariak maila bikaina eman dute eta zenbait txapel lortu dituzte.

Erraterako, Nafarroako aizkolari txapelketan Nerea Sorondo beratarrak nagusitu zen. Bi oineko eta 45 ontzako hiru enbor mozteko 12 minutu eta 11 segundo aski izan zituen Sorondok eta sei minutu baino gehiagoko tartea atera zion bigarrenari. Maika Ariztegi iturendarra eta Xanta Souza

lesakarra hirugarren eta laugarren sailkatu ziren, hurrenez hurren.

Nafarroako harri altxatze txapelketan hirugarren izan zen Josetxo Urrutia leitzarra, Berriozarko Oskar Aguasen eta Iruñeko Albaro Zugarrondoren gibeletik.

Nafarroako kadeteen, emakumezkoen eta gizonezkoen arpana txapelketetan eskualdeko hainbat kirolarik parte hartu zuten, eta tartean, Oier Migeltorena berroetarrak eta Aiert Fagoaga arraioztarrak kadete mailako txapela jauntzi zuten. Igantziko Danel Urtxegi eta Mattin Eugi bigarren izan ziren eta Arantzako Saioa Etxegarai eta Oinatz Madariaga laugarren. Emakumezkoen txapelketan, Arantzako Naiara Manzano laugarren izan zen, Berriozarko Aurkene Arocarekin.

Ingudearekin eta txingekin lau txapeldunak eskualdekoak

Ingude altxatze txapelketan, emakumezkoetan Maika Ariztegi iturendarra gailendu zen hamalaugarren aldiz (93 altxaldi) eta gizonezkoetan, lehen aldiz, Elizondoko Dario Trantxe (84), Leitzako Josetxo Urru-

tiaren aitzinetik (80). Txinga eramaten ere, emakumeen nahiz gizonen txapelak eskualdera etorri ziren, Esti Gastearena sunbildarraren eta Jexux Goñi lekaroztarraren eskutik.

Nafarroako bikotekako aizkora txapelketan, Zigako Joxean Etxeberria txapedun suertatu zen, Iker Vicentekin bikote eginez. Txomin Amundarain eta Eneko Saralegi bigarren izan ziren eta Jon Rekondo leitzarra eta Oier Kañamares hirugarren. Orga jokoan bigarren izan zen Unai Bertiz sunbildarra, Oskar Aguasen gibeletik.

Nafarroako 3. mailako aizkora kanporaketa

Abuztuaren 17an Arantzan jokatu den Nafarroako hirugarren mailako txapelketa finalerako bortz txartelak ere jokoan izan zituzten uztaileen 11n Iruñean. Hamahiru aizkolari aritu ziren lehian eta Julen Urrutia arraioztarra izan zen finalera sailkatu zen bakarra, hirugarren postuan. Oier Larretxea beratarrak (6.), Mikel Santesteban zubietarra (7.) eta Xabier Mitxelena iruritarra (10.) kanpo gelditu ziren.



ADOS PILOTA

Adosen San Fermin txapelak Leitzara, Etxekolonea gogoan

Adosen San Fermin torneoko binakako finala Iturriaga leitzarrak eta Zabalak 22-17 irabazi zioten Oskoz eta Galeanori. Lau eta erdikoan, Goiuri Zabaletak 22-11 irabazi zion Barrokali. Sari banaketan, Etxekolonea zubietarra gogoan izan zuten.

Herriz herri txapelketako 2. saioa Elizondon

Nafarroako Herri Kirol Federazioak Herriz Herri txapelketa antolatu du aurten ere. Maila absolutuan eta gazteen mailan jokatu dute, eta absolutuan eskualdeko hiru talde ari dira, hiruak baztandarrak: Arraioz, Basaburua eta Irurita. 21 urtez beheitiko mailan Basaraiga taldean ariko dira Basaburua, Arantza eta Igantziko gazteak. Uztaileen 20an hasi zen Beran eta hilaren 27an Elizondon jokatu dute bigarren jardunaldia, larunbatean 17:00etan Iriarte pilotalekuan.

AGENDA

UZTAILAK 25 - IRAILAK 5

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



ALICIA DEL CASTILLO

URDAZUBI XVI. Burdinaren Azoka

Artisautza azoka, haurrendako jokoak, burdin mineralaz betetako orgen etorrera, herri bazkaria, kontzertuak... Abuztuaren 10ean. Informazio osoa 67. orrialdean.

KONTZERTUAK

ARANTZA

Aterpeko kontzertuak

Abuztuaren 10ean, Petti eta Xabaltx, 19:30ean Arantzako aterpean. Abuztuaren 17an Makala DJ eta Lagunak, 19:30ean Arantzako aterpean. Abuztuaren 24an, Gailu taldea, 19:30ean Arantzako aterpean. Abuztuaren 31n, Esne Beltza eta Alai DH, 19:30ean Arantzako Aterpean.

ELIZONDO

Iruñeko Gazte Orkestra

Abuztuaren 3an, Iruñeko Gazte Orkestraren kalejira eta kontzertua erraldoiekin batera, 20:00etan hasita. Abuztuaren 8an Iruñeko Gazte Orkestraren eskutik kontzertu intimoa Txoko tabernako goitiko solaituan, 19:00etan. Abuztuaren 9an, Iruñeko Gazte Orkestraren kontzertua organoaz lagundurik, 20:00etan elizan. Abuztuaren 10ean, Iruñeko Gazte Orkestraren eta Elizondoko

Abesbatza Ttikiaren 'Printzesa Horia' operaren aurkezpena, 21:00etan.

ARIZKUN

Iruñeko Gazte Orkestra

Abuztuaren 4an, Baztango dantzei buruzko saioa Patxi Larralde eta Iruñeko Gazte Orkestrako kideekin, Arizkungo plazan, 19:00etan.

IRURITA

Iruñeko Gazte Orkestra

Abuztuaren 6an, Iruñeko Gazte Orkestraren ganbera musika kontzertua Iruritako Jauregian, 19:30ean.

ERRATZU

Iruñeko Gazte Orkestra

Abuztuaren 7an, Iruñeko Gazte Orkestraren eskutik haurrendako ipuin musikatua, Erratzuko plazan, 19:00etan.

SENPERE

Donostiako Musika Hamabostaldia

Abuztuaren 14an, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren

emanaldia Larrekon, 20:00etan. Abuztuaren 24an, 'Hechizo y duende' emanaldia, musika klasikoa, flamenkoa, poesia eta Federico Garcia Lorcaren omenezko proiektzioa, 21:00etan Larrekon.

ZUGARRAMURDI

Eguzkilore, jazz mitologikoa

Uztailaren 27an, Bazkun Proiektuak taldeak 'Eguzkilore, jazz mitologikoa' kontzertua joko du lezean, 12:00etan. Kultur'24 programaren barrenean.

DANTZAK

ELIZONDO

Dantza garaikidea

Abuztuaren 3an, Qabalum konpainiaren 'Todo este ruido' dantza garaikide ikuskizuna 19:30ean Elizondoko plazan. Kultur'24 programaren barrenean.

TOPAKETAK

BERA

Berako Erraldioen II. Topaketa

Abuztuaren 31n, goizean hasita. Xehetasunak 12. orrian.

AZOKAK

ELIZONDO

III. Liburu Mikro Azoka

Abuztuaren 4an, Txokoto tabernan.

JAIALDIAK

ARANTZA

Bull jai

Abuztuaren 10ean, Arantzako aterpean. Goizean txaranga, 17:00etan hasita La Jodedera, Sakamantekas, Mexikortxo eta Kittu.

ERAKUSKETAK

LESAKA

Akuarelak komentuan

Uztailaren 23tik abuztuaren 29ra Paco Pozo Díaz eta Pello Roteta Sagarzazuren akuarelak Harriondoa kultur etxeke komentuan.

ARIZKUN

Xabier Soubeleten pintura erakusketa

Sasternea etxean, irailera arte. Ortzegunetik igandera 11:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara.

Santxotena Parke Museoko eskultura erakusketa

Bozaten, abuztuaren 31ra arte. Asteartetik larunbatera 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era eta igandeetan 11:00etatik 14:00etara.

ZERBITZUAK

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK



Saiara Mitxelena
ETXEBIZITZEN AGOLARITZA
609 057 040
nereetxea@hotmail.com
www.inmobiliariasaiamitxelena.com

SALGAI

ELIZONDO. Baztanberrin apartamentua salgai, garajea eta trastelekua rekin. ☎658 99 83 40.

KONPARTITZEKO

MALERREKA. Pisu bila, errentan hartzeko edo erosteko prest. Errioxakoa, 25 urte, psikologoa eta lanean ari dena. Jatorra eta lasaia. Euskara ikasten ari dena. ☎601 08 09 93.

Eskualdeko gazte bat Tenerifan pisu bila konpartitzeko. Unibertsitatetik hurbil. ☎666 88 22 66.

ERRENTAN EMATEKO



BENICARLO. Apartamentua errentan emateko. 2 logea, terraza, igerilekua. Hondartzatik hurbil. Deitu edo idatzi Whatsapez. ☎680 88 77 56.

ERRENTAN HARTZEKO

Hiru gelako pisu bila. Irailetik aurrera sartzeko. ☎662 45 91 68.

GARAJEAK-LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

BERA. Kanttonberi karrikan, 115 m²ko lokal argitsua errentan emateko, bulegorako, mediku kontsultarako eta abarrerako aproposa. ☎620 93 92 54.

DENETARIK

ELIZONDO. Liburu dendan traspas-



satzeko. Informazio gehiagorako deitu. ☎948 58 09 02

LANA

ESKARIAK

Eskualdeko gazte bat kamioi gidari lanetan aritzeko prest. C eta C+E

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58 🌐 www.erran.eus
☎ 744 48 43 61 @ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 euro** Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

gidatzeko baimenak, CAPa eta taografoko txartelaren jabe. ☎608 89 99 48.

ESKAINTZAK

Mendi Mendian bentan sukaldari baten bila. Interesatuak bidali curriculum: mendimendian@hotmail.com. Edo deitu. ☎948 63 07 23.

LESAKA. Astean behin garbiketa lanetan aritzeko pertsona baten bila. ☎613 18 80 25.

BERA. Pagola harategian egun osoko lanaldian aritzeko langilea behar dute. ☎948 63 00 54 / 722 84 12 85.

ELIZONDO. Diseinatzaile/saltzaile bila. Almaco Baztan zeramika eta komunen dendan lanean aritzeko pertsona bat behar dute. Barne diseinatzaile ikasketak (interiorista) baditu hobeki. ☎661 30 61 23 / 948 58 01 04.

ETXALAR. Elutsa ostatuan zerbitzaria behar dute asteburuetan lan egiteko eta astegunez egun batzuetan ere bai. ☎948 63 51 91.


BERA. Ibardingo Benta Gorrian zerbitzari bat behar dute urte osorako. Ordutegia: 12:00etatik 16:00etara. Frantsesa jakitea baloratuko dute. Bidali curriculumak edo deitu. *benitagorria@hotmail.com*. ☎618 00 27 31.

IGANTZI. Astean behin (3 ordu) etxeko garbiketa egiteko pertsona bat behar dute. Gizarte Segurantzaren alta emanen dute. ☎630 54 48 16.

ANIMALIAK

OPARITZEKO

BAZTAN. Zakurkume bat oparitzeko, irakasteko momentuan. Dudak Whatsapp bidez. ☎948 58 11 36 / 636 18 15 46.



Katuak oparitzeko. ☎626 33 53 98.

MOTORRAK


SALGAI



Autoa salgai. Egoera onean. ☎690 05 09 03.



Suzuki Jimny salgai. 1.5ddis, 85cv, 2009.urtekoa. 79.000 km. 12.500 euro. ☎666 32 00 53.



Ford Focus bat salgai. Gasolina. 125 CV. 2018koa. 32.104 km. ☎653 70 79 09.



BMW 320 familiarra salgai. Hagitz egoera onean eta prezio negoziagarria. 163 CV. ☎699 60 64 35.

DENETARIK

GALDU-AURKITUAK

LESAKA. Xagu liburu dendako ate ondoan etxeko giltza bat agertu da, giltzatarokik eta deus gabe.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 5,45 €
- 1.koa 5,33 €
- 2.koa 5,21 €

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,56 €
- 1.koa 5,42 €
- 2.koa 5,31 €

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttiak

- (15 egun inguruokoa).

Aretze mestizoak

- Urruxak 150,00 €
- Idixkoak 210,00 €

Aretze nabarrak

- Urruxak: 50,00 €
- Idixkoak 90,00 €

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 5,49/5,59 €
- Zaldi-behorrak: 2,52/2,69€

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,60/8,70 €
- 8-10 kilokoak: 7,30/8,00 €

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 65 €

Zerri gizona 1,848 €

Zerramak 0,850€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua uztailaren 5etik 12ra bitarteko prezioak)

SALEROSKETAK



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lureko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.




Haurrentzako osagarriak salgai. ☎677 65 33 84.

Laxoko eskularru bila. Erabilitako eskularru motza edo luzea erosi nahiko nuke. Baita pilota ere. Laxoko beste materiala izanez gero, erran faborez. ☎685 46 63 46.



Egurrezko ohatze artikulatua. Koltxoia viscoelastic. Neurriak: zabalera 105 cm, luzera 180 cm eta altuera 50 cm. la erabili gabea. Salneurria: 1.200 euro. Whatsapez. ☎669 21 48 56.



Ezpelarekin egindako tresnak salgai, sukaldean erabiltzeko aski onak. Kuxetak, sardexkak eta espatulak saltzeko. Idatzi Whatsapez. ☎627 25 88 17.

URTEBETETZEAK



Aunitz urtez printzesa!
Urrozko **Arenek**
4 urte beteko ditu abuztuaren 6an. Lau muxu haundi ebekoen eta bereziki Ibai eta Ugaitzen partez!
Egun polita pasatu...



Tiane Larretxea de Mateo beratarrak 21 urte beteko ditu uztailaren 30ean. Ongi pasatu eguna eta besta ederrarekin ospatu! 21 muxu!



Agorrilaren 2an Gorostapoloko **Siuka Bidegarai Iturrek** 5 urte beteko ditu. Aunitz urtez Siuka maluca! Parabéns borboletinha mugalari! Musu ainitz Mamãe eta Aitaren partez. Zeruraino maite zaitugu! Segi beti bezain alai!!!

SORTZEAK

• **Iban Uranga Etxegarai**, Sarakoa, ekainaren 22an.

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN
Jarrai gaitzazu!

facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa

DONEZTEBEko AVIA GASOLINDEGIA

CLUB AVIA txartelarekin %2ko deskontua erregaian eta %5eko deskontua dendako produktuetan

Leitza bidea, 49 · T. 948 451 679 · www.doneztebe.net

KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea
www.kulturkari.com

WEB orriak

Landetxeak Komertzioak Gremioak...

Ordenagailu, tablet eta mugikorretara egokitua
Kontaktu formularioa
Lokalizazio-mapa
Testu eta argazki galeria
Hizkuntzak aukeran

ZERBITZUAK

URTEURRENA

Ainara MARIZKURRENA SAGASETA
2023ko abuztuaren 7an
I. URTEURRENA

*Gure bihotzetan utzi duzun hutsunea bete ezina da;
kuadrillako saltsari perrexila falta zaio.
Gure txokoetan zure irriaren oihartzuna aditzen segituko dugu.
Aunitz matte zattugu.*



ZURE KUADRILLA

URTEURRENA



Xole AGIRRE ARREGI
Narbarten, 2023ko uztailaren 12an, 92 urte zituela
I. URTEURRENA

Izarrrik ederrena hor goiko zeruan zu zara guri dizdiran.

Bere aldeko meza abuztuaren 4an izanen da Narbarteko elizan, 11:00etan.

ZURE FAMILIA


HILBERRIAK

- **Pierre Hayet**, Sara, ekainaren 27an, 93 urte.
- **Jean Pierre Barrenetxe**, Sara, ekainaren 27an, 71 urte.
- **Simon Tapia**, Sara, ekainaren 18an, 84 urte.
- **Patxiku Juanena Elizondo**, Donamaria, uztailaren 5ean, 85 urte.
- **Rhamy Mohammed Mebarki Khayar**, Goizueta, uztailaren 7an, 58 urte.
- **M^a Trinidad Jaurena Berrueta**, Elizondo, uztailaren 10ean, 100 urte.
- **M^a Jesus Altugarai Lasarte**, Lesaka, uztailaren 10ean, 66 urte.
- **M^a Isabel Dufurrena Etxenike**, Arizkun, uztailaren 10ean, 85 urte.
- **M^a Jesus Tamayo Taberna**, Elizondo, uztailaren 11n, 74 urte.

URTEURRENA

Gurutze IPARRAGIRRE OSKOZ

Hamargarren urteurrena, zure hutsunea betetzea zaila dena, egunak pasatu ahala, zure falta sumatuz bizitzen saiatzen garena, ezin atzendu zure irribarra, bizitzeko zenuen zirara, gure bihotzetan utzi zenuen aztarna. Zuregatik ikasi genuen aunitz eta horregatik orain gara garena. Eskerrik asko, Gurutze, guretzat izan baitzinen zoriontasunean zoriontasunik ederrena!



GOIZANE LEHENGUSINA

Oroigarriak

- Pertsonalizatuak
- Oroigarri bikoitzak edo sinpleak
- Hainbat neurri eta kopuru
- Fotomuntaketak eta argazki-moldaketak
- Ereduak aukeran
- Gutun-azalekin entregatzen dira



KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea
www.kulturkari.com
Tel. 948 63 54 58

IRACHE
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

24h **948 63 74 04 / 948 19 70 70**
www.tanatoriosirache.es

Baztan Bidasoa Ehorzketak 

BAZTAN ELIZONDO · Santiago Kalea, 79
MALERREKA · DONEZTEBE
Mourgues etorbidea, 24

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere.

24 ORDU | **948 48 95 50**
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko


IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN AQUÍ, A TU LADO



Gure lurra, gure jendea, gure sustraiaik


TANATORIOAK

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe


948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

HITZ GEZIDUNAK

	Ogi saski	la	Eikartea	Ehko mendilerroa	Beltza
	Sarrera edo Irteera	Herbal		Titanioa	Bokal mehea
			Partituren euskarri		
			Bokal errepikatua		
	Frantziako eskualdea				Uranioa
	Ostalari				Senidea
◆ Deitura	Pl., ugaztun karraskaria			Behar	
Arloak, sailak	Gisu labea			Beita	
			Izana		
			Ederto		
◆ Izena			Txori bidalaria		Sasoi
Guraso arra			Baratzeko landarea		
		Detektageilu mota		2	
		Labore mota		Arras	
Zuberoako herria			Joan nadin		
Kraka			Edari bizi		
		Oso			500
		Bokal errepikatua			Kasik
Emakume izena			Landare mota		
Ezin garaituzkoa			Azkeneko letra		
				Ez eme	

◆ Gure lurraldeko pilotari ohia, goizuetarra

GOITIBEHERA



Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak.

- [1] Nafarroa Behereko herria, Amikuzen. [2] Hormetan argia sartzeko egiten diren irekiguneak.
- [3] Oihaneko erregea omen da. [4] Burdinola. [7] Sail, alor.
- [8] Gipuzkoako ibaia. [9] Loreak eman, loretan jarri.
- [10] Harrotu. [11] Gaiak xehatzeko erabiltzen den harrizko, metalezko edo zurezko ontzi sendo, zaparri.

ERANTZUNAK




ZILHEKOA
LEIHOAK
LEHOIA
OIHAL
OLHA
OLA
ARLO
UROLA
LORATU
OILARTU
MOTRILU

LABIRINTOA



Lagundu ahate arrari ahate emarekin elkartzen, urmaelean.



SOSLAIA

Zein da zomorro itsusi honen silueta zuzena?



INTERNETEN ERE BAI!

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.es/kioskoa/soluzioak

<http://plazanbazan.es/>

Ttipi Txartela rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSU-TRUK
-%80 ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61 ☎
info@ttipi.eus | erran.eus
www.ttipi.eus/ttipi-txartela

858 zenbakiko irabazleak >



ZOZKETAK

- Donostiako Aquariuma - Bi sarrera**
Kontxi Alzuri Maiz | ARANTZA
- Onddo ta punto - Kamiseta bat**
Juan Miguel Eraso Danboriena | ORONOZ
- Hara bi - Poltsa bat eta botila bat**
Iñaki Altzugarai Lekuona | LESAKA
- BKZ Abentura - Sarrera bat**
Koldo Gartxitorena Arraztoa | DONEZTEBE
- Izar Park - Sarrera bat**
Mertxe Elrio Iñarga | BERA
- La Rhune - Sarrera bat**
Agustin Mitxelena Aleman | ERRATZU
- Mendukilo - Bi sarrera**
Amaia Baztarrika Huizi | EZKURRA
- Anikote - Sarrera bikoitza igerilekurako**
Kati Astibia Olano | LEITZA
- Txalaparta - Bi liburu**
Maite Berasategi Mikelperizena | IRUÑEA

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

Bi sarrera

BUATXABAL
www.buatxabal.com

Kamiseta bat

EZKEXA
www.ezkexa.com

Kamiseta bat

IRRISARRI LAND
www.irrisarriland.com

Sarrera bat

ARUPE
www.arupegozotegia.com

Lote bat

WOW PARK
www.wowpark.fr

Sarrera bat

ZUGARRAMURDIKO LEZEAK
www.turismozugarramurdi.com

Sarrera bat

ARRATE ESTETIKA ZENTROA
Eliza Karrika, 18 - Doneztebe

Azala zaintzeko produktuak

Sartu

ttipi.eus/ttipi-txartela
webgunean eta ikusi
abantaila guztiak!

DESKONTUAK
ZOZKETAK
ELKARRIZKETAK
LAGUNTZAILEAK
ARGITALETXEAK



Aprobetxa itzazu Ttapi Txartelak eskaintzen dizkizun abantailak, Ttapi Txartela onartzen duten denda eta zerbitzuetan erosiz.

MUSIKA

Hiru CD



Deskontuak eta zozketa: Ttapi-Ttapa aldizkari guztietan Ttapi Txartelaren informazioa argitaratzen da, zozketak eskainiz eta aukeran dituzun deskontuak oroitaraziz!

baga-bisa
MUSIKA IDEAK
www.baga-bisa.eus